

eraldaketarako aldizkari politikoa
2021eko ekaina / www.eria.eus



ERRIA 7. zenbakia

Azaleko ilustrazioa:
Oier Zuñiga

Argitaratzailea:
Iratzar Fundazioa

Editoreak:
Andoni Olariaga
Gotzon Elizburu

Erredakzioa:
Andoni Olariaga
Gotzon Elizburu
Itziar Amunategi
Oier Narbaiza

Argazkiak:
Foku

Diseinua eta maketazioa:
Grafik Sarea

Itzulpenak:
Frantsesa: Egoitz Urrutikoetxea

Ilustrazioak:
Oier Zuñiga

Egoitza:
Zuatzu enpresa parkea.
Easo eraikina 4, behea.
20018 Donostia
tlfnoa: 943 265982

www.eria.eus
eria@eria.eus

twitter: @eria_eus
facebook: www.facebook.com/eria.aldizkaria
Telegram: ERRIA

Erria aldizkaria Sortu eta
Iratzar Fundazioarena da.

Lege gordailua:
SS-0033-2018

Jabego lizentzia:
CC BY-SA



07 EDITORIALA

Erosotasunetik aldendu eta herri ikuspegitik zereginei ekin beharraz

14 **SAKONEAN** IZAR HERNANDO, AITOR SERVIER, PAULA GARCÍA eta PELLO ZABARTE

Gurea izan da termino estrategikoetan zailtasun handienei aurre egin behar izan dien belaunaldietako bat”

36 **SINADURA** Amancay Amets Villalba Eguiluz
El papel de las ciudades en el proceso descarbonización de Euskal Herria: propuestas desde Gasteiz. ‘Gasteiz 0 Carbón’

62 **SINADURA** Urko Aiertza eta Rufi Etxeberria
Aiete, hamar urte ondoren

76 **SINADURA** Gotzon Barandiaran Arteaga
Euskal kultur gintzak plazak behar ditu

10 TXIO-TXIOKA

28 **ERREPORTAJEA** Haimar Altuna Ijurko eta Aiora Epelde Agirre

Indarkeria matxistaren aurrean eraldaketarako tresna

44 **ELKARRIZKETA** Egoitz Urrutikoetxea
“Euskal Herrian ezin dute beste lekuetan bezala nahieran aritu. Errespetua irabazi dugu”

52 **ERREPORTAJEA** Imanol Esnaola.
Lurralde antolamendua Euskal Herrian: menderakuntzaren iraganetik, erresilientzia burujabearen etorkizunera

70 **SINADURA** Edurne Benito del Valle eta Andoni Olariaga Azkarate
Argilunetako munstroak

84 **Fundamentos socio-tecnológicos para la ciber soberanía**

DOSSIERRA: EUSKAL HERRIAK BEHAR DUEN POLIZIA EREDUAZ

86 **ERREPORTAJEA**
Ze polizia dugu? Ordenaren zaindarien desordena

102 **ERREPORTAJEA**
¿Quién manda actualmente en la Ertzaintza?

112 **ERREPORTAJEA**
Polizia eredu demokratiko eta komunitariorantz

124 **ELKARRIZKETA**
“Es parte de nuestra identidad y fortaleza asumir el peso de las tareas y no escondernos detrás de posturas cómodas”

Compañeros/as de MLN-Tupamaros

136 **ERREPORTAJEA**
Ipar Irlandako polizia erreforma: kontrol demokratikoa eta komunitatea ardatz

Elena Beloki Resa

144 **ERREPORTAJEA**
LE BREXIT: L'HISTOIRE INACHEVÉE D'UN VOYAGE À LA DESTINATION INCERTAINE

Igor Zulaika. Membre de la Commission internationale d'EH Bildu

160 **ERREPORTAJEA**
PARISKO KOMUNAREN FEDERALISMO EMANTZIPATZAILEA

Egoitz Urrutikoetxea. Iratzar Fundazioko kidea

152 **ERREPORTAJEA**
PARISKO KOMUNA: EMAKUMEEN HITZA ETA EKINTZA ARGITARA


Elena Beloki Resa. Iratzar Fundazioko kidea

166 **ERREPORTAJEA**
TXILEKO PROZESU KONSTITUZIOGILEA, PINOCHETISMOAREN HERENTZIAREKIN AMAITZEKO AUKERA HISTORIKOA

Eneko Conpains Silva. Konstituzio Zuzenbidean Doktorea eta Sorturen Kontseilu Nazionaleko kidea

176 **INFOGRAFIA**
URRUNKETAREN MAPAREN BILAKAERA

178 **GOMENDIOAK**



Erosotasunetik aldendu eta herri ikuspegitik zereginei ekin beharraz

Estatugintza, naziogintza eta herrigintza dira Erria aldizkariaren ardatz nagusietakoak. Telesforo Monzonen ideia bat beti bidaia-lagun: ez gabiltza teoria edo ideologia batentzako herri baten bila, herri baten askatasunerako bideen bila baizik. Zazpigarren zenbaki honetan aurreko ideia inoiz baino presenteago izan dugu. Zibilizazio gisa ditugun erronkei guretik aurre egiteko burujabetza aldarrikatzen du ezker abertzaleak, eta pandemia osteko garaian herri ikuspegiz eraldaketa sakonak egiteko garaia izango dela uste dugu. Larrialdi klimatikoak eta digitalizazioak dakartzan aldaketak irudikatzea ere kosta egiten zaigu oraindik, baina badatoz, indar handiz gainera. Guri dagokigu lidergoz heltzea gehiengoaren mesedetan egingo badira, ez gutxi batzuen interes ekonomiko eta korporatiboen arabera. Kontraesan berriak kudeatzeko garaia ere izango da, helburuetara iristeko bidea lurrean ibiliz egin beharko baita, ez ideien munduan hegan eta eroso. Horrek eztabaida eta pedagogia asko eskatzen ditu; energiaren arloa eta deskarbonizazioak edo lan munduari lotutako aldaketek, esate baterako, zer esana emango dute. Ez da abstrakziorako aukerarik izango. Zenbaki honetan Amancay Amets Villalba Gasteizko EH Bilduko zinegotziak hiriaren eskalatik deskarbonizaziorako eman daitezkeen urratsez idatzi du. Bestetik, Iratzar Fundazioak beste eragile batzuekin landu duen 'Ziberburujabetzarako oinarri sozio-teknologikoak' manifestua ere jaso dugu, erronka teknologikoaren eragin zibilizatorioa mahai gainean jarri nahi duena.

Estatu bokazioa dugun heinean, kudeatu beharreko gai arantzatsu gehiago ere baditugu. Horietako bat da segurtasunaren eta poliziaren auzia. Dosierrean monografiko sakona egin dugu egun Euskal Herrian dagoen polizia ereduaz aztertuz. Ezkerreko independentismoak sustatu beharko lukeen Euskal Polizia ereduaz zertzelada batzuk ematearekin batera, Uruguai eta Irlandako nazio askapen mugimenduen ereduak ekarri ditugu, ikasgai batzuk ateratzeko balio dezaketelakoan. Uruguaitarrek dioten bezala, gu ere

ez gara etxekolanei heldu gabe posizio erosoetan geratzekoak. Ertz gehiagotatik aztertu daitezkeen auzia izanik izango dugu hurrengo zenbakietan gehiago sakontzeko aukera.

Kontraesan eta korapiloez ari garela, zer esan etxe barruan gertatzen diren indarkeria matxista kasuez. Ezker abertzalea espazio seguru bilakatzeko xedez, bi hamarkadako esperientzia bildu du barne protokoloak. Orain protokoloa berritu da ikasitakoetatik eta mugimendu feministak urteotan aurreratu duenetik ekarpenak jasota. Aiora Epelde Plan Feministaren arduradunak azaltzen du zein den protokolo berriaren filosofia.

Sakonean elkarrizketa berezia egin dugu oraingoan. Gazteriaz asko hitz egin da pandemia garaian. Guk lau gazte militanteri eman diegu hitza euren ahotik kontatzeko nola bizi duten garai hau eta nola ikusten duten etorkizun laburrera.

Gehiago luzatu gabe, zenbaki honetan hizpide ditugu ere euskal kulturgintzaren erronkak, Aieteren 10. urteurrena, ahate haztegien borroka, Euskal Herriko lurralde antolamenduaren bilakaera, Parisko Komunaren 150. urteurrena eta Brexitek Irlandan, Eskozian, Galesen eta Ingalaterran eragin dituen aldaketak, besteak beste. Gustoko izango duzuelakoan, aldizkaria udarako konpainia atsegina izan dadila opa dizuegu.

Alejarse de la comodidad y emprender tareas desde el punto de vista de país

Los ejes principales de la revista Erria son la construcción estatal, nacional y popular de Euskal Herria. Siempre nos acompaña una idea de Telesforo Monzón: no buscamos un pueblo para una teoría o ideología, sino los caminos para la libertad de un pueblo. En este séptimo número hemos tenido más presente que nunca la idea anterior. La izquierda abertzale reivindica la soberanía para hacer frente a los retos que tenemos como civilización, y creemos que la postpandemia será el momento de hacer profundas transformaciones con visión de país. También nos cuesta imaginar los cambios que suponen la emergencia climática y la digitalización, que vienen, además, con mucha fuerza.

Nos corresponde actuar con liderazgo si se van a hacer en beneficio de la mayoría, no en función de los intereses económicos y corporativos de unos pocos. Además, deberemos de gestionar nuevas contradicciones, ya que el camino para llegar a los objetivos habrá que recorrerlo caminando a ras de suelo, y no volando cómodamente en el mundo de las ideas. Esto requiere mucho debate y pedagogía; el ámbito de la energía y la descarbonización o los cambios relacionados con el mundo laboral, por ejemplo, darán mucho que hablar. No habrá posibilidad para la abstracción. En este número, Amancay Amets Villalba, concejala de EH Bildu en Vitoria-Gasteiz, escribe sobre los pasos que se pueden dar para la descarbonización desde una escala de ciudad. Asimismo, hemos recogido el manifiesto 'Bases socio-tecnológicas para la cibersoberanía' que la Fundación Iratzar ha elaborado con otros agentes para poner sobre la mesa el impacto civilizatorio del reto tecnológico.

En la medida en que tenemos vocación de Estado, tenemos más temas espinosos que gestionar. Uno de ellos es el de la seguridad y la policía. En el dossier hemos incluido un monográfico exhaustivo analizando el modelo policial actual en Euskal Herria. Con algunas pinceladas sobre el modelo de Policía Vasca que debería promover el independentismo de izquierdas, describimos modelos de movimientos de liberación nacional de Uruguay e Irlanda, que pueden servir para extraer algunas lecciones. Como dicen los y las uruguayas, nosotras tampoco nos quedamos en posiciones cómodas sin agarrarnos a los deberes que debemos hacer. Se trata de un asunto que se puede analizar desde más aristas y que nos permitirá profundizar más en los siguientes números de la revista.

Hablando de contradicciones y enredos, qué decir de los casos de violencia machista que se producen en nuestro entorno. Con el objetivo de convertir a la izquierda abertzale en un espacio seguro, el protocolo interno recoge dos décadas de experiencia. Ahora se ha renovado el protocolo recogiendo aportaciones de lo aprendido y de lo avanzado por el movimiento feminista durante estos años. Aiora Epelde, responsable del Plan Feminista, explica la filosofía del nuevo protocolo.

En este número hemos hecho una entrevista especial en Sakonean. Se ha hablado mucho de la juventud durante la pandemia. Nosotras hemos dado la palabra a cuatro jóvenes militantes, para contarlos con sus palabras, cómo viven este tiempo y cómo ven el futuro a corto plazo.

Sin más dilación, en este número también nos referimos a los retos de la cultura vasca, el 10º aniversario de Aiete, la lucha de las y los granjeros de patos, la evolución de la organización territorial de Euskal Herria, el 150º aniversario de la Comuna de París y los cambios que el Brexit ha producido en Irlanda, Escocia, Gales e Inglaterra. Esperando que os guste, deseamos que la revista sea una agradable compañía para el verano.

S'écloigner de la zone de confort et agir en tant que pays

Les principaux axes de la revue Erria sont la production étatique, nationale et populaire. Nous sommes toujours accompagnés par une idée de Telesforo Monzón : nous ne cherchons pas un peuple pour une théorie ou une idéologie, mais les chemins vers la liberté d'un peuple. Dans ce septième numéro, nous avons plus que jamais gardé l'idée ci-dessus à l'esprit. La gauche abertzale revendique la souveraineté pour faire face aux défis que nous avons en tant que civilisation, et nous pensons que l'après-pandémie sera le moment d'opérer des transformations profondes avec une vision en tant que pays. Il nous est également difficile d'imaginer les changements induits par l'urgence climatique et le numérique, et ils arrivent avec force.

C'est à nous d'agir avec audace si nous voulons que les transformations en cours se fassent pour le bénéfice de la majorité, et non pour les intérêts économiques et corporatifs de quelques-uns. Nous devons également gérer de nouvelles contradictions, car le chemin pour atteindre les objectifs devra être parcouru sur le terrain, et non en se cantonnant confortablement dans le monde des idées. Cela nécessite beaucoup de débats et de pédagogie ; il faudra par exemple aborder le domaine de l'énergie et de la décarbonisation ou les changements liés au monde du travail. Il n'y aura pas de place pour l'abstraction. Dans ce numéro, Amancay Amets Villalba, conseillère municipale de EH Bildu à Vitoria-Gasteiz, parle des mesures qui peuvent être prises en vue de la décarbonisation à l'échelle municipale. Nous avons également recueilli le manifeste «Bases socio-technologiques de la cybersouveraineté» que la Fondation Iratzar a élaboré avec d'autres acteurs pour mettre sur la table l'impact civilisateur du défi technologique.

Dans la mesure où nous avons une vocation d'État, nous avons des questions plus épineuses à gérer. L'une d'entre elles est la sécurité et la police. Nous avons inclus dans le dossier une monographie exhaustive qui analyse le modèle policier actuel au Pays Basque. Avec quelques coups de pinceau sur le modèle de la police basque qui devrait promouvoir l'indépendantisme de gauche, nous décrivons des modèles de mouvements de libération nationale en Uruguay et en Irlande, qui peuvent servir à tirer quelques leçons. Comme le disent les Uruguayens et les Uruguayennes, nous ne restons pas non plus dans des positions confortables. C'est une question qui peut être analysée sous plusieurs angles et qui nous permettra d'approfondir les questions suivantes.

En parlant de contradictions et d'enchevêtrements, que dire des cas de violence masculine qui se produisent dans notre environnement. Dans le but de transformer la gauche abertzale en un espace sûr, le protocole interne comprend deux décennies d'expérience. Aujourd'hui, le protocole a été renouvelé, en tenant compte de ce qui a été appris et des progrès réalisés par le mouvement féministe au fil des ans. Aiora Epelde, responsable du Plan Féministe, explique la philosophie du nouveau protocole.

Dans ce numéro, nous avons réalisé une interview spéciale en profondeur. On a beaucoup parlé des jeunes pendant la pandémie. Nous avons donné la parole à quatre jeunes militants, pour qu'ils vous racontent avec leurs mots, comment ils vivent cette époque et comment ils voient le futur proche.

Sans plus attendre, nous évoquons également dans ce numéro les défis de la culture basque, le 10e anniversaire d'Aiete, la lutte des éleveurs de canards, l'évolution de l'organisation territoriale d'Euskal Herria, le 150e anniversaire de la Commune de Paris et les changements que le Brexit a produits en Irlande, en Écosse, au Pays de Galles et en Angleterre. En espérant qu'il vous plaira, nous espérons que ce magazine sera un agréable compagnon pour l'été.

14



36



44



52



62



76



D1
86



70



84



D2
102



D4
124



D5
136



D3
112



144



152



160

166

TXIO-TXIOKA

2021

Atal honetan azken hilabeteetan gertatutakoen nolabaiteko bilduma bat aurkituko duzu, motzean. Umorea, satira, salaketa, aldarrikapenak...

Azpimarratzekoak dira, besteak beste, txertaketa prozesua, polizia ereduari buruzko eztabaida, martxoaren 8a, aberri eguna, maiatzaren lehena...eta askoz gehiago.



Kim Jong-un
@norcoreano

Al final se vacuna hasta Miguel Bosé.

Translate Tweet

"Pfizer está preparando una vacuna que seguramente se esnifará"

El neurólogo José Antonio López destacó en La Seda Noche que esta modalidad del remedio no será necesario conservarla en temperaturas extremadamente bajas.

El.com

Publicado el 4 de diciembre de 2020 a las 22:06



15:41 - 12/4/21 - Twitter Web App



Inder garro @lindergarro - 4d
Javier Camara naiz



Julie Goikoetxea
@JulieGoi

El pueblo Palestino también es SEMITA como gran parte de pueblos de Irak, Jordania, Líbano, Siria, Túnez

Flaco favor haceis a la Historia Política de Palestina y a su Lucha de Liberación confundiendo el Estado sionista y genocida de Israel con los pueblos semitas

#FreePalestine

Translate Tweet

09:06 - 12/5/21 - Twitter for Android



Aitor Servier @aitor_servier - 4/6/21
Hau eskandalu bat da! Seaskako nehoiz baino ikasle gehiagok goli-mailako ikasketak euskaraz egin nahi dituen honetan, Parisetik erabakitako hezkuntza erreforma eta @supvehu ren borondate eza dira oztoto.

Euskaraz bizi eta ikasi nahi dute ikasleek, ez besterik...

Euskal Irratiak @euskalirradiak - 3/6/21
Baionako Etxepare Szeoko terminalan ari diren ikasleen %25ak baino gehiagok, goli-mailako ikasketak euskaraz egin nahi ditu. Patxi Ordoizle medikuntza Bilbon eta Nala Sarriak haur hezkuntza Gasteizen. @seaskakastola @selaunabetez euskalirradiak.eus



Paul Molac
@Paul_Molac

Incroyable ! Le conseil constitutionnel censure l'enseignement par immersion et l'usage des signes diacritiques en #languesregionales car contraire à l'article 2. Je réclame en urgence un projet de loi constitutionnel pour modifier cet article.

Translate Tweet

11:51 - 21/5/21 - Twitter Web App



Paul
@hamendik

Teleberriaren hau oso larria da.

Ernairen pintadez ari dira eta irudi hauek jartzen dituzte. Nork pentsa lezake pintada horiek @ernaigazte antolakundearenak direnik?

Hau desinformazioa da, gezurra eta manipulazioa. Arduragabekeria hutsa.

Traducir Tweet



Gasteizar
@Gasteizar1

Lotsagarria @eibAibisteak!

Ipar EHko alderdi abertzale nagusia den @EHBai kanpoan utzi duzue gaurko Baionako manifestazio historikoko adierazpenetatik, baina inolako indarririk ez duen EAJko Ortuzarren adierazpenak jarri dituzue. EHBaik EAJk baino 12 aldiz boto gehiago ditu IEHan

Translate Tweet



21:25 - 29/5/21 - Twitter Web App



Maialen Arteaga @Maial... - 16/06/2021
Nik ere salatzea erabaki nuen.

Niri ere galdetu zidaten ea gona neraman.


Niri ere galdetu zidaten ea mozkortuta nengoen.

Eta niri ere galdetu zidaten ea nolatan ez nuen momentuan bertan erantzun eta salatu.

#NiriEreBai

Eñaut Landa @EñautLanda - 15/06/2021
"Ertzainetara zoaz eta... eta jaso nuen tratua izan zen, lo mas humillante que me ha pasado en la vida"

#UriHanditan





Ekhi Erremundegi
@EkhiErremundegi

Ohar gaitezen: hau gerla deklarazio bat da. Frantziako Konstituzio Kontseiluaren ebazpenaren arabera, hizkuntza gutxituen irakaskuntza murgiltze ereduaren bidez egitea Frantziako Konstituzioaren kontrakoa da. Ebazpen honen arabera, @seaska-ren ikastolak inkonstituzionalak dira!

Translate Tweet

Berria.eus @berria · 21/5/21

[AZKEN ORDUKOA]

Frantziako Konstituzio Kontseiluak hizkuntza gutxituen aldeko legea atzera botatu du, partzialki.
@EkhiErremundegi
berria.eus/absteak/7980...



Ernal
@ernalgazte

Kaleak hartu ditugu, neurri zehatzak aldarrikatu, proposamenak mahai gainera, egunerokoa borrokatu. Erantzuna 🏳️ jipoitu, @radioeuskadi eta lagunak guretz hitz egin guri ahotsik eman gabe, gorroto delitua egotzi. Bai, gazteok larrialdi egoeran gaude, baina ez gaituzte geldituko 🙄

Translate Tweet



3.035 views

09:00 · 21/5/21 · Twitter Web App



Nagore Alkorta
@alkorta_nagore

Eskerrik asko!

Traducir Tweet



Antton Telleria
@antton_telleria

Hau da nire asmoa: beste bost urtez graziosoa izaten saiatuko naiz. Lortzen ez badut, @argia n hasiko naiz lanean.

Translate Tweet

"EH Bilda jendearen gehiengoari gustatzea lortu behar dugu, eta ez soilik bere senide eta lagunei", adierazi du Telleria analetan graziosoa izan nahi duenak ez besteak. "Eta nik badaukat horretarako formula. Kontua

1 Beranduegi

16:08 · 18/5/21 · Twitter for iPhone



Ane Irizarabal
@AneIrizarabal

Mugaldera, bonbardaketak ikustera. Ez da fenomeno berria, baina, gizatasuna kenduta, kontsumorako sortutako gerra da: [aljazeera.com/opinions/2021/...](https://www.aljazeera.com/opinions/2021/...)

Translate Tweet



12:46 · 17/5/21 · Twitter for iPhone



Antton Telleria
@antton_telleria

Arnaldo Otegi koleta utzi du

Translate Tweet



13:10 · 14/5/21 · Twitter for iPhone



Flakof5nki
@MeCagoEnPUTOTW1

Me sako el carnet de conducir y me apunto al gym el mismo día, abrazando el sistema ke os jodan punkis

Translate Tweet

13:37 · 31/5/21 · Twitter for Android



Eralitz Saez de Eglaz Ramos
@EralitzSaez

Gaur, beste behin, burla alderdi batzuen partetik Eusko Legebiltzarrean.

No es que me falten al respeto, es que se la pela la precariedad juvenil.

Translate Tweet



21,8K views

21:50 · 13/5/21 · Twitter for Android



Igor Zulaika
@Orhipean

Nola izango litzateke Euskal Herria Israeliek okupatuko izan baligu?

#GazaUnderAttack

Traducir Tweet



Igor Golekoa
@golekoiegort

Gazte hau.

Translate Tweet



45,2K views

23:14 · 7/5/21 · Twitter for iPhone


Jaiko Barik
@Jaiko_Barik

Pues resulta que Jonan Fernández cobra más que el presidente del gobierno de España.
Jonan Fernández: 85.375,50 € anuales.
Pedro Sánchez: 84.845,00 € anuales.
Urkuilu, que cobra 105.825,58 € anuales sabrá por qué.

Translate Tweet



18/10 - 12/4/21 - Twitter for Android


Jean-René Etchegaray
@JreneEtchegaray

Gizon justuaren heriotza!
Michel Berhocoirgoinek utzi gaitu,
zuhurki, bizitzea maitatzen zuen
bezala . Bere lana izugarria
da. Nekazaritza munduak baina baita
Euskal Herriak ere hainbeste zor
diote! Gogoratzeko adibide
bat. Maitasuna eta sustengua Mikeleri
eta Jenofa eta Iñaki.


Jon Inarritu
@JonInarritu

La Guardia Civil confirma que realiza
espionaje político en Catalunya y lo
filtra a su periódico: La Razón.

LA RAZÓN

**Iglesias dejó Podemos
en rojo: 2,6 millones
de pérdidas en un año**

El partido independentista de Cataluña se ha convertido en un agujero negro para el sistema financiero español.

La derecha llega dividida a la
marcha de Colón

El partido independentista de Cataluña se ha convertido en un agujero negro para el sistema financiero español.

La derecha llega dividida a la
marcha de Colón

El partido independentista de Cataluña se ha convertido en un agujero negro para el sistema financiero español.

La derecha llega dividida a la
marcha de Colón

El partido independentista de Cataluña se ha convertido en un agujero negro para el sistema financiero español.

La derecha llega dividida a la
marcha de Colón

El partido independentista de Cataluña se ha convertido en un agujero negro para el sistema financiero español.

La derecha llega dividida a la
marcha de Colón

El partido independentista de Cataluña se ha convertido en un agujero negro para el sistema financiero español.

La derecha llega dividida a la
marcha de Colón

El partido independentista de Cataluña se ha convertido en un agujero negro para el sistema financiero español.

La derecha llega dividida a la
marcha de Colón

El partido independentista de Cataluña se ha convertido en un agujero negro para el sistema financiero español.

La derecha llega dividida a la
marcha de Colón

El partido independentista de Cataluña se ha convertido en un agujero negro para el sistema financiero español.

La derecha llega dividida a la
marcha de Colón

El partido independentista de Cataluña se ha convertido en un agujero negro para el sistema financiero español.


Ez Da Posible!
@EzDaPosibleITB

Txerria... eta punto 🙄
#EzDaPosible @euskaltelebista

Translate Tweet



12,2K views

21:20 - 19/4/21 - Twitter Web App


erria_eus
@erria_eus

#Bermeo-ko Udal liburutegi-an!
erria.eus/gomendioak?pag...
#iparrorrazabilduma @txalapartatik
@TM_eLab

Translate Tweet


Praw
@Prawlitox

Twitter vs Instagram.

Traducir Tweet


Kim Jong-un
@norchoreano

Al final se vacuna hasta Miguel Bosé.

Translate Tweet

**"Pfizer está preparando una vacuna
que seguramente se esnifará"**

El neurovirologo José Antonio López destacó en La Sexta Noche que esta modalidad del remedio no será necesario conservarla en temperaturas extremadamente bajas.



15:41 - 12/4/21 - Twitter Web App


Miquel Ramos
@Miquel_R

Mi teoría de la conspiración favorita es la
de que el mercado se regula solo, que los
ricos lo son gracias a su esfuerzo y que los
pobres lo son porque no se esfuerzan lo
suficiente #LoDebose

Translate Tweet

07:41 - 19/4/21 - Twitter for Android


Mikel AO
@MikelAO_

▶ Euskaltel se creó en 1995, con 100% de
capital público
▶ 2012. El 50,1% del capital se dejó en
manos privadas de ICV e Iberdrola a precio
de saldo
▶ 2015. ICV vendió todas sus acciones
por más del triple del precio inicial
▶ Hoy, el Gobierno Vasco aplaude la
privatización


Translate Tweet

El Correo @elcorreo_com - 28/3/21

#ÚLTIMAHORA: Masmóvil absorberá a Euskaltel tras
alcanzar un acuerdo con sus principales accionistas
leer.elcorreo.com/fmv6n2

Show this thread

21:53 - 28/3/21 - Twitter Web App


Joseba Permach Martín
@jpermach - 8/6/21

Nire ama Zamoran jalo zen, zortzi anai-arreben artean gazteena.
Horietako batzuk amarekin Euskal Herria etorri ziren txikitan lan bila,
beste bik ordea Perura migratu zuten. Peru beti izan da berezia
niretzat eta horregatik are gehiago pozten naiz Pedro Castilloren
garaipenaz 🙄

TXIO-TXIOKA 2021



Estixu Garai Artetxe
@egarai

Gizon batek hausnarketa filosofiko/politiko jantzia idazten du = putoamoa (edo kontra-argudiatu) + elite intelektualak
Emakume batek = mamirik ez duela ezkutatzeko + postureo intelektualak
[#NAZKATUTA](#)

Translate Tweet

14:34 · 23/3/21 · Twitter for iPhone



Anacleto Panceto
@Xuxipc

-Me encanta Lo que el Viento se Llevó.
¡Qué gran actriz era Vivien Leigh! ¡Qué expresividad y qué carisma!
-¿Y qué me dices de Clark Gable?
-Guapísimo.

Translate Tweet

00:12 · 9/3/21 · Twitter for Android



ekai txapartegi
@ekainet

Desertorearen hitzak amen-amen: "una etérea república vasca, concepto de 'revolución burguesa' que caducó en Europa a principios del siglo XX". Borroka konkretuetatik desertatu, teoriari-lainoari ukabildakada jarraitzeko ad eternum. Zer hori baino konserbadoreagorik?

03:03 · 1/3/21 · Twitter Web App



Itzi
@basakaria

Lau kalbo mota dauz, kalbo natural, kalbo nazi, kalbo nazi komunizatatzat dihoana aka FO eta kalbo antifa

Translate Tweet

12:12 · 10/5/21 · Twitter for Android



Ainhoa
@Ttuttuken

Everesteko tontorra.

Traducir Tweet



Mikel Pagadi
@MikelPagadi

Aurten bai.

Translate Tweet



kiliki freXko AKA putasemerik semeena
@pffffajaj

en verdad una cosa buena de los jurrus es el duende ke tienen para hacer todo su ocio a favor de los presos: mendimartxa x los presos, trikipoteo y los presos, xamurtasun tailerra AKA orgia organizada x ernai x los presos, anfetada popular x los presos 🍌🍌🍌🍌🍌

Translate Tweet

14:32 · 4/5/21 · Twitter for Android



Javier Igea Arisqueta
@Arisquetaigea

Spain. Everything under the sun:

Traducir Tweet



nOra
@construktisia

Replying to @kazabolaeta and @Zurgin2

Erabat kulturala da intelijentziaren kontu hori. Hemen abiadura saritzen da, aldiz bertze kultura batzuetan, guztiz kontrara, ongi hausnartu eta patxadaz emandako erantzuna. Fast food-aren bertsiorelaxional-kognitiboa ez ote den hemengo gure pentsamolde hau...

Translate Tweet

15:01 · 19/5/21 · Twitter for Android



lander garro
@landergarro

Nos.han ganado.pero tenemos a Juan y medio

Translate Tweet



23:27 · 17/4/21 · Twitter for Android



Ibai Zabala Gandarias
@ibaizabala1

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak Iruneko polizia izateko euskara jakin behar izatea diskriminatzailea dela esan du.

Hau da gure herrian sortzen ari garen polizia eredu; garrantzitsuagoa da borrarren erabilera euskararena baino.



naiz_
@naiz_info

Euskarak bizi duen egoerarekin kezkatuta, borroka indartzeko deia egin dute gazteek naiz.eus/eu/info/notici...

Traducir Tweet



ELKARRIZKETA: **ERRIA**
ARGAZKIAK: **FOKU**

SAKONEAN



Izar Hernando Ernaiko bozeramailea, **Aitor Servier** Ipar Euskal Herriko gazte mugimenduko kidea, **Paula García** Nafarroako Ernaiko kidea eta militante feminista, eta **Pello Zabarte** Bizkaiko Ernaiko kidea.



“GUREA IZAN DA TERMINO
ESTRATEGIKOETAN ZAILTASUN
HANDIENEI AURRE EGIN BEHAR
IZAN DIEN BELAUNALDIETAKO
BAT”

SAKONEAN
IZAR
HERNANDO

AITOR
SERVIER

PAULA
GARCÍA

PELLO
ZABARTE

Erriaren 7. zenbakirako lau gazte elkarrizketatu ditugu. Euskal Herriaren momentu politikoari buruz gazte ikuspegi batetik irakurketa bat egin nahian, beraien politizazio unera egin dugu lehenik jauzi. Izan ere, Euskal Herrian ziklo historiko bat bukatzearekin batera politizatu diren gazteak direla kontuan hartuta, iragana nola jaso duten, gaur egungo testuingurua nola bizi eta irakurtzen duten, eta aurrera begira Euskal Herria eta mundu zabala nola irudikatzen duten solastu nahi izan dugu. Izar Hernando Ernaiko bozeramale nazionaletako bat, Aitor Servier Ipar Euskal Herriko gazte mugimenduko kidea, Paula García Nafarroako Ernaiko kidea eta militante feminista, eta Pello Zabarte Bizkaiko Ernaiko kidearekin solastu gara. Gako interesgarriak, autokritika, korapilo berriak, militantzia irakaspenak, eta aurrera begirako ideia freskoak ekartzen dizkigute.

Zuen belaunaldiaren politizazioa, esan daiteke, Euskal Herrian ziklo aldaketa erabateko bat eman den momentuan gertatu dela. Nola bizi izan duzue garai hura eta nola oroitzen duzue zuen politizazio unea?

Aitor. Abertzaletasunetik iritsi nintzen militantziara, duda gabe. Haur eta nerabe ginen garaian Lapurdin ikastola batean ikasteak bazekarren oraino ere berekin nolabaiteko “normaltasun eza”. Litekeena da horrek guregan hizkuntza gatazka eta bide batez, nazio zapalkuntzaren inguruko kontzientzia piztu izana. Aldi berean, politizatu nintzen borroka armatua bukatu eta estrategia aldaketa martxan zen garai horretan. Hedabideen bidez jasotzen nuenenetik hasia nintzen nire nortasun politikoaren oinarri intuitiboak eraikitzen. Ezker abertzalearekiko lotura garai berezi horretan sentitzen hasi nintzen izaten, hortaz.

Paula. Uste dut feminismotik hasi zitzaidala, baina ez nago ziur. Izan ere, garai hartan 14-15 urte nituen, mugimendu feministak ez zeukan gaur duen indarra, ez zegoen pil-pilean garai horretan. Institutu garaian bazeuden helduagoak ziren jendea, ikastoletan antolatzen hasi zirenak, eta ni beraiekin batera politizatu nintzen. Institutura pasatzean militatu nahia handitu egin zen. Aitorrek dioenaren haritik, eremu ez euskaldunean hazi izanak, gurasoak euskal hiztunak ez izateak, horrek ere eragina izan du, noski.

Pello. Politizazio adin zehatza ez dakit zein den, ez da momentu zehatz bat, prozesu bat baizik. Prozesuaren hasiera horretan nazio arazoa, abertzaletasuna, erdigunean zegoen, hori ziur. Sasoia ere antzekoa zen, ezker abertzalearen estrategia aldaketaren testuinguruan eman zen. Subjektivoki ilusioa

sortzen zuen testuinguru bat zen niretzako, presoak askatzeko, gazte erakunde berri bat sortzeko... Baina ez nuke momentu zehatz batekin lotuko ere. AHTaren kontrako borroka gaztetatik ikusi dut nire eskualdean, adibidez, eta eragina izan du. Gaztetxearen erreferentzia ere bazegoen herrian. Borroka sozial horiek eta abertzaletasuna uztartuta zeudela ulertzen nuen.

Izar. Nirea inguru euskalduna izan da, hiri batean, eta familia euskalduna dut. Problematika edo auzi nazionalak baino, horrek sortzen zidan maitasun batetik politizatu nintzen; ez hainbeste konfrontaziotik (euskaraz ez bizi izan ahal izatetik), baizik eta maitasunetik. Kontzientzia hartzea gatazka politikoaren ondorioekin lotzen dut, oso mingarria iruditu baitzait gaztetatik preso politikoak egotea, torturaren gaia ere... Injustiziarekin lotzen nuen

hau guztia, eta hortik hasi nintzen kontzientzia hartzen. Feminismoa, adibidez, Ernairekin hasi gineneko garaiekin lotzen dut, aurretik genero problematika ez zelako hainbeste heltzen, beraz, hori ondoren etorri zait. Gero nire ibilbidean gaztetxeak ere izan zuen garrantzi handia, baina abertzaletasunetik edan dut batez ere.

Nola bizi duzue borroka armatuaren ondorengo belaunaldia izatea? Euskal gatazkaren ziklo bukaerak nola eragin dizue?

Paula. Orokorrean, nire familia ez da ezker abertzalekoa, eta beraz, nik gatazkarekin izan dudana harremana urrunagoa izan da, horrek daukan alde txar eta on guztiekin. Ezker abertzalarekin harremanetan hasten naizenean biziagoa den zerbait da, beraz. Estrategia aldaketan gertatutako gauza asko gerora ulertu ditut.

Pello. Nire kasuan, ezker abertzalea eta honen borroka gertu sentitzen nituen; familian, herrian eta inguru hurbilean oro har, horrek gatazkaren hainbat elementu gertutik ikusteko aukera ematen zidan. Beti presente zegoen zerbait zen. Politizazioa hasterako orduan, gatazkaren ondorioen konponbideak pisua zeukan, baina subjektiboki pisu handiena identitatea markatzen zuen aurreko ziklo politikoaren ondareak izan zuen.

Izar. Umetan bai ditut gogoan atxilotetak, eta tentsioa. Militatzen hasi ginen horren bueltan ja, ziklo bat ixten ari zen. Gu gara lehen belaunaldia borroka armatuaren elementu gabe bizi izan garena. Hasiera horretan inertzia batzuk

bazeuden. Baina guk modu batean ziklo honetan militatzea naturaltasunez bizi dugu, hau da baita ezagutu duguna. Zentzu horretan tokatu zaigu freno batzuk botatzea, agian mugimenduari tokatzen zitzaiolako gauza batzuk asimilatzea guretzat jada naturalak zirenak. Alegia, zentzu batean aurretik joan gintezkeelako sentsazioa dut orain, baina ezin izan genuen egin momentuak lasaitasuna eskatzen zuelako. Guk hori ezagutu dugu. Nik Zutik prozesua eta hori guztia ez dut gogoratzen militante bezala. Gu ondorengo belaunaldia gara.

“Gu gara lehen belaunaldia borroka armatuaren elementu gabe bizi izan garena.”

“Tokatu zaigu freno batzuk botatzea, agian mugimenduari tokatzen zitzaiolako gauza batzuk asimilatzea guretzat naturalak zirenak. Zentzu batean aurretik joan gintezkeen, eta ezin izan dugu momentuak lasaitasuna eskatzen zuelako.”

IZAR HERNANDO



Agian, Ipar Euskal Herrian armagabetzea mugimendu politiko aktibo gisa egin izanak, politizazio prozesu desberdin bat ekarri du?

Aitor. Nire kasuan bete betean militatzen hasten naiz borroka armatua bukatu ondotik, 2011-2012 nire kasa politizatzeke fasea da, militante zaharrekin harreman handirik izan gabe. Borroka armatua bukatu eta berehala Ipar Euskal Herrian (IEH) Aitzina gazte antolakunde berria sortzeko prozesuan sartzen gara, dena egiteke zegoela. Lapurdi-, Baxe-Nafarroa eta Xiberuaren instituzionalizazioaren alde edo gatazkaren ondorioen konponbidearen inguruan eraikitako herri frentek ilusio-iturri izan ziren. Nahiz-eta borroka armatua 2011an bukatu, Ipar Euskal Herrian 2017ko armagabetzera arte luzatu den sekuentzia batez, armagabetze prozesua aktibo politiko garrantzitsu izan da gazte mailan. Baina orduetik espektatiba batzuen eraistea eta zerumuga baten bukaera bizi izan dugu. Ardura hori mahai

gainean bazegoen aurretik, baina, kontraesan batzuk kudeatzeko beharrarekin batera guri beranduago iritsi zaigu.

Aurreko zikloaren irudi idealizatu bat transmititu zaizuenaren irudipena duzue? Bizi izan ez duzuen garai baten nostalgia sentitzera iritsi al zarete?

Paula. Nostalgia ez. Baina egia da aurreko garaia idealizatu egin dela. Dena den, azken urteetan egin diren irakurketa historiko eta politikoei beste gauza batzuk jarri dituzte mahai gainean, aurreko garaia des-idealizatzen lagunduz. Nik ez dut nostalgia ez, egia esan.

Izar. Egia da badagoela karga bat eta irakurketa bat, aurreko ziklokoa hobea zela esaten duena, nahiz eta gero denok dakigun, besteak beste, garaiko gogortasun horregatik ezin dela esan hobea zenik, nahiz eta kaleak hartu, jende asko kalera aterata... Hori dena hor dago, baina karga bat da, irakurketa zuzen bat baino.

Aitor. Bai, izan ere, inoiz entzun dut gurea izan dela termino estrategikoetan zailtasun handienei aurre egin behar izan dien belaunaldia. Ni baieztapen horrekin erabat ados naiz. Halere, azken urteetan nostalgia bat oso agerikoa izan zitekeena, estetikoak, iruditegiari lotutakoak, mezuei atxikia... difuminatzen joan dela nabarmena da, baina horrekin, askoz ere arriskutsuagoa den nostalgia bat agertu dela, militantzia eredu jakin bati lotua, estrategia planteatzeko paradigma batzuei lotua nagusitu dela ere agerikoa da.




Momentu horretan, ideien, praktikaren eta estrategiaren berformulaziopean, tokatzen zaizue gazte militantzian hastea, eta erakunde berri bat sortzea, Ernai eta Aitzina.

Aitor. Borroka armatua bazter uzteaz harago, hainbat gako ditu estrategia berriak: Konfrontazioa herri bezala irudikatzea, horretarako indarrak metatzea, militantzia eredu birpentsatzea... Gazteok begirada propioz egin nahi genion ekarpena horri guztia. Azken urteetan ari da nagusitzen nostalgia bat irakurketa berri horiek alboratzen dituenak. Ezker abertzalearen onura eta akats bat da, erresistentziari oso loturiko ondare bat jaso dugulako. Ni ari naizenean IEHtik militantzian hasten, nostalgia hori lotzen dut errefuxiatuen inguruko epika batekin, GALEn ekintzen kontaketa batekin... eta ez hainbeste ikastolen sorrerarekin, laborantza ganbara bezalako herrigintza proiektuekin... Beraz, kontakizuna oso erresistentziari lotua egin zaigu.

Horrek IEHn zentzu gutxi dauka abertzaletasunaren ibilbide anitzari erreparatzen badiogu.

Pello. Gure belaunaldiaren gain edo bizkarrean ideia bat jarri da: “trantsizio batean gaude”. Hori izan da belaunaldi bati eskaini diezaiokezun ideia okerrenetako bat, belaunaldi hori ezerezera daramazulako: ziklorik ez daukazu, tartean zaude, inoren terrenoan. Gure jardun politikoa egon da lotua bereziki beste ziklo bati, eta horrela aldarrikatu behar da: egon dira elementu subjektibo asko aurreko zikloari lotutakoak (ez borroka armatua, baizik erresistentzia zikloa, komunitate trinkoa, identitate zurruna...). Gure militantziaren hasieran estimuluak dira, baina gure identitatea markatzeko gaitasuna ziklo politiko berriari lotutako elementuek dute batez ere: feminismoa, autoritarismoaren kontrako elementuak, Altsasu, antifaxismoa, belaunaldi kolpatu bat artikulatzea...



“Gure belaunaldiaren gain edo bizkarrean ideia bat jarri da: “trantsizio batean gaude”. Hori izan da belaunaldi bati eskaini al diozun ideia okerrenetako bat.”

PELLO ZABARTE

Ziklo berria, hortaz, bi munduren artean harrapatuta...

Izar. Zaila da identifikatzea gure belaunaldiarentzat ziklo honek ekarri dituen gauza berriak. Esan edo egiten ditugun gauza batzuen arabera, ematen du herrigintza orain hasi dela. Alegia, ez dugu jaso kontakizun bat osotasun horrena, eta, batez ere, jarraikortasunarena: gero zaila da berria dena zer den eta zer ez bereizten. Eta gero badago joera bat kaltegarria dena, garaiak konparatzekoa. Mugimenduarentzat trantsizio garai bat izan zen, baina guretzat gure momentua zen, eta indarrak ez askatzearen sentsazioa izan genuen, mugimendu bezala.

Paula. Batzuetan gehiegi exijitzen zaigu, exijitu zaigu. Guk ere atera dugu jendea kalera, baina badirudi inoiz ez dela nahikoa izan, neurgailua aurrekoa zelako. Badirudi aurreko zikloan egon den gogortasunaren zati bat kenduta, konfrontazio bat kenduta, guri bidea erabat lausotzen zitzaigula, kasik jende gehiago ateratzera behartua geundela, den dena egin behar genuela eta berehala egin ere! Eta egiten ez bagenuen ezer ez genuela egiten esaten zitzaigun.

Izar. Uste dut gure belaunaldiari eta gazte belaunaldi guztiei tokatu zaiela hau bizitzea. Gure belaunaldia baloratua izan da momentu batzuetan gai izan garelako pronostiko guztien kontra jende bat biltzeko. Zentzu kuantitatibo batean baloratu da, ordea. Eta ahazten zaigu gazte antolakundeak duen funtzio nagusia dela belaunaldi berriak batzea. Hori, momentu edo garai oso zailetan, lortu dugun zerbait da. Helduen perspektibatik,

“Mugimenduarentzat trantsizio garai bat izan zen, baina guretzat gure momentua zen, eta indarrak ez askatzearen sentsazioa izan genuen, mugimendu bezala”

IZAR HERNANDO

ordea, azken hori baino ez da baloratu. Eta ez dira hainbeste baloratu egin ditugun edukizko ekarpenak, are estetikoak, baita ideologikoak ere... Uste dut ekarpen batzuk egin ditugula, balioan jartzen ez direnak.

Euskal Herrian ziklo baten amaierarekin batera, zuen belaunaldia sortzen da neoliberalismo basati baten erdian, prekarietatea, etorkizun eza, ezkeraren porrotak... Horrek politizazio molde berrietan eragina izan du. Politizazio molde berrietan, abertzaletasunak pisua galtzen du?

Pello. Politizazioen forma aldaketa existitzen da, dinamikoa delako. Gu politizatzen hasiak ginenean eta 90. hamarkadan ere, nazio ardatzak bereganatzen zuen politizazioaren gehiengoa. Nazio ardatzarekin batera, klase, genero ardatzak ere bazeuden, indartsu, baina ez hainbeste. Nazio ardatza oso erdigunean dagoen politizazio eredu batetik, hortaz, politizazio eredu anitzago batera gatoz, gaur egungoa. Orain politizatze bideak desberdinak dira: prekarizazio bortitza dago, azken olatu feminista, planeta suntsitzeak dakarren politizazioa, ezkutuan egon diren politizazio forma guztiak (arrazializatuak, LGTBIQ+...)... Oraingoak potentzialitate handiagoa dauka.

Eta guzti horien atzean badago nazio ardatza, nolabait, urtuta. Batzuetan ahulduago, besteetan naturalizatuago.

Izar. Mundu mailan azken hamarkadan gertatu den ziklo aldaketa batekin lotuta dago aurrekoa. Erreferentziak estatu mailakoak dira, baina bereziki mundu mailakoak, likidotasun horri lotuak. Pultsio nazionala egia da lausotu dela, baina lotua dago ere lorpen batzuekin, naturalizazioarekin. Baina ni kezkatzen nau pultsu nazionalaren tenperatura baxuak. Hala ere, uste dut gaur egun gu baino hamar urte gazteagoak direnengan, aurreko zikloko joerengatik, gazteek lotzen dutela oraindik “borroka” Euskal Herriarekin. Hori ikusten da, esaterako, Tik Tok-en eta sare sozialetan orokorrean. “Los jurrus”, “los borrokas” erabiltzen dute ezker abertzalerekin inongo loturarik ez duten eta soziologikoki urrun dagoen jendeak, askapenaren iruditegi zabalarri lotua, zentzu zabalean. Konnotazio negatibo batzuk bai, baina positiboak ere baditu, indartsuak: borroka, konfrontazioa... Badaude, hortaz, gauza batzuk ez direnak erori guztiz: ikurrina, lauburua, trikitixa... Tik-Token borrokarekin lotzen dituzte, espainolez edo frantsesez, berdin du.



**““Los jurrus”,
“los borrokas”,
erabiltzen
dute ezker
abertzalerekin
inongo loturarik ez
duten, soziologikoki
urrun dagoen
jendeak, baina
borrokarena,
askapenaren
iruditegi zabalari
lotua, zentzu
zabalean.”**

IZAR HERNANDO

SAKONEAN
IZAR
HERNANDO

AITOR
SERVIER

PAULA
GARCÍA

PELLO
ZABARTE

Politizazio hori ez da berdina, ordea, Euskal Herriko lurralde desberdinetan...

Aitor. Sekulako aldea dago egiten ditugun irakurketa eta errealitateari so eginda ikus daitekeenaren artean. IEHn oraindik ere falta zaigu kokxa bat gorago igotzea, beste gaietan politizatze eskaintza egiterako orduan. Ekologismoaren lerroa nabarmena da, baina fikzioa da esatea IEHra olatu feminista heldu denik, heltzekotan frantses Estatutik heldu baita. Gure jendartea (IEH) norbaitek politizatzen baldin badu, aktibatzeraino, oraindik mugimendu abertzaleak egiten du, burujabetza erdigunean kokaturik. Aldi berean, estrategiaren aldaketaren gaira itzulita, IEHn azken urteetan mamitzen dira konfrontaziorako esparru batzuk, Estatuaren eta IEHn artean. Ikusi besterik ez dago duela aste batzuk Konstituzio Kontseiluak Molac legea zentsuratzen duelarik, Etxegarai lehendakaria, agertzen zaizula, abertzalea ez den zentro-eskuineko politikari bat “herri honen kontrako deklarazio bat da” erraten. Euskal Elkargoa sortuz geroztik indartzen ari da IEHko markoa, naturalizatzen ari da. Positiboa da, baina horrek ez dakar de facto Euskal Herriko markoa indartzea. Lehen urratsa da, beraz, Parisera edo Bordelera bainio gehiago Baionara begiratzea; baina herritar gehiengoak ez du oraindik Iruñera edo Bilbora guk nahi beste begiratzen.

Eta Nafarroan?

Paula. Nafarroan bada pultsu nazional indartsua, baina EAE eta IEHrekin alderatuta desberdina da. Euskararen zonifikazioa, euskararen kontrako politikak... Eguneroko kontua da hau. Horrek lotzen

zaitu marko nafarrera. Politizaziorako garrantzitsua da bektore hau: Tuteran ezin dute euskaraz ikasi, Tafallan Iruñera etorri behar dira adin jakin batetik aurrera, Irunberrin berdin, Mendigorrian arazo bera... Eguneroko gauza da. Gero historiaren ardatzak garrantzia du oraindik. Orain Nafarroa Berriz Altxa dinamika sortu da, eta 1512-2012 Nafarroa Bizirik dinamika garrantzitsua izan da gure historia aldarrikatzeko. UPN urte askoz egon da gobernuan eta oso ongi egin du lana nafar historia berdefinitzen, bereganatzen. Nafar gazte askorentzat, politizaziorako eremua izan da. Orain, feminismoak izugarritzko indarra du, AHTren kontrako borroka, ekologismoa... baina esango nuke ildo nazionalak pisu handia daukala oraindik Nafarroan.

Nafartasuna borrokatzen ari zaio UPNri...

Paula. UPNk lortu zuen navarrísimos idearekin, “cuidado que vienen los vascos”, ... narratiba indartzea. Azken urteetan indarra hartu duen nafartasun euskaldunak lortu du horri aurre egitea indarrez, nafartasun euskaldun eta ezkertiar bat planteatuz. Bere fruituak ematen ari da, burujabetzarekin lotzen dituen heinean bere ideiak. Orain harrotasunez esaten dugu, nafarrak gara eta nafartasuna bizitzeko beste modu batzuk ere badaude.

EAEn nola ikusten duzue auzi hau, IEHn eta Nafarroan dauden prozesu horiek ikusita?

Pello. EAEn desberdintasun bat dago beste herrialdeekiko. Estatuarekiko konfrontazio maila oso baxua da momentu honetan nire ustez. EAEn ez du EH Bilduk orain Estatuarekin gerra deklarazio bat planteatzen

(adibidez, IEHn Etxegaraik frantziar Estatuarekin planteatu bezala), EAJrekin dagoelako lehia bortitzena. EH Bilduk Madrilen jokatzeko duen papera ere beste bat da momentu historiko honetan, hala izan behar du, ziur aski. Beraz, kasik objektiboa da konfrontazioa dagoen arren, Estatuarekin apenas dagoela. Hortik ondorio batzuk atera daitezke, pultsu nazionalaren lausotzeari dagokionez, adibidez.

Izar. Badaude elementu batzuk zeinetan konfrontazioa egon zitekeen... EAEn guk irabazitzat jo ditugu gauza batzuk ez direnak horrela: euskararen eremuan, nahiz eta normalizazioaren seme alabak izan, aurrerapauso batzuk eman daitezke orain, gainera konfrontaziora eraman gaitzaketenak. Bestalde, EAEn guk ez ditugu jorratu naziotasunarekin lotutako elementuak: ikurrina, lauburua, trikitixa... Sinbolo hauek ez ditugu politikoki lantzen, eta landu beharko genituzke, ez oparitu EAJri. Gazteriaren begietara ez dira hain sinbolo asimilatuak. Ikurrina adibidez, guk lotzen ez ditugun borrokei lotua dago.

IEHn eta Nafarroan egin bezala, EAEn identitate propioa disputatu behar litzaioke EAJri? Eredu konfederala indartzeko, barne diferentzia hori hauspotu, iruditeria nazional baten pean?

Pello. EAEk identitate propioaren eraikuntzaren ariketa oso konplexua egiten zait. Horri lotuta, ordea, EAJk oso ondo konektatzen du EAEn dagoen euskal identitatearekin, erdalduna dena, espainiar kultura eta komunikabideak kontsumitzen dituen, kantabriar euskalduna, igandeetan San Mamesera edo

Kantabriara doan euskalduna... Hori oso ondo egiten du, eta gu urrun gaude hortatik. Hala, gizartearen gehiengoan kapekin ez dugu ondo konektatzen. Hori da EAEn eta Bizkaian dagoen erronketako bat, baina ez du dimentsio bera IEHn eta Nafarroan dagoen borrokarekin.

Aurrekoarekin lotua, iruditzen zaizue abertzaletasuna krisian dagoela?

Paula. Askotan komentatzen dugu; dinamika asko eta lan lerro asko EAerako pentsatuak daude. Nafarroa ez da kontuan hartzen askotan, eta IEH are gutxiago. Sentsazio hori dugu askotan, dinamikak moldatu behar ditugula gure errealitate eta testuingurura. Nafarroan dinamika propio dezente ditugu. Batzuetan sentsazio hori dugu, bai.

Pello. Ezker independentismoan antzeko sentsazioa dute Bilbo handian; mugimendua ez dagoela egokitua hiri handiko errealitatera, milioi bat pertsonako errealitatera, metropolira... Horko pertzepzioa ere antzekoa da.

Aitor. IEHn belaunaldi bezala ez dugu jaso nazio ikuspegiaren inguruko kontakizun eraikitzaileak, eta zentzu horretan ez ditugu oso eztabaida osasuntsu eta sakonak izan horren inguruan. Oso zehatzera joanik, militatzen hasi ginenean Ernaiaren ZukGua prozesuarekin bat ez egiteko erabakia hartu zen hemen, eta eztabaida horiek modu traumatikoan bizi dira. Galdera gehienak hor zintzilik ditugu, hurrengo zikloan askatu beharreko korapiloak dira. Estrategia konfederala, lurralde agendak... Zein da zatiketa administratiboa gaindituko duen estrategia, iruditeria...?

“Galdera gehienak hor zintzilik ditugu, hurrengo zikloan askatu beharreko korapiloak dira. Estrategia konfederala, lurralde agendak... Zein da zatiketa administratiboa gaindituko duen estrategia, iruditeria...?”

AITOR SERVIER

IEHn inoizko eremu instituzional zabalena lortu du mugimendu abertzaleak eta herri mugimendua oso bizirik dago. Halaber, balantzaren beste aldean, turistifikazio izugarria bizi du lurraldeak, BABen IEHaren %45a bizi da eta euskaldun oso gutxi dago eremu horretan... Zein da IEHn borrokaren momentua?

Aitor. Bbaiona-Angelu-Biarritze da gure Bilbo handia, eta orain arte ez zaio heldu behar duen garrantziarekin. Mugimendu abertzalean izandako hainbat eztabaiden iturburuetako bat da. Ezker abertzalean gaiak modu oso nabarmenean bukatu dira eztabaida politikoaren erdian, eta edonork posizio politiko bat hartu behar du horren inguruan: gertatu zen gatazkaren ondorioekin, euskararekin, laborantzarekin, instituzio propioarekin... Begibistan da inoizko baldintza subjektiborik onenak daudela, baina toki guztietan bezala hainbat arrisku ere bai. Egia da frantses Estatuaren proiektuak inoizko erakarpen indar txikiena daukala, azken urteetan herritarrak Frantziarekin lotzen zuten kontratu sozialak Europako

beste herrialde batzuetan baino beranduago baina erortzen joan baitira ere. Horrekin batera, beste toki askotan bezala, batasun nazionalaren diskurtsoa oso indartsua dago eta diferentzien kontrako gotortze bat ere suma daiteke. Bi prozesu horien artean gure ildoak, burujabetzarena, indartu egin da, aldagai “identitario” gutiago edo gehiagorekin aro neoliberal eta likido honetan herritarrei helduleku material eta komunitarioak eskaintzen dizkielako. Burujabetzaren marko diskurtsiboak eta herrigintzatik egikaritzen diren alternatibek nehoiz baino potentzial handiagoa daukate.

Gune hegemonikoetatik egindako diskurtsoek kalte egiten ote diote burujabetzaren diskurtso anitz horren eratzeari?

Izar. Oso kontziente izanda anaia handiaren paperatik nabilela, uste dut “gipuzkoarzentrismoa” eta “EAEzentrismoa” modu desorekatuan eraikitako zerbait dela, baina hortik ere mamu batzuk eraiki ditugu. Eta esango nuke, maiz ez direla modu eraikitzailean bideratu. Nafarroak dinamika propio oso aktiboa izatea oso positiboa da, adibidez, edo IEHk izatea berea, edo Bilbo handian behar hori mahai gainean jartzea. Baina modu eraikitzailean, eta ez herrialdeen arteko talkatik, eraiki behar genuke eztabaida hori EAeren errealitatea ere kontuan hartuz. Korapilo hauek planteatu izan dira “abertzaletasuna bai edo ez” binomioan, adibidez. Nik horrela bizi izan dut. Orain baldintzak daude modu eraikitzaileago batean planteatzeko, praktika bat dagoelako hori sostengatzen duena.

Gatozen azken hamarkadetan krisiaren ondoren sortutako prozesuetara. Neoliberalismoaren eta globalizazio uniformizatzailearen kontrako erreakzioak gertatu dira, prozesu subiranistak, feminismoaren azken olatua, mugimendu populistak (Occupy, udaberri arabiarra, M15...), mugimendu ekologista... Feminismoaren azken olatuari erreparatuz, nola erantzun dio askapen mugimenduak interpelazio feministari? Eta zer ekarri du feminismoak askapen mugimendura?

Izar. Interpelazio horretan ezker abertzaleak, edo parte batek, paper bat ere izan duela esango nuke, konkretuago gazte mugimenduak. Ez noski elementu nagusia, baina jokatu du bere papera. Ernairi begira jarrita, urte batzuk lehenago egindako lanari esker olatu feministara prestatuago iritsi ginela esatera ausartzen naiz. Mugimendu bezala orain feminismotik egiten zaizkigun interpelazioak modu positiboan, edo behintzat dialektika natural bezala bizi ditugu. Gure parte den zerbait bezala sentitzen dut. Horrek ez du esan nahi aurrerago edo atzerago goazenik, batzuetan hobe edo okerrago, baina gure parte dela esango nuke.

Paula. Izarrekin ados nago. Gu ere olatu horren parte izan gara, eta hortaz, egiten diren interpelazioak guk egin dizkiogu ere ezker abertzaleari barrutik. Gazte antolakundean bereziki hori modu naturalean bizi da.

Belaunaldi arrakala dago auzi horretan?

Paula. Bai, erabatekoa, lan handia dago egiteko. Gazte antolakundeak erabaki zuenean feminismoa ildo estrategiko

bezala ezartzea, paradigma aldaketa suposatu zuen eta pausuak eman ziren hori horrela egiteko. Hori da gaur belaunaldien arteko arrakalaren motiboetako bat. Oraindik ere belaunaldi gazteagoekin arrakala are handiagoa da. Nik 16-17 urte nituenean ez nuen gaur adin berbera dutenen kontzientzia, horretan hezituagoak daude gaur egun. Beraz, arrakala hor are handiagoa da.

Eta gizonek nola bizi izan duzue?

Pello. Gazte antolakundeak ibilbide luzea du, eta identitate sendoa. Feminismoak izan du gaitasunik handiena zalantzan jartzeko eta deseraikitzeo elementu batzuk, berreraikuntza bat proposatzeko proiektu estrategikoari eta praktika politikoari dagokionez, inertzia batzuk deseraikitzeo... Horren balioa izugarria da. Irakaspenak atera daitezke aurrera begira, interpelazio berrietarako. Horrez gain, gizon militante moduan badugu interpelazio zehatzago bat militante eta gizon moduan, zure izana kuestionatu eta deseraikitzea, behintzat teorian, jakinda oraindik pausu asko, gehienak, ditugula emateko. Ariketa horietan jarraitu beharko dugu.

Aitor. Mikropolitikatik hasita, uste dut hemen denok gure burua ia gizon deseraikitat jotzen dugula, baina militantzia esparruak feministago egiteko jarritako berme eta mekanismo batzuk desagertzen direlarik ondorioak larriak direla. Gizonen artean sortu dira erreakzio politiko batzuk, feminismoaren interpelazioa onartu eta barneratzeko baino, hari aurka egitekoak.

“Klase diskurtsoa”, Europa mailako fenomeno izanik



(Euskal Herrian elementu propioak dauzkana), horrekiko, neoliberalismoarekiko eta ezker abertzalearen ziklo aldaketarekiko erreakzio bat dela esan daiteke. Nola bizi dituzue mundu horrekiko eztabaidak?

Izar. Normala da, nire ustez: gertatu zitekeen eta gertatu da. Ziklo aldaketak ekar zezaken hau, eta ekarri du. Ziklo aldaketak sektore asko gurera ekarri dituen bezala, naturaltasunez, urrundu ditu beste batzuk. Eztabaida horiek naturaltasunez hartu behar dira, beti egon direlako. Borroka armatuaren elementua kendu denean, ustez ikuspegi erradikalagoak direnak agertzea normala da, agian erradikaltasuna konpentsatzen zuena borroka moldea zelako, borroka armatua bera. Beraz, egoeraren normalizazioaren ondorio bezala, logikoa da. Egon dira ere elementu batzuk lagundu dutenak prozesu hori indartzen: feminismoarena

adibide garbiena. Mutil asko sentitu dira oso eroso gure feminismotik kanpo. Mugimendu horrek sortzeko egiten duen kontakizun nagusia da mugimenduaren sorreran bi elementu nagusi daudela: ezker abertzalearen fase aldaketa eta krisiaren leherketa. Nire iritziz pertsonala da lehenak garrantzi handiagoa duela bigarrenak baino.

Aitor. Gero ez da berdina leku guztietan. Ipar Euskal Herrian izaera nazionalari aitortza gehiago ematen dio sektore horrek. Adibidez, Aberri Eguna antolatu du aurten. Urrats taktikoa da. Ezker abertzalearen ustezko gainbehera bati lotuta baldin badago mugimendu hau, soziologikoki gure antzeko guneetatik datorren militantzia bat dela esan behar da. Proiektu politiko zehatz bat aldarrikatzen dute, baina funtsean ez datoz haiek ordezkatu nahi duten espektro sozial horretatik, IEHN are gutxiago. Hemen langile kontzientziadun masarik ez da existitzen, eta zalantzan jarriko nuke ia existitu izan den ere, modu esanguratsu batean bederen. Ezinbestean IEHN pertenezia politikoa eraikitzen da gehiago mugimendu abertzaleak hartutako ildoaren aurkakotasun batean, langileen askapenaren aldeko proiektu egingarri eta errealista baten alde baino.

Eta feminismotik?

Paula. Nire inguruan okerrago bizi izan genituen hasierako liskarrak. Nire sentsazioa zen momentu oro justifikatu behar genuela gure feminismoa antikapitalista zela, gure borrokan, klase ikuspegia txertatua zela gure borrokan... Une oro justifikatu beharra, argudioak bilatzen une oro esateko gurea ez dela feminismo burgesa, honengatik eta

“Ezker abertzalea mugimendu zabal moduan ulertuta, mugimendu guztiak bezala sortu ditu bere balio kulturalak, moldeak... neurri batean bihurtu direnak normatiboak, barrura begira.” PELLO ZABARTE

bestearengatik. Gero denbora pasa da eta nire iritziz modu lasaigoan bizi dugu hori gaur, modu naturalagoan. Oso argi dugu feminismotik zein den gure posizioa, interseksionala dela, nondik egiten dugun lan. Nik beste modu batean bizi dut.

Izar. Ados nago. Gure estrategia identitate eta aliantzak sortzea da, erreferentzia anitzak eta horiek ondoren artikulatzea.

Belaunaldi berriak ulertzeko zailtasunak ditugu. Kultura espresio berriak agertu dira, eredu zahar batzuek eusten diote, jendartea modu desberdinean politizatzen da gaur.

Paula. Gizartea asko aldatu da azken urteetan. Gaztetasuna bizitzeko modua, abertzaletasuna, feminismoa... Batzuetan iruditzen zait gazteriaren eta gizartearen irakurketa sinplistik egiten ditugula. Gazte pilo batek La Isla de las Tentaciones ikusten du eta guri aberrazio bat iruditzen ahal zaigu. Baina seguraski gazte horiek gure problematika berdinak konpartitzen dituzte. Ezin da esan mesprextutik gazteak desideologizatuak daude, gazteak despolitizatuak daude... Haiengana iristeko beste modu eta forma batzuk bilatu behar ditugu eta orain arte egin izan duguna birpentsatu.

Pello. Ezker abertzalea mugimendu zabal moduan ulertuta, mugimendu guztiek bezala sortu ditu bere balio kulturalak, moldeak... neurri batean bihurtu

direnak normatiboak, ez sistema kapitalista heteropatriarkalarekiko, baizik eta barrura begira. Horiek dira agian orain deskonektatuta eta gazteetatik urrun daudenak. Chill Mafiak horri joko eman dio, kuestionatu egin du. Rotten XIII edo Brigade Loco, adibidez, gustatzen zaizkit, baina ez dute kuestionatzen aurrekoa, nolabait. Hala ere, biak dira beharrezkoak.

Neoliberalismoarekiko eta mugimendu eraldatzaile berriekiko erreakzioetako bat, bortitza, eskuin muturrarena izan da. Migrazioa, familia normatiboa, nazio baztertzalea... Balio zahar batzuk berriz ere mahai gainean jarri dituzte. Mugimendu kontraesankorrek ere sortu dira...

Aitor. Frantses Estatuan eskuin-muturrera lerratzen ari den eztabaidak eragin nabarmena du guregan: nazionalismo esplizituaren itzulera, sekurokrazia... Ipar Euskal Herria baloreetan atzerakoia da oraindik ere. Ikusi besterik ez dago zenbat tokitan irabazten dituen hauteskundeak frantses eskuin tradizioak. Feminismoaren eragin eskasa ere jar nezake adibidetzat. Hala ere, Europan gertatzen ari denaren kontra, migratzaileen harreraren aldeko zentzu komun aurrekoi bat garatzen ari da adibidez.

Paula. Nafarroan ez da hainbeste nabaritzen, ziur aski UPN oso eskuindarra delako balioetan jada. Hori

urteetan izan dugu hemen. Eskuin muturraren gorakadak Nafarroan ez du hainbesteko eraginik izan, edo nik ez dut nabaritu, aurretik aipatu dudan horregatik. UPNk eskuineko baloreak ondo errepresentatzen dituen heinean, ez dago espaziorik eskuinerago joateko kasik. Frankistei omenaldiak haiek egiten dizkiete, pentsa.

Horrez gain, interpelazio ekologista ere bidean da...

Horri erantzuten ari ote zaio askapen mugimendutik?

Izar. Berandu iritsi gara hortara, bi zentzutan: olatura berandu eta borrokara ere. Planetaren problematika ze puntutan dagoen, ez gara aurretik konturatu. Honekiko erantzukizuna bi zentzutan dugu: batetik, mugimendu hori gurera ekartzea, Euskal Herriratzea, mugimendu horiek dituzten berritasunak (kultura aldaketan, militantzian...) gureganatzea; eta bestetik, irakurtzea auzi hau eta gure egitea, gure planteamenduaren erroan txertatuz. Edo mundua existitzen da edo ez dago ez independentziaz ez

feminismoaz hitz egiterik. Arazo ekologikoaren beste kontzientzia bat hartu dugu, egia da, baina oraindik ere kanpotik ari gara begira. Kezka handiz bizi dut. Belaunaldi berriak feminismoetik datozela esaten genuen; orain ekologismoetik datoz, eta ez gaude hor. Ez gara erantzuten ari.

Paula. Gaiaren inguruko azaleko irakurketa egiten dugu: interpelatzen zaigulako egin behar dugu. Ez dugu ardura hartu benetan lantzen hasteko, formatzeko, estrategiak garatzeko, gure proiektu politikoaren zentroan jartzeko. Ez da ildo berri bat soilik; gai hau zentrala da. Garrantzi handia dauka, oso ondorio larriak ekartzen dituelako hurrengo belaunaldientzat, nahiz eta oso kontziente ez izan oraindik. Modaz igo gara batzuetan gaira, baina serio planteatu behar dugu.

Zer dela eta erantzun falta hori?

Izar. Ez gara sartu horretan erabat konplexuak ditugulako. Adibidez, kapitalismo berdean

ez erortzeko beldurra dela eta, urruntasun bat mantentzen dugu mugimendu hauekin (Fridays for future, adibidez). Kanpotik datorrenari distantziatik heltzen diogu, irakurketa sakon eta estrukturala egingo dugula esanez. Baina horrek atzeratu egiten du egin behar duguna, irakurketa azalekoa ere egin baitaiteke, ez oso ideologikoa, “planetaren aldeko borroka bat da” sinplea, eta horrekin aurrera egitea borroka erradikal bat. Etengabeko distantzia bat markatzen ari gara, kultura militante horri eta horrek suposatzen duenari. Agian Ipar Euskal Herrian desberdina da...

Aitor. Bai, balioan jarri behar da hemen gai honetan mugimendu abertzaleko beste sektore batzuek egindako lanari, aitzindariak izan zirelako gai hau IEHn lehen lerrora ekartzen. Frantses Estatuan ere eragin nabarmena izan dute. Aitortu behar dena da burujabetzaren kontakizunera ekologismoetik ari dela batzen IEHn kopururik gehiena; sektore sozial bezala eta baita aktibatzen den jendeari

“Edo mundua existitzen da edo ez dago ez independentzia ez feminismoaz hitz egiterik. Oraindik ere, kanpotik begiratzen diogu ekologismoaren auziari.”

“Kapitalismo berdean ez erortzeko beldurra dela eta, urruntasun bat mantentzen dugu mugimendu ekologista berriekin.”

IZAR HERNANDO



“Krisian bizi izan garen belaunaldia gara. Krisiaren aurretik geneukan ziurgabetasuna, areagotu eta orokortu egin da, ez soilik nire bizitzarekin, baizik eta guztiarekin, geopolitika, mundua... Ziurgabetasuna esfera guztietara zabaldu da.”

“Pandemiak aukera asko ireki ditu 2008ko krisiak ongizate estatua utzi zuelako kolokan, kapitalismoaren mugak azaleratuz, baina covid-19arenak ja argi utzi dio mundu guztiari sistema hau ez dela bizigarria.”

“Ikaragarritzko bagajea dugu atzetik, motxilarekin goaz bidea egitera, ez gaude ezer gainerik kentzen. Oso kontziente gara horretaz, badakigu ze motxila daramagun. Baina ez jarri haririk bidean.”

PAULA GARCÍA

begira. Ziur aski estatugintza eta naziogintza perspektiba sendorik gabe, baina herrigintza sendo batetik, burujabetzaren inguruko aldeketasuna piztuz eta sendotuz. Hala ere, lanak dauzkagu oraindik ekologismotik politizatzen den belaunaldi gazteenarekin konektatzen. Bizi proiektu konkretua egin nahi duen 50 urtetik gorako jendearekin errazago egiten dugu. 15 urteko gazteari, ordea, ez nuke esango zerumuga sinesgarri bat eskaintzen diogunik, alternatiba txikien kontakizun batekin.

Paula. Gero egia esan aipatu behar da antidesarrollismotik borroka luzeak egin direla Euskal Herrian aspalditik. Ekologismoaz hitz egitean borroka horiek balioan jarri behar genituzke. Bi borroken arteko elkar-lotura nola egin pentsatzea eta belaunaldi gazteak borroketara lotzea, hori da erronka.

Izar. Honekin lotuta Latinoamerikako borrokak asko gustatzen zaizkit, lurrari lotutako borrokak. Azken finean, lurraren aldeko eta burujabetzaren aldeko borroka hori da: gure lurra, gure bizitza... Noski, eredu hori ezin da ekarri horrela beste gabe. Baina burujabetzaren

diskurtsoa indartzeko hor gako interesgarriak egon daitezke.

Ekofaxismoaren erreakzioa ere begien bistan dago...

Pello. Eskuin muturra maila globalean dagoen mugimendu indartsua da, eta oraindik bigarren plano batean kokatzen ari gara uholde hori Euskal Herrian. Horretan atentzioa jartzea derrigorrezkoa dela onartzen hasi behar gara, ezin gara erlaxatu. Pentsamendua izan ohi dugu faxismoak indar mugatua eta konkretua duela Euskal Herrian, baina EAera begira Ertzaintzan adibidez izaera faxistak nagusitzen ari dira. Oso nabarmena da. Agenda markatzeko gaitasun handia dauka faxismoak, marko mentaletan eragiteko. Autoritarismorako joerak hor daude. Gure partetik, hortaz, horri aurre egiteko atentzioa gehiago jarri behar genuke.

Pandemiara gatoz, orainaldira eta etorkizunera begira. Tentsio berriak bizi behar izan ditugu, autoritarismoaren gorakada, askatasuna eta osasunaren arteko tentsio dialektikoa, zapalkuntza anizkoitzen gogortzea... Pandemiak zer eskenatoki politiko uzten digu herri bezala?

Pello. Gazte bezala, 2008ko krisitik hasita eta 2020ko pandemiak sortutako krisian jarraituz, azeleratu eta azaleratu dira zapalkuntzak, prekarizazioa, krisi anizkoitza, zaintza... Azpimarratu behar da guzti horrek baduela ja dimentsio bat, belaunaldi gisa espektatiba kolektibo batzuk erortzera eramaten gaituela. Gure gurasoak baino okerrago biziko den belaunaldia gara, etorkizun eza irudikatzen duen belaunaldia. Horri begira ere sortzen dira espresio berriak, sistemaren aurreko etsipena barne. Horrek ere sortzen ditu

haserre espresioak, adibidez, Pablo Haselen inguruan izandakoak. Orduan, elementu materialetatik harago, egoera bortitza da, subjektiboki espektatiba kolektibo batzuk erortzeak eszenatoki berriak dakartza, bere arrisku eta aukerekin.

Paula. Krisian bizi izan garen belaunaldia gara. Krisiaren aurretik geneukan ziurgabetasuna areagotu eta orokortu egin da, ez soilik nire bizitzarekin, baizik eta guztiarekin: geopolitika, mundua... Ziurgabetasuna esfera guztietara zabaldu da. Horrek aukera batzuk irekitzen ditu, noski, ez daukagu ezer eta beraz gauza asko dugu irabazteko, baina aldi berean, oso arriskutsua da eraman ahal gaituelako joera askoz indibidualistagoetara, pasibotasun handiago batera... Aurreko etsipena haserrean bihurtzen denean, oso zaila egiten zait hori nola kanalizatu positiboki, eskuin muturrak ederki egiten baitu. Pandemiak aukera asko ireki ditu, beraz, 2008ko krisiak ongizate estatua utzi zuelako kolokan, kapitalismoaren mugak azaleratuz, baina covid-19arenak ja argi utzi dio mundu guztiari sistema hau ez dela bizigarria. Aukerak daude, baina izugarritzko lana dugu argi ikusten dugun hori nola kanalizatu eta indar eraldatzaile bilakatzeko.

Orainaldi ilun hori kontuan hartuz, zein uste duzue izan behar dela askapen mugimenduaren ekarpena gazte belaunaldiari?

Paula. Egiten utzi gaitzatela. Hasieran komentatu dugu, espektatiba pila bat daude gure gain, eta trantsizio belaunaldia gara. Konfiantza behar du gazte belaunaldiak, bere bidea egiteko,

bere moduekin. Egiten utzi eta erratzen utzi, hanka sartuko dugulako. Baina beharrezkoa da guk hanka sartzea, bidea egiteko, gurea. Kontuz, ikaragarritzko bagajea dugu atzetik, motxilarekin goaz bidea egitera, ez gaude ezer gainera kentzen. Oso kontziente gara horretaz, badakigu ze motxila daramagun. Baina ez jarri harririk bidean.

Izar. Hori da, konfiantza. Belaunaldi berrien potentzialitateaz hitz egiten dugu, eta ondo dago, baina espazio gehiago utzi behar dira, konfiantza osoz. Eman behar zaiguna alternatibak dira, belaunaldi bezala. Joerak gure kontra doaz, gure proiektu bital eta politikoen kontra: haserre, indibidualismoa... Estatu mailan eta kanpoan gertatu direnak inbidia puntu batekin begiratu ditugu, baina alternatiba batekiko loturarik ez dago. Hori eskaini behar diogu belaunaldi berriei.

Eta alderantziz?

Pello. Guk askapen mugimenduari ematen diogu dagoeneko hainbat gazte eremutan ez diren espaziotan lehen lerroan egotea. Iazko greba orokorrean gazteek izandako papera, mugimendu feministan neska gazteen papera, ezker abertzaleko hainbat eztabaidetan baita ere... oso determinanteak. Ziklo politiko berria osatzen duten ardatzen gainean ekarpen handia egiten dugu. Zelan egin hori mantentzeko, belaunaldi moduan ezaugarritzen gaituen hori, eta aldi berean ziklo mobilizatzaile berri bat aktibatu, hori da gakoa. Hurrengo urteetan izango ditugu erronka politikak zentzu horretan, askapen prozesuari egin behar diogun ekarpenari begira.

Aitor. Nire ustez ortzimuga askatzaile bat maila nazionalean eman behar zaio gazte belaunaldiari. Sentimenduen eta desiren ikuspegitik identifikazio eta atxikimendu bat bilatu behar dugu gure estrategiarekiko. Maila emozionalean, badugu ondare bat, dezente ikas dezakeguna hortik. Joera dugu edo birproduzitzeko eskema zaharrak edo alboratzeko, baina militantziaren kultura altxor bat dugu, eta gazte ikuspegitik landu beharko dugu. Nostalgian erori gabe.

Imajinatzen duzue Euskal Herri aske bat?

Aitor. Uste dut besteen izenean ere hitz egiten dudala, esaten badut, hemen gauden guztiok egiten dugula euskal herri aske bat irudikatzeko ariketa hori, bestela ez ginateke militanteak izango.

“Pentsamendua izan ohi dugu faxismoak indar mugatua eta konkretua duela Euskal Herrian, baina EAera begira Ertzaintzan adibidez izaera faxistak nagusitzen ari dira.”

PELLO ZABARTE

“Nire ustez ortzimuga askatzaile bat maila nazionalean eman behar zaio gazte belaunaldiari.”

AITOR SERVIER

Indarkeria matxistaren aurrean eraldaketarako tresna



Haimar Altuna Ijurko
eta Aiora Epelde Agirre
Sortuko kideak

**“Paradigma berri baten
aurrean kokatzen gaituen
tresna eraldatzaile, berritzaile
eta koherente bat sortu dugu,
aitzindaria den tresna.”**

Indarkeria matxisten kasuen kudeaketarako Barne Protokoloa urte eta erdiz luzatu den prozesu sakon baten emaitza da. Urrats eta ekarpen kualitatibo handia egin duen tresna da, eratze prozesua bera sakona izan zelako. Arakatzea, murgiltzea, tripetara arte heltzea, kontraesanei parez pare begiratzea eskatu zuen.

Indarkeria matxisten kasuen kudeaketarako Barne Protokoloa urte eta erdiz luzatu den prozesu sakon baten emaitza da. Urrats eta ekarpen kualitatibo handia egin duen tresna da, eratze prozesua bera sakona izan zelako. Arakatzea, murgiltzea, tripetara arte heltzea, kontraesanei parez pare begiratzea eskatu zuen.

20 urte badira Ezker Abertzalea mugimendu gisa eraso sexistei aurre egiteko protokolo ezberdinak garatzen hasi zenetik. Ibilbide luzea du beraz horretan. Baina ibiliaren ibiliak eskatzen duen moduan, ibilitakoaren, momentuko errealitatearen eta geure buruen behar berriei erreparatzeko momentua ere heldu zen. Hausnarketa eta partekatze prozesu bati ekin genion, beraz 2018an, Ernai, LAB eta Sortuko hainbat emakumek, feminismoan aditu eta arituak diren hainbat emakumerekin batera.

Prozesua abiatzerakoan, honako bi gako hauek hartu zuten indarra. Batetik, gure ibilbide propioak; ibilbide horrek gure kontzientzia hartze propioan izan duen eragina eta gure esperientzia eta bizipen propioek azaleratzen zituzten argi-ilunak, ongi eginak eta zailtasun edo eta ezinak. Bestetik, Euskal Herriko

mugimendu feministak justizia erreparatzaile ez punitibistaren eta eraldaketa oso baten alde egin duen ekarpen mardulak, eta horrek gu busti gaituen modua. Beraz, bagenekien bi osagai hauen nahasketaz erantzun berri bat eman behar zuen tresna bat osatu behar genuela, hori izan zen helburu nagusia.

Uste dugu ongi bete dugula helburua, paradigma berri baten aurrean kokatzen gaituen tresna eraldatzaile, berritzaile eta koherente bat sortu dugula, aitzindaria den tresna.

Indarkeria matxisten kasuen kudeaketarako Barne Protokoloa ez da zerbait isolatua, aitzitik, geure buruak feminismotik eraldatzea helburu duen Plan Feministaren baitan kokatzen da, eta eraldaketa integral baterako ekarpena egin nahi du. Azken helburuetako bat, Ezker Abertzalea indarkeria matxistarik gabeko espazio aske eta eroso bilakatzea bailitzateke.

Beraz, protokoloaren ikuskera, filosofia, edukia eta lanketa, klabe eraldatzaile eta erreparatzaileetan oinarritutako prozesuak garatzeko borondateetik egiten dugu. Eta horretarako, ahalik eta kudeaketa koherente eta kolektiboenak osatu nahi ditugu.

Geure buruak feminismotik eraldatzea helburu duen Plan Feministaren baitan kokatzen da, eta eraldaketa integral baterako ekarpena egin nahi du.



Argazkia: Foku

Gure baitan ematen den indarkeria matxistari kolektiboki determinazioz begiratu eta gure baitatik desterratzeko giltza gudan soilik aurkitu dezakegula onartzetik egiten dugu.

Gehiegitan gertatzen zaigu oraindik, gure baitan eman den indarkeria matxista kasu bat identifikatzen ez jakitea, kokatzen ez jakitea edo eta egoki erantzuten ez jakitea.

Egindako minaren aitortzari eta erreparazioari nahiz berriro ez gertatzeko bermeak eraikitzeari bide emango dioten prozesuak garatu nahi ditugu guk.

Dimentsio pertsonala eta kolektiboa

Honen ildotik, jakin badakigu indarkeria-matxistak dimentsio politikoa eta pertsonala daukala, egiturazkoa, eta era berean, gure militantzian bizitzen duguna. Horregatik, Ezker Abertzaleko erakundeok geure agenda politikoen lehen lerroan jartzeko eta modu koherentean kudeatzeko konpromisoa hartu dugu protokolo honen bitartez.

Eta uste dugu, horretan egiten duela protokolo berrituak ekarpen berri handienetarikoa bat, Ezker Abertzalearen izate kolektibo horren baitan ematen diren eraso matxistekiko ardura eta erantzukizuna kolektibo horren gain kokatzean, hain zuzen ere. Indarkeria transistemiko edo egiturazko baten aurrean gaudela ulertuta, gure baitan ematen den indarkeria matxistari kolektiboki determinazioz begiratu eta gure baitatik desterratzeko giltza gudan soilik aurkitu dezakegula onartzetik egiten dugu. Guk soilik baitugu gure buruak, indibidualki eta kolektiboki, eraldatzeko gaitasuna edo ahalmena.

Horregatik planteatzen dugu hiru ardatzi erantzungo dioten prozesu integralak garatzea:

erasoa jasan duenaren ardatzari, eraso egin duenaren ardatzari eta ardatz kolektiboari edo komunitateari dagokion ardatzari, alegia.

Argi dugu indarkeria matxistak hartzen duen dimentsioa kontutan izanda, indarkeria matxista ematen den modua, eragiten duena eta sortzen duena ulertzeko, prebentzioa eta trebakuntza ezinbesteko tresnak izango ditugula. Gehiegitan gertatzen baitzaigu oraindik, gure baitan eman den indarkeria matxista kasu bat identifikatzen ez jakitea, kokatzen ez jakitea edo eta egoki erantzuten ez jakitea. Hau gaur gaurkoz, dugun jendarte eredu kontutan izanda, barne errealitate gisa normalizat eman dezakegu, baina jendarte eredu hori eraldatzeko aspirazioa baldin badugu, gure buruak eraldatzetik hasi beste erremediorik ez dugu.

Eta horrek, aldaketa handia eskatzen du. Justizia feministak erakutsi bezala, gaur egungo justiziaren iruditeriak errudunaren zigorrean kokatzen gaitu, erantzukizun kolektiboan eta eraso jasan duenaren babesean eta elkartasunean kokatu beharrean. Beraz,

egindako minaren aitortzari eta erreparazioari nahiz berriro ez gertatzeko bermeak eraikitzeari bide emango dioten prozesuak garatu nahi izango ditugu guk.

Berriz diogu, horretarako prebentzioa eta trebakuntza feminista klabeak izango dira gure baitan.

Berrikuntza gehiago ere bai

Batetik, indarkeria sexista kasuei aurre egiten zien protokolo batetik, indarkeria matxista kasuei erantzun nahi dien protokolo batera pasa gara. Zer esan nahi du horrek? Begirada altxa eta indarkeria matxistak bere gain hartzen dituen indarkeria mota guztiei erantzun nahi diegula, hain zuzen ere. Hau da, indarkeria sexistaz gain (emakumeek emakume izateagatik pairatzen duten indarkeria), ezarritako genero-estereotipoak nahiz heteroaraua zalantzan jartzen duten pertsonen pairatzen dituzten indarkeriak ere aintzat hartzen ditugula, eta beraz lesbofobia, homofobia eta transfobia kasuen aurrean ere protokoloa aplikatuko dugula.

Bestetik, indarkeria matxista nola ematen den ulertu eta eraso matxistei integritasunez begiratu edo eta erreparatzeko erabakia hartu dugu. Erasotxistak ez baitira kuspidean kokatzen diren erasotxista kasu larri horiek soilik. Erasotxistak, gure egunerokotasunean naturalizat hartzen ditugun erasotxista sotil horien eta erasotxista bortitzenaren artean kokatzen diren izaera ezberdineko erasotxista mota guzti guzti horiek baitira. Eta erasotxista mota guztiei egoki eta modu eraldatzaile batean erantzuteko lagungarri izateko anbizioa du protokolo berriak.



Argazkia: Sortu



Argazkia: Sortu

Ezarritako genero-estereotipoak nahiz heteroaraua zalantzan jartzen duten pertsonen pairatzen dituzten indarkeriak ere aintzat hartzen ditugu.

Eraso mota guztiei egoki eta modu eraldatzaile batean erantzuteko lagungarri izateko anbizioa du protokolo berriak.

Protokoloak berak esaten duen moduan, erasoak izendatzea “maila pertsonalean eragiteko nahiz funtzionatzeko molde kolektiboa politizatze ariketa bat da. Gure ustez, jarrera matxistak izendatzea eta zerrendatzea ariketa feminista izateaz gain, kontzientzia hartze eta trebakuntzarako neurri bat ere bada. Ezker abertzaleko kideon arteko jokamoldeetan, harreman militanteetan, botere harremanetan, espazioen kudeaketetan, lanen banaketan, gure harreman pertsonaletan zein sentimentaletan izaten ditugun harreman motetan egon daitezkeen jarrera matxistak identifikatzeko ariketa da, agerian jartzeko; alegia, ikasitako eta, areago, naturalizatu ditugun jarrera hauek eraldatzeko, desegin eta

beste berri batzuk eraikitzeko. Harremantzeko eta finean, izateko eta funtzionatzeko modu berriez ari gara, pertsonon garapena, askatasuna, autoestimua eta ahalduntzea erdigunean izango dituzten eta bultzatuko dituzten moduez, hain zuzen”.

Anbizio oso handia duen protokolo berri baten aurrean gaude beraz.



Argazkia: Foku

Batetik, justizia ulertzeko edo eta justizia egiteko paradigma aldaketa bat suposatzen duelako. Justizia eredu patriarkal punitibista baten aurrean, alternatiba justizia erreparatzaile eraldatzaile ez punitibista bat garatzea dela aldarrikatzen duelako.

Bestetik, egiturazkoa den zapalkuntza egoera bati, kolektiboaren ardura eta erantzukizunetik abor datzea ezartzen duelako, kolektiboak bere burua eraldatzeko duen gaitasuna eta determinazioa erdigunean jarritz, honek esan nahi duen guztiarekin: ahalduntze prozesuak garatzea eskatzen digun maila berean eskatzen baitigu deseraikitze prozesuak ere garatzea. Ulerturik pribilegiadun pertsonen pribilegiarik ez dituztenekin espazioa partekatzen dutenean era ezberdinetara indarkeria ematen dela, ikas dezagun, lehenik pribilegio horien kontzientzia hartzen, ondoren pribilegio horiek erabili egiten ditugula konturatzen eta aitortzen, eta azkenik pribilegio horiei uko egiten, horrela soilik egingo baitugu guztion eskubideen alde. Horrela soilik bihurtuko baikara gu eta egingo baititugu gure espazioak eroso eta aske.

Erronka potoloa dugu beraz esku artean, protokoloak berak biltzen duen filosofian trebatu behar dugu gure burua; eta ahalik eta sakontasun handienarekin, ahalik eta denbora gutxienean, praktikan jartzen ikasi behar dugu.

Aitzindaria den tresna politiko bat sortu dugu eta harro egoteko zerbait dela uste dugu.

“Jarrera matxistak izendatzea eta zerrendatzea ariketa feminista izateaz gain, kontzientzia hartze eta trebakuntzarako neurri bat ere bada.”

“Ikas dezagun, lehenik pribilegio horien kontzientzia hartzen, ondoren pribilegio horiek erabili egiten ditugula konturatzen eta aitortzen, eta azkenik pribilegio horiei uko egiten.”

“Justizia eredu patriarkal punitibista baten aurrean, alternatiba justizia erreparatzaile eraldatzaile ez punitibista bat garatzea dela aldarrikatzen du.”

Indarkeria matxista erauziz, gugandik hasita



Aiora Epelde Agirre
Sortuko plan feministaren arduraduna

Ezker Abertzaleak berritu berri duen Indarkeria matxistaren kasuen kudeaketarako Barne Protokoloa niretzat, zerbait bada, errealitatea eraldatzeko tresna praktikoa berritzaile baten eskaintza da.

Ohituta gaude, egungo jendarte eredu kapitalista, neoliberal, patriarkala eta koloniala dela entzun edo eta esatera. Gehiago ere zehaztuko ditugu hainbatetan kontzeptu hauek, heteropatriarkala ere badela aletuz adibidez. Edo eta beste batzuekiko harridura azalduko dugu beste zenbaitetan, androzentrista ere badela esatean, adibidez.

Niretzat kontua da, indarkeria matxistari dagokionean, teorikoki (eta beraz marko politiko ideologikoan) oso ongi ezarria eta argudiatua dugun diskurtso eta eragite gogoak, parez pare topo egiten duela gure egunerokotasunean (eta barne mailaz ere ari naiz), naturaltasun osoz, ezarria dugun eredu matxistarekin, parekidetasunean baino ez-parekidetasunean oinarrituta dagoena.

Protokolo honek, zerbait egiten badu, horixe da, ezarria eta gure egina dugun errealitate horren aurrean, ezer ezkutatu nahi gabe, kokatzen gaituela; kolektiboki kokatu ere. Gure buruak eraldatzeko erantzukizuna gure esku eta soilik gure esku dagoela ulerturik, erantzunkizun honi determinazioz eutsi diogu; prozesu eraldatzaile erreparatzaileen bidez paradigma berri bat zabaldu dugu, amesten dugun eraldaketa sozial, politiko, ekonomiko eta kulturalari ekarpen praktikoa egiteko aukera ematen diguna. Ezinezkoa baita, amesten eta irudikatzen dugun etorkizuneko Euskal Herria sozialista, feminista eta euskalduna, parekidetasunean oinarrituta dagoen izate kolektibo eta jendarte eredu bat gabe. Eta ezinezkoa da praktikan jendarte eredu horren aldeko urrats esanguratsuak ematea indarkeria matxista gure izate kolektibo eta indibidualetik erauzi gabe.

Hori da parez pare marrazten zaigun erroka. Eta ez da nolanahikoa. Ezker abertzaleak 20 urte baino gehiago daramatza indarkeria sexistari aurre egiten, horretarako tresna ezberdinak garatzen

eta bidean asko ikasten. Protokolo berritua da azken horren adibide garbiena ere. Kontraesanak kontraesan eta zailtasunak zailtasun, bidea egiten ari gara eta egiten jarraitzeko determinazio osoa dugu.

Aitzindaria da horretan ezker abertzalea eta uste dut geure buruaz harro egoteko arrazoiak ditugula. Ez dezagun ahaztu baina, parean izugarrizko erroka dugula, eta ezin dugula gerorako eta beste batzuen esku utzi, ezin dugula emakumeon esku soilik utzi. Akats estrategiko larria litzateke hori. Kolektiboki eman diezaiozun erroka honi merezi duen garrantzia politikoa.

“Gure buruak eraldatzeko erantzukizuna gure esku eta soilik gure esku dagoela ulerturik, erantzunkizun honi determinazioz eutsi diogu.”

“Ezinezkoa da praktikan amesten dugun jendarte eredu horren aldeko urrats esanguratsuak ematea indarkeria matxista gure izate kolektibo eta indibidualetik erauzi gabe.”

“Parean izugarrizko erroka dugu, eta ezin dugu gerorako eta beste batzuen esku utzi, ezin dugu emakumeon esku soilik utzi.”

1. TIPOLOGIA

Prozedura honetan, sistema patriarkalak oinarri dituen botere- eta pribilegio-posizioak indartzen dituzten jokabide guzti-guztiak sartzen dira. Heuren helburua sistema matxista betikotzea da, balioa kenduz, bromak eginez eta gutxietsiz.

Norbanakoaren edo taldearen ekintzak izan daitezke, pertsona bakarrari zuzenduak edo komunitate osoari, zuzenak edo mozorrotuak edo intentsitate desberdinetakoak, baina etengabeak eta suntsitzaileak izan ohi dira.

Askotan, jokabide horiek hitzez adierazi edo ikusarazten saiatzen garenean, haien asmoa ukatu edo haien eragina arinkieriaz hartzen da.

Jokabide horiek autoestimua hondoratu eta segurtasun eza eragiten dute eta, gainera, emakumeentzat* espazio EZ ASKEAK bihurtzen dituzte, emakumeen parte-hartze soziopolitikoarentzako hesi.

Gutxiestea

Balioa kentzea

Kontuan ez hartzea

Zerbaitetara behartzea

Infantilizatzea

Objektu bihurtzea

Espazio fisikoan indarrez sartzea

Paternalismoa adieraztea

Haren ordezkio azalpenak ematea

Sistematikoki hitza kentzea/moztea

Eztabaidak monopolizatzea

Manipulatzea

Jarrera, itxura, jatorri, sexu-joera edota identitateak epaitzea edo horien gaineko

txantxak egitea

Iruzkin matxistak egitea

Hizkera matxista erabiltzea

Jokabide matxistak babestea

Protokoloaren printzipio orokorrak ez errespetatzea

2. TIPOLOGIA

Prozedura honetan, pertsona jakin batzuk kikildu eta kontrolatzeko, publikoan zein pribatuan, izaten diren jokabideak sartzen dira.

Nahiz eta jokabide mota hau hasieran sotala izan daitekeen, intentsitatez pixkanaka areagotzen diren jokabideak dira eta pairatzen duen pertsonarengan baliogabetze-sentimendua eragiten du.

Askotan, jokabide horiek justifikatu edota erlatibizatu egiten dira, baita ardura pairatzen dituen pertsonarengan jarri ere.

Jokabide horiek pertsonengan eragin suntsitzailea du, antsietate eta autoestimu gabezia handiko egoerak sortzen baitituzte. Gainera, komunitatean ere ezinegon handia eragiten dute, estresa eta tentsioa gehituz.

Kontrolatzea

Beldurra eragitea

Isolatzea

Iraintzea

Oihu egitea

Umiliatzea

Lerdeaz betetzea

Intimitatea ez errespetatzea

Xantaia emozionala egitea

Ekonomia kontrolatzea

Jokabide/eraso matxistak arinkieriaz hartzea

Protokoloa subjektibizatzea

edo nahasketa sortzea

ERASO MATXISTEN TAULA

3. TIPOLOGIA

Prozedura honetan sartzen diren jokabideek, pertsonak hutsaren hurrengo bihurtzeaz gain, mendea hartzea dute helburu, euren buruaren eta gorputzaren jabe izatea galaraziz.

Ezekoei aurre egiten eta errespetatzen ez jakiteagatik sortzen diren jokabide oldarkorrak dira, mina eta umiliazioa helburu dutenak.

Horiek pairatzen dituzten pertsonak estres eta beldur egoera etengabe batera bultzatzen ditu, haiengan ez ezik euren ingurunean ere ondorio larriak utziz.

Jazartzea

Mehatxu egitea

Onartu gabeko ukitzeak egitea

Izaera sexualeko material grafikoa edo pertsona baten datu pertsonalak edo informazio intimoa bere baimenik gabe zabaltzea

Izaera sexualeko ezezkoaren aurrean behin eta berriz eta etengabe tematzea

4. TIPOLOGIA

Prozedura honetan sartzen direnak bortizkeria handiko eraso matxistak dira eta, zigor gisa, pairatzen dituen pertsona suntsitzea dute helburu.

Erasoak pairatzen dituen pertsonaren deshumanizazioa dakarte, berarengan eta komunitatean ondorio oso larriak eraginez.

Sexualki erasotzea

Fisiko edo psikologikoki erasotzea

Adin txikikoak sexualki abusatzea

Adin txikikoei erasotzea emakumea mintzeko

Erahiltzea

El papel de las ciudades en el proceso de descarbonización de Euskal Herria: propuestas desde Gasteiz.

‘Gasteiz 0 Carbón’

“Lo que más se produce en Araba no son ni patatas, ni coches, ni cualquier otro elemento conocido en la industria alavesa. Lo que más se producen son emisiones.”

Amancay Amets Villalba Eguiluz
Concejala de EH Bildu en el Ayuntamiento de Gasteiz



Fotos: FOKU



“Responder a este desafío implica voluntad y valentía política para poner a toda una sociedad a girar y cambiar de rumbo.”

Una rápida mirada a la distribución mundial de la población deja claro el papel de las ciudades en un proceso de transformación que se pretenda impulsar en cualquier ámbito y, especialmente, en cuanto a responder a la emergencia climática se refiere.

Las ciudades son las grandes condensadoras de población, de emisiones de gases de efecto invernadero (GEIs), de consumo energético y de otros recursos a lo largo y ancho de todo el planeta. De hecho, aproximadamente el 55% de la población mundial vive actualmente en ciudades y las estimaciones indican que para el 2050, año en el que se están fijando de manera

mayoritaria los procesos de descarbonización, esta cifra aumentará hasta los dos tercios de la población total.

Ni Gasteiz, ni Araba se escapan de esta tendencia; ésta incluso se agudiza en nuestro territorio, ya que aproximadamente el 75% de la población alavesa vive en la capital. Los datos sobre consumo energético y emisiones de GEIs tampoco son mejores. Tal y como apuntaba el geógrafo y consultor Juan Requejo en sus análisis sobre la planificación territorial alavesa, lo que más se produce en Araba no son ni patatas, ni coches, ni cualquier otro elemento conocido en la industria alavesa. Lo que más se producen son emisiones.

Responder al desafío de la emergencia climática no es algo que se pueda hacer con acciones aisladas o improvisadas. Responder a este desafío supone, por un lado, tener un análisis pormenorizado de las fuentes de emisiones y, por otro, contar con una hoja de ruta integral, con acciones a corto, medio y largo plazo y con fuentes de financiación.

Pero responder a este desafío también implica voluntad y valentía política para poner a toda una sociedad a girar y cambiar de rumbo, porque todas las inercias nos llevan a mantener un metabolismo capitalista que funciona por encima de los límites del planeta.



NUESTRA PROPUESTA PARA GASTEIZ: GASTEIZ O CARBÓN

Gasteiz es una ciudad con una trayectoria notable en materia de sostenibilidad, en la que a día de hoy habitan más de 250.000 personas y que ejerce una notable macrocefalea en el territorio alavés. En el año 2012 fue nombrada Green Capital, capital verde europea, y este premio fue precisamente un reconocimiento a esta trayectoria impulsada desde las instituciones y por el compromiso ciudadano.

Si bien es cierto que en la ciudad se han hecho importantes esfuerzos en materia de sostenibilidad, hay que afirmar que en los últimos años, precisamente cuando más presencia y urgencia ha cobrado la cuestión climática, en Gasteiz ni se ha sabido aprovechar la inercia de esta trayectoria, ni ha tenido el liderazgo que le corresponde por ser una ciudad cuya principal seña de identidad es lo verde.

La lectura que hacemos desde EH Bildu es que estamos en condiciones de exigir que Gasteiz llegue a ser una ciudad neutra en carbono para 2040. Lo exigimos porque sabemos

que es posible y por eso nuestro plan de acción para hacer frente a la descarbonización del municipio no se conforma con los estándares que actualmente marca la Unión Europea o la Ley estatal española de Transición Energética y Cambio Climático, que fijan este horizonte para 2050. Nuestra propuesta, a la que hemos denominado 'Gasteiz 0 Carbono' fija el horizonte de la descarbonización en el año 2040.

Aún cuando pudiese parecer que la fijación de esta fecha es una cuestión baladí, no lo es. Se trata de poner todo el potencial transformador de un municipio al servicio del mayor desafío al que se enfrenta actualmente la humanidad. Si los análisis realizados nos indican que acelerando un proceso de transformación, que sí o sí vamos a tener que poner en marcha, podríamos cumplir con el objetivo deseado diez años antes, ¿por qué no hacerlo? ¿por qué conformarse?. Más aún teniendo en cuenta que se necesitan de experiencias piloto, prácticas pioneras que puedan servir de inspiración a otros municipios que tengan más dificultades para realizar esta transición.

“Estamos en condiciones de exigir que Gasteiz llegue a ser una ciudad neutra en carbono para 2040.”

“Se trata de poner todo el potencial transformador de un municipio al servicio del mayor desafío al que se enfrenta actualmente la humanidad.”

“La sostenibilidad tiene como precondition la transformación de nuestro modelo energético a otro basado en consumos menores, en la eficiencia energética y en un amplio despliegue de energías renovables.”

El camino a la sostenibilidad pasa por profundas transformaciones en nuestros hábitos de producción y consumo, en nuestra movilidad, nuestro ocio y nuestra actividad cotidiana, pero en la medida en la que el cambio climático se está produciendo principalmente por la combustión de los combustibles fósiles como el petróleo, el carbón y el gas, la sostenibilidad tiene como precondition la transformación de nuestro modelo energético a otro basado en consumos menores, en la eficiencia energética y en un amplio despliegue de

energías renovables, que son precisamente las grandes líneas de actuación de nuestro plan. A ellas, además, tendremos que sumar otros principios irrenunciables para nuestro modelo energético, como son el de la justicia ambiental –en tanto en cuanto buscamos la minimización de nuestros impactos en otros territorios–, la democratización de la energía y el de la soberanía energética.

De esta manera, siendo conscientes de que el reto de la transición energética es uno de los mayores y principales retos que enfrentamos en la actualidad, desde EH Bildu Gasteiz entendíamos que era nuestra responsabilidad responder a ello y ofrecer a la ciudadanía una hoja de ruta que, poniendo todo el potencial del municipio al servicio de la transición energética, nos permitiese conseguir una ciudad neutra en carbono. Es así como nace el plan ‘Gasteiz 0 Carbón 2040’.

EL PAPEL DE LAS ENERGÍAS RENOVABLES EN LA DESCARBONIZACIÓN DE GASTEIZ

Según los datos del estudio “Potencial solar fotovoltaico de las cubiertas edificatorias de la ciudad de Vitoria-Gasteiz” elaborado en el 2019 por la Universidad Politécnica de Madrid para el Centro de Estudios Ambientales (CEA), la distribución de los consumos eléctricos¹ en la ciudad era del 50% en el sector industrial, el 30% en el sector servicios y el 20% en el sector residencial.

Teniendo en cuenta el potencial solar de los elementos de las cubiertas edificatorias, el estudio concluye que, a nivel de ciudad, el aprovechamiento del potencial mediante instalaciones de energía solar fotovoltaica se traduciría en una generación neta anual de 1.149 GWH, lo que permitiría cubrir el 100% del consumo eléctrico de la ciudad (nivel 2017) y generar un excedente equivalente al 28,5% del consumo. Este estudio –que es el que nos ha servido de diagnóstico y hemos tomado de referencia para el plan Gasteiz 0 Carbón– hace un análisis por barrios que muestra unos valores elevados de autosuficiencia neta.

Otra de las fuentes renovables sobre las que pivota nuestro plan es la biomasa. Según el Inventario Forestal de la CAPV, en Araba hay alrededor de 150.000 hectáreas de bosque, con unos crecimientos medios anuales de 5m³/ha/año. Aún siendo conscientes de que sólo una parte de nuestros bosques son utilizables, hay un enorme potencial para que buena parte de los hogares puedan ser calentados a través de un combustible como la biomasa, empleado a través de los sistemas comunitarios de calor, el district heating.

El aprovechamiento del potencial mediante instalaciones de energía solar fotovoltaica se traduciría en una generación neta anual de 1.149 GWH, lo que permitiría cubrir el 100% del consumo eléctrico de la ciudad.

La apuesta por sistemas *district heating* nos permitiría romper con la predominancia del gas en los sistemas de calefacción, alejándonos de falsas consideraciones del gas como combustible de transición.

Nuestro deseo es que el Ayuntamiento sea un actor con voz propia en el modelo energético de la ciudad para poder suministrar energía a un precio justo.



¹ Datos del año 2017, últimos datos disponibles en el momento de elaboración del estudio.

La apuesta por estos sistemas nos permitiría romper con la predominancia del gas en los sistemas de calefacción, alejándonos de falsas consideraciones del gas como combustible de transición, que son las que están detrás del empeño del PNV en la explotación del pozo de gas de Armentia-2, que ha sido rechazado por una amplia mayoría social y política y que recientemente se han visto obligados a abandonar.

Además, el desarrollo de la biomasa tiene otros beneficios asociados, que van más allá de lo energético: permite que aquellos pueblos y entidades locales que se sumen a la iniciativa tengan oportunidades de empleo verde y revitalización, induciendo de esta manera una transformación socio-económica que es otro de los pilares a trabajar en la transición ecológica.

Gasteiz, de hecho, a través de un proyecto europeo ha comenzado a desarrollar una experiencia en el barrio de Errota-Coronación. Aunque la gestión de esta experiencia no ha estado exenta de debate, consideramos que corrigiendo algunas cuestiones (como el dar mayores facilidades al vecindario y a las comunidades para que puedan adherirse a la iniciativa), sería factible trasladarla a otros barrios de la ciudad.

Para materializar esta apuesta por las energías renovables necesitamos contar con un instrumento propio. Para ello, nuestra propuesta es la creación de una agencia propia, AMER (Agencia Municipal de las Energías Renovables), que



será quien lidere y promueva la producción, consumo y comercialización de energías renovables.

Siguiendo la estela de otros municipios que han iniciado procesos de alejamiento de las grandes transnacionales energéticas, una de las funciones primeras de esta agencia será la creación de una comercializadora de energía renovable. Nuestro deseo es que el Ayuntamiento sea un actor con voz propia en el modelo energético de la ciudad para poder suministrar energía a un precio justo, que nos permitiría contribuir al bienestar energético de toda la población, independientemente de los recursos económicos que tenga. El objetivo que nos marcamos es que la Agencia municipal dé tal impulso a las renovables que nos permitan cubrir el 100% del consumo eléctrico para el año 2030.

Asumiendo el papel ejemplarizante de la administración que nos invita a cumplir la Ley de Sostenibilidad Energética de la CAPV, proponemos que uno de los primeros pasos sea que a través de la instalación de paneles solares en las cubiertas de las instalaciones municipales se llegue al 100% de autoconsumo municipal. Y de ahí, extender esta experiencia iniciada en las cubiertas municipales a comunidades de vecinos y vecinas, empresas y otros agentes, para que en el año 2030 el 100% de la energía eléctrica consumida sea renovable. Para facilitar este tránsito una figura de interés que pretendemos impulsar son las comunidades energéticas, que permiten producir y consumir energía de manera cooperativa.

SINADURA

EL AHORRO Y LA EFICIENCIA ENERGÉTICA

Partiendo de la premisa de que la energía más limpia es aquella que no se consume, otra de las líneas de actuación es la del ahorro y la eficiencia energética. El 30% del consumo energético global de la ciudad corresponde al sector residencial.

Aproximadamente la mitad de ese porcentaje corresponde a consumo de calor, lo que nos da una idea de la importancia de la rehabilitación energética de las viviendas, especialmente, en los barrios antiguos con casas menos eficientes. Actuar en estos barrios, además, también

tiene beneficios sociales, ya que son los barrios a los que se les ha prestado menos atención urbanística en las últimas décadas, que en muchos casos han quedado degradados y deteriorados, barrios con menor renta per capita y un tanto empobrecidos y envejecidos.

Para materializar esta estrategia de rehabilitación a una escala amplia en la ciudad se necesita una entidad que la lidere, y por eso nuestra propuesta es que Ensanche 21, la actual sociedad municipal que se encarga de las cuestiones de regeneración urbana, pase a ser AMARU, la Agencia

municipal de ahorro energético y rehabilitación urbana. Esta Agencia se encargará de la rehabilitación y tendrá que diseñar soluciones modulares y estandarizadas adaptables a todos los edificios.

Para conseguir las reducciones de emisiones que nos permitan tener una ciudad neutra en carbono para el año 2040, será necesario intervenir en 50.000 viviendas. Siendo conscientes de que es una cantidad importante, también sabemos que es una intervención completamente necesaria para lograr reducir los consumos energéticos domésticos.



“Para conseguir las reducciones de emisiones que nos permitan tener una ciudad neutra en carbono para el año 2040, será necesario intervenir en 50.000 viviendas.”



MOVILIDAD Y OTROS ÁMBITOS DE ACTUACIÓN

Para poder reducir las emisiones de GEIs también tenemos que incidir en otros ámbitos que son grandes consumidores energéticos, como es el caso del sector de la movilidad. El cambio en este sector tiene que venir motivado por un aumento del protagonismo del transporte público y la bicicleta. Respecto al transporte público, nuestras prioridades están puestas en su electrificación integral y en la mejora del servicio cubriendo algunos déficits actuales, como son la conexión del eje este-oeste de la ciudad o la mejora del transporte público a los polígonos industriales.

Respecto a la bicicleta, nuestra intención es desarrollar todo su potencial en la ciudad. Para ello necesitamos mejorar en seguridad: invertir en un plan de infraestructuras ciclistas que nos permita contar con una red funcional y realizar un calmado de tráfico integral a través, entre otras medidas, de la declaración de Gasteiz como ciudad 30. Nuevamente en este caso tendremos que prestar especial atención a los polígonos industriales para favorecer los desplazamientos a los centros de trabajo en bicicleta.

A raíz de la irrupción del coronavirus numerosas ciudades

han introducido cambios en la configuración del espacio público, para darles prioridad a las personas peatonas y a la bicicleta. El deseo de EH Bildu es sumarse a estas corrientes que construyen ciudades más seguras, amables y humanas, que ponen a las personas en el centro del espacio público.

La transformación de la industria local hacia modelos más sostenibles y con productos alineados con la transición energética, la potenciación de los sumideros de carbono locales o el fortalecimiento del sector primario a través del impulso de la agroecología y la soberanía alimentaria en conversación con el conjunto del territorio alavés serán, sin duda, ámbitos de actuación imprescindibles para la descarbonización de Gasteiz. El desarrollo de todo lo anterior no sólo construirá una ciudad alineada con la transición ecológica, sino que además, en ella se ofrecerán hasta 20.000 nuevos empleos asociados a este cambio.

Todo ello son elementos presentes en nuestra agenda política y aunque la actual correlación de fuerzas no nos permite verlos materializados tal y como nos gustaría, nuestro compromiso está en trabajar para hacerlos realidad porque, tal y como se dice en la calle, no hay planeta B.

“Respecto al transporte público, nuestras prioridades están puestas en su electrificación integral y en la mejora del servicio.”



“Euskal Herrian ezin dute beste lekuetan bezala nahieran aritu. Errespetua irabazi dugu”

Hegazti gripeak albiste izan dira azken urteetan Ipar Euskal Herrian. Etekinaren logika gailendu da laborantzaren esparruan ere. Aldiz, bere kalteak ekarri ditu abere hazkuntza eredu intentsiboak, besteak beste, gaixotasunen hedapena erratuz. Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako ahate hazleek hazkuntza eredu propioari eutsi diote eta kontsumitzaileekin batera garatutako borroka fruituak eman dizkie Estatuaren aurrean, antzeko krisi sanitarioak beste era batera kudeatzeko bidea zabalduz eta hazkuntza eredu intentsiboa kuestionatuz. Panpi Sainte-Marie, ELB sindikatuaren idazkari orokorrak azaldu dizkigu xehetasunak.



Egoitz Urrutikoetxea. Iratzar Fundazioko kidea

Argazkiak: FOKU



1. Laburzki azaltzen ahal diguzu zer den hegazti gripea? Zer adierazten du egun nagusi den laborantza ekoizpen ereduaz, eta zehazkiago, ahate hazkuntza ereduaz?

Hegazti gripea betidanik hor izan dugun birus bat da. Luzaz inork ez du kontu handirik hartu, gaixotzen ziren hegazti batzuk hiltzen baziren, gehienek birusa gainditzen baitzuten. Funtsean gizakiekin gertatu ohi den bezala sasoiko gripe birusarekin. Lehen hegazti gripe krisiak 80. hamarkadan Landesetan gertatu ziren, jada hasiak baitziren hazkuntza eredu handietara aldatzen. Ordu hartan gaixorik ziren ahate guztiak hiltzen hasi ziren birusaren garapena oztopatzeko. Etxaldeak handiak izanagatik oraindik ahate hazkuntzaren segmentaziorik ez zegoenez, hegazti gripea zabaldu zen bizpahiru etxaldetan ahateak hiltzarekin birusaren garapena kontrolatzea lortu zuten.

“Agroindustriaren sustatzaile nagusiak diren kooperatiba handiek hamabost urteko tartean ahate hazkuntzaren ezaugarriak errotik aldatu dituzte.”

“Etekin gosez, alde batetik ahate hazkuntzen kontzentrazioa sustatu dute, eta bestetik ekoizpen katearen segmentazioa eragin dute.”

“Olatuak ahate hazkuntza eredu industrialaren geografia segitu du. Euskal Herrian, aldiz, ez da gehiegi sartu.”

Azken urteetan berriz, hegazti gripeak beste dimentsio bat hartu du. Laborantza ereduaren industrializazioak eragiten duen abereen kontzentrazioak ondorioak larriagotu ditu. Laborantzaren industrializazio logika horren erakusle dira txerri eta ahate hazkuntzak. Lehen, Amikuze eskualdean, Bidaxune inguruan ala Xiberoan ahate hazkuntza etxaldean aktibitate gehigarria zen. Polikultura zen nagusi, eta abere ezberdinak hazten eta ekoizpen ezberdinak lantzen ziren, ikuspegi zirkular baten baitan. Ahate kumeak erosi, etxeko artoarekin hazten, etxaldean galgatzen, ahate gibelak merkatuan saltzen zituzten eta haragi parte bat autokontsumorako atxikitzen zuten.

Agroindustriaren sustatzaile nagusiak diren kooperatiba handiek hamabost urteko tartean ahate hazkuntzaren ezaugarriak errotik aldatu

dituzte. Etxalde barneko hazkuntza zirkularra zenaren parean eredu industrialaren hautua inposatu dute. Etekin gosez, alde batetik ahate hazkuntzen kontzentrazioa sustatu dute, eta bestetik ekoizpen katearen segmentazioa eragin dute. Lehen baserri berean ekoizpen kate osoa kudeatzen baldin bazen, orain etxalde espezializatuak dira nagusi : batzuetan ahateak sortzen dira, besteetan hazten soilik, ondotik galgatze etxaldeak aurkitzen dira, eta ziklo osoa bukatzean ahateak hiltegiara eramaten dituzte. Fase bakoitzean ahateen kontzentrazioa eta laborarien espezializazioa gertatzen dira. Eta etapa batetik bestera, kamioien garraioa ezinbestekoa bihurtzen da. Hazkuntza industrialaren etapa ezberdin horietan aurkitzen diren etxaldeen arteko joan-etorri eta harremanak etengabekoak dira, hain dira etxaldeak handiak eta hainbeste baitira horietan hazten dituzten ahateak (hamar milaka). Hortaz, etxalde bakar batean eritasuna sartuz gero, berehala ekoizpen kate industrialaren begi guztietara zabaltzen da.


Aurten, hegazti gripea Landesetako etxalde batean abiatu da, beharbada txori migratzaile batek kutsaturik. Milaka ahate metatuak ziren etxalde batean gripea sartu da, eta kontzentrazioaren ondorioz etxalde osora zabandu da. Hazkuntza begi ezberdinen arteko harremanak estuak direla eta gripea kate osoko etxalde guztietara zabandu da. Olatu bat bezala, hegazti gripea

mendebaldean hasi eta ekialdera hedatu da. Landesetan dagoen ahate hazkuntza kontzentrazioak krisia larriagotu besterik ez du egin. Olatuak ahate hazkuntza eredu industrialaren geografia segitu du. Euskal Herrian aldiz ez da gehiegi sartu ez baita hazkuntza kontzentrazioa eta asko baitira oraindik lehengo moduan etxeko hazkuntza eredu jarraitzen dutenak. Horrek hesi natural eta sanitario bat osatu du hegazti gripearen hedatzea oztopatuz.

2. Zein izan da Frantziar estatuko administrazioaren eskuhartzea hegazti gripe krisi berri honen aitzinean?

Ahate hazkuntza txerri hazkuntza bezala esportazioari buruz itzulia da. Hargatik, Frantziako administrazioarentzat ezinbestekoa da krisi sanitarioak gertatzen direlarik neurri zorrotzak hartzea, besteak beste kalteturiko etxaldeetan abere guztiak sakrifikatuz. Helburua ahalik eta azkarren kutsadurarik gabeko eremu bilakatzea da, herri inportatzaileen konfiantza ez galtzeko. Neurri zorrotzen helburu nagusia beraz merkatua ez galtzea da.

Errealitatea berriz bestelakoa da. Neurri horiek bortitzak izanagatik ez dute krisi sanitarioaren sustraietara jotzen. Arazoa egiturazkoa baita. Nahiz eta milaka ahate hil, hazkuntza prozesua aldatzen ez den bitartean, krisia sanitarioaren gurpiletik ezin daiteke atera. Zoritxarrez, gu gara albo kalteak pairatzen ditugunak.



“Nahiz eta milaka ahate hil, hazkuntza prozesua aldatzen ez den bitartean, krisia sanitarioaren gurpiletik ezin daiteke atera.”



3. 2017an jendartearen mobilizazio zabal baten bidez zerbitzu sanitarioen xede suntsitzaileak oztopatuak izan ziren. Ondorioz, ELBko sindikalista eta ahate hazleak auziperatuak izan zineten. Zer irakurketa egiten duzu memento hartan gertatu zen mobilizazioaz?

2017ko krisi sanitario hartan Frantzia mendebal osoan gobernuak lortu zuen bere xedea gauzatzea, hots ahate guztiak hiltzea prebentiboki, Euskal Herrian izan ezik.

Krisi sanitarioaren iturburuan aurkitzen ziren mekanismoak izendatzearekin batean, laborantza eredu ezberdinen arteko eztabaida ezarri dugu erdigunean. Ezin onartukoa zitzaigun laborantza eredu industrialaren albo kalte suntsitzaileak denek ordaintzea. Krisia gainditzeko estrategia okerra iruditzen zitzaigun baina gainera etikoki ezin genuen onartu inposatu nahi zigutena.

Herri batean kasu bat agertzen baldin bazen, 10 kilometroko inguruan abere guztiak hiltzeko

“Gobernuari ezin onartukoa zitzaion beraien neurriak Euskal Herrian ez betetzea.”

“Epaiketa hazkuntza eredu industrialaren auzia bihurtzea lortu genuen, eta beste laborantza eredu baten aldeko atxikimendua oraindik gehiago indartu genuen.”

agindua eman zuten. Guztiz isolatuak eta kanpoko beste etxaldeekin harremanik batere ez zuten horietan abere sanoak hiltzea burugabekeria iruditzen zitzaigun.

Gobernuari ezin onartukoa zitzaion beraien neurriak Euskal Herrian ez betetzea, beste leku guztietan egin zuten bezala. Zerbitzu sanitarioek Xiberoko eta Nafarroa Behereko hiru etxaldetara sartzeko saiakera egin zuten ahate sanoak hiltzeko asmoarekin. Lehen saiakera herri harresi banak oztopatu zuten. Hitz eman ziguten berriz agertuko zirela, baina ondoko aldi polizia indarrek lagundurik. Egun batzuetara horrela egin zuten, baina aldi horretan ehunka lagunez osaturiko herri harresiekin egin zuten topo. Hautetsi, nekazari, kontsumitzaile, ... guztiak esku laborantza eredu iraunkor baten alde eta Frantziako

“Euskal Herrian ezin dutela beste lekuetan bezala nahieran aritu. Errespetua irabazi dugu.”

gobernuaren neurri burugabeen aurrean bildurik. Atzera egitea beste hauturik ez zuten izan, baina Prefetak laborariak eta sindikalistak auziperatzeko agindua eman zuen.

Ahate sanoen hiltzearen kontra agertzea etikoki defendagarria zen. Eta horrek epaiketari begira sostengu zabala lortzeko bidea zabaltu zigun. Epaiketa hazkuntza eredu industrialaren auzia bihurtzea lortu genuen, eta beste laborantza eredu baten aldeko atxikimendua oraindik gehiago indartu genuen. Finean, defenditzen eta egunerokoan gauzatzen duguna laborantza eredu iraunkorra eta herrikoia baita.

Sekuentzia honetatik ondorio sakonagoak ateratzen ditugu. Erakutsi dugu gai ginela Estatuaren erabaki zentzugabe baten aurrean mobilizatzeko, indarrak metatzeko eta erabaki makurra indargabetzea lortzeko. Gai izan gara Estatuari ezetz esateko eta ez makurtzeko. Ihardukitzeko kulturaren indarra eta beharra agerian gelditu da. Agian hemen Euskal Herrian beste hainbat lekuetan ez bezala, kultura politiko errotuago bat baitago. Inguruko eskualdeetako laborariak behin eta berriz esaten digute, beste lekuetan egin ezin direnak hemen gauzatzen ditugula.

4. Aldi honetan, Frantziako zerbitzuekin negoziatzeko bidea zabaltu duzue baita akordio bat lortu ere. Zer ondorio ateratzen duzue egin den bideaz eta lortu duzuen akordioaz?

2017an lortu genuen oinarri sendoari esker, Frantziako administrazio zerbitzuek beste modu batez kudeatu dute aurtengo krisia. Onartu digute urrats garrantzitsua eman genuela, eta beraientzat ere aurrekari bat izan dela. Hots, Euskal Herrian ezin dutela beste lekuetan bezala nahieran aritu. Errespetua irabazi dugu.

Hasiera batean etxaldeetan abere sanoak hiltzera sartuko zirela mehatxuak egin baldin badituzte ere, 2017ko gertakarien disuasio indarra agerian gelditu da. Ikusi dutelarik behar izanez gero beraien zerbitzuen eskuhartzea oztopatuko genuela, elkarriketaren bidea zabaltzea onartu dute.

Bidaxuneko etxalde batean gertatu denak ongi irudikatzen du egungo egoera. Bidaxunekoa, “Kriaxera” lekuko ahate arrazaren sorleku bakarra da. 2017ko krisi sanitario garaian eta aurretik ere abiatuak ziren ikerketa ezberdinek frogatu dute “Kriaxera” ahateak gripearri naturalki

immunizatuak direla. Bada, Bidaxuneko etxalde horretan ahateek gripearri positibo eman ondoan, guztiak hil beharrean, zaintza protokolo bat adostu da lekuko egitura instituzional ezberdinen ordezkariak, sindikatuen ordezkariak eta Prefeturaren zerbitzuen artean. Eztabaida gordinak izan dira, besteak beste, Bidaxuneko ahate guztiak hilko balituzte ahate arraza baten bukaeraz ariko bai ginateke. “Kriaxera” ahate arrazaren berezko immunitatearen frogak ere asko eragin dute elkarriketetan, baita Ipar Euskal Herrian laborari gero eta gehiagok ahate arraza hori hautatu izana laborantza eredu iraunkor baten hautuaren berme bezala.

Protokoloak ekaina bitartean zaintza eta jarraipen neurri bereziak arautzen ditu. Azterketek frogatzen baldin badute gripea izan zuten ahate horiek ekainean gaixotasuna gainditua dutela, bizirik uzteko aukera onartzen du. Akordioa ikaragarriko urratsa da, hain baita zurruna Frantziako administrazioa. Izan ere, berdintasunaren printzipioaren izenean arauak denentzat berdinean balio behar baitu. Logika horren indargabetzeko bidean arrakala bat zabaltu dugu.

“Akordioa ikaragarriko urratsa da, hain baita zurruna Frantziako administrazioa.”

Arrêtez ce massacre !

Cette tribune signée par le secrétaire général du syndicat agricole ELB [Euskal Herriko Laborarien Batasuna] a été publiée en début d'année, alors que les services vétérinaires de l'État s'apprêtaient à réaliser des abattages préventifs dans des fermes du Pays Basque nord afin d'endiguer l'épidémie de grippe aviaire.

« Je n'y peux rien, on n'y peut rien... je me débrouille. En vous comportant ainsi vous perdez l'une des composantes essentielles qui font l'humain. Une des composantes indispensables: la faculté d'indignation et l'engagement qui en est la conséquence » [Stéphane Hessel].



Panpi Sainte-Marie. Secrétaire général d'ELB





En 2016 et 2017, le syndicat ELB avait demandé d'arrêter le massacre d'animaux sains. Déjà nous savions que la grippe aviaire n'était pas la cause, mais la conséquence de choix économiques, d'orientations économiques pris par le CIFOG (Comité interprofessionnel des palmipèdes à foie gras), et localement les trois grands groupes « coopératifs » Lur Berri, Pau Euralis et Maisadour.

La grippe aviaire existe depuis toujours, les oiseaux sauvages, les animaux de nos fermes cohabitent avec... comme nous humains avec «notre» grippe. Certes les plus faibles des oiseaux, poules ou canards en meurent depuis toujours. Pareil pour nous. On a beau vacciner, on n'est pas immortels. C'est la loi de la nature. Même au XXI^e siècle ! Ne l'oublions pas et soyons le plus en phase avec elle. Mais ce qui a vraiment changé depuis 30 ans c'est qu'entre autres, le CIFOG a décidé d'industrialiser cette filière du canard qui jusqu'alors était traditionnelle, familiale, à échelle humaine. Ils ont segmenté, augmenté, densifié ! Toujours en restructurant, faisant disparaître des paysan·ne·s, des fermes et des artisans transformateurs. Ils ont joué avec la nature, joué avec le feu et voilà le résultat !

Des millions de canards, poules, poulets massacrés, un vrai génocide ! Des paysan·ne·s désespérés à cause aussi de ministres de l'agriculture extraterrestres qui se sont laissés bernier par le lobby industriel. « Plus jamais ça ! » disaient-ils il y a trois ans. Foutaise ! C'est leur système industriel qui est malade et il est remis sur pied à chaque crise à coup de milliards

d'euros d'argent public dilapidé au nom d'intérêts privés. Ce n'est plus acceptable. Il faut que nous paysan·ne·s nous nous indignions de ce qu'ils ont fait et refont encore aujourd'hui. Il faut que nous paysan·ne·s expliquions sans relâche aux consommateurs, aux citoyens, aux responsables politiques de ce pays que cela suffit, du mal qu'ils font à notre métier, à nos animaux, à nous qui angoissons, souffrons pour notre avenir et notre présent.

Les abattages préventifs montrent déjà leur inefficacité tout comme lors des épisodes précédents. Encore une fois, cette stratégie consiste à abattre massivement des animaux sains sans scrupules ni remise en question. ELB s'oppose à cette stratégie. Encore une fois, nous constatons que les filières industrielles proposent des plans de lutte qui privilégient au mieux leurs propres intérêts en faisant abstraction des réels enjeux sanitaires et des éleveurs et éleveuses. L'élevage fermier est victime des systèmes industriels qui sont des vraies bombes virales.

Les engagements pris en 2017 par les grands opérateurs de la filière (et pour lesquels l'État et les Régions les ont soutenus financièrement) n'ont pas été tenus. Euralis, Maisadour et Lur Berri qui représentent les 2/3 de la production devaient relocaliser les élevages près des salles de gavage et des abattoirs. Ils n'ont rien fait et les transports sont plus nombreux que jamais. On prend les mêmes systèmes industriels, leurs promoteurs, et on recommence à installer des élevages avec de plus en plus d'animaux, des va-et-vient incessants entre unités

de production qui, logiquement, disséminent le virus partout, par les mouvements d'animaux notamment.

Plutôt que de devoir éteindre des incendies, comme c'est le cas à chaque épizootie, les autorités devraient réfléchir aux solutions qui pourraient être mises en place en amont et écouter la voix des éleveurs. La politique d'abattage systématique n'est pas cohérente avec la construction d'une filière pérenne puisqu'elle empêche les animaux de développer une résistance à la maladie et oblige l'abattage d'animaux non malades. On remplace donc des animaux, parfois résistants, par d'autres animaux fragiles sans jamais s'interroger sur les facteurs de résistance de certains. Sur le long terme, la pratique accroît la vulnérabilité des fermes. ELB demande à ce que des expérimentations soient menées sur les volailles considérées comme « porteurs sains », c'est-à-dire pouvant être testées positivement (dû à la présence d'anticorps), mais ne présentant aucun symptôme (pas de mortalité accrue).

ELB propose que les millions d'euros mobilisés (de la poche du contribuable) pour faire face à la crise de 2017 et qui ont été de nouveau mobilisés au cours de la crise 2021 soient réorientés vers un travail sérieux pour accompagner les éleveurs vers des systèmes plus vivables. Sinon, jusqu'à quand l'argent public va-t-il continuer à massivement aider une filière industrielle qui ne cesse de s'industrialiser et qui promeut clairement un modèle voué à l'échec? Les fonds alloués, des centaines de milliers d'euros, à la mise en place des mesures de



biosécurité ont été, eux aussi, faramineux alors que les limites de ces mêmes mesures sont mises en évidence par l'épisode de grippe aviaire de 2021. Il est maintenant important que l'argent public serve à financer la transition. Il faut revoir le fonctionnement de la filière,

repenser les systèmes de production et accompagner de façon effective les paysans à une réelle transition des systèmes de production.

SINADURA

Lurralde antolamendua Euskal Herrian: menderakuntzaren iraganetik, erresilientzia burujabearen etorkizunera

Mixel Berhokoirigoin gogoan:



Imanol Esnaola. *Gaindegiako koordinatzailea*

Argazkiak: FOKU



Mendebaldeko zibilizazioan lurraldeak hiriguneen aldeko desoreka kezkagarria bizi dute. Bai, lurralde antolamendu desorekatua bizi dugu, gero eta desorekatuagoa. Hirien garapen prozesuak hainbat onura eta aukera ekarri dizkigute, baina kalteak onartzeko garaia ere bada.

Auziak, ordea, badu hamaika ertz. Pandemia betean bizi garen honetan, egun berri bat hastera doanean bezala, zer egin behar dugun erabakitzea dagokigu. Oraingoan, ordea, azken hamarkada luzeetan ez bezala, garapen urbano mugagabearen egiak ez gaitu lehen bezala asetzen. Lurralde ereduak ere erresilentziaren ikuspegian txertaturiko erantzunak behar ditu.

Bilakaera historikoaren lerroari erreparatu aurretik gogoan izan dezagun, lurraldeari eragiten dioten prozesuak arnas luzekoak izan ohi direla eta euskal lurraldea egituratu duten prozesurik bortitzenek alde izan dituztela urruneko erabakigune eta eliteak. Bilakaera historikoaren gako nagusiak aztertu ditzagun.

Lurraldeari eragiten dioten prozesuak arnas luzekoak izan ohi dira eta euskal lurraldea egituratu duten prozesurik bortitzenek alde izan dituztela urruneko erabakigune eta eliteak.

Industrializazioaren lehen olatuak XIX eta XX mendeetan

XIX. mendean Kantauri isurialdeko ibai arroek industrializazioa ezagutu bitartean isurialde mediterraneoak landa izaerako nortasunari eutsi zion, XX. mende erditik aurrera zenbait eremuk industria nortasuna bizkor garatu arte. Azken fenomeno honek biztanleriaren galera handia eragin zuen landa eremuaren luze-zabalean, garaiko desarrollismo frankistaren logikari jarraituz isurialde mediterraneoako euskal lurraldeetan ehun produktiboa geografikoki kontzentratuago garatu baitzen.

Gauzak horrela, Araban eredu monozentrikoan oinarritutako industrializazioak tamaina ertaineko udalerrien sorrera galarazi zuen (Laudio-Amurrio izan ezik, hauek Bilbo Handiaren eraginpean). Nafarroa Garaiak XX. mende erdi arte bazuen lurralde egitura polizentrikoa, baina Iruñerriaren eta eskualde buruen garapen industrialak landa eremuaren ahultzea ekarri zuen.

Ipar Euskal Herriko (ia bere osotasunean, Kantauri isurialdean kokatuta) kostaldea barnealde arteko desorekak lehen mundu gerraz geroztik indartzen hasi ziren, gaur arte. Bigarren mundu gerra ondoko hamarkadetan ehun produktiboa gero eta gehiago metatu zen kostaldean. 70ko hamarkadatik aurrera, berriz, kostaldea ez ezik kostako bigarren lerroan diren eremuen hazkundea asko indartu zen (Hiriburu, Basusarri, Angelu, Arbona...) eta mendebaldeko

Europaren ereduari jarraituz lotarako herriak egituratzen hasi ziren.

Ordurako Bizkaia eta Gipuzkoaren egitura produktiboa bailara anitzetako ibaien arroetan sakabanatuta zegoen, industriaren hastapena mendean zehar ibilbide luzeagoa egin baitzuen. Hala, XX. mendearen bigarren erdiko industrializazioak inguruko landa-guneetako zein urrunagoko pertsonak erakarri zituen eta geografia urbano berria sorrarazi (Ermua, Lasarte-Oria, Santurtzi, Portugalete, Derio, Basauri...).

XIX. mendean Kantauri isurialdeko ibai arroek industrializazioa ezagutu bitartean isurialde mediterraneoak landa izaerako nortasunari eutsi zion, XX. mende erditik aurrera zenbait eremuk industria nortasuna bizkor garatu arte.





1973, Petrolioaren krisia

1970ko hamarkadan manufaktura-industrian oinarritutako lurralde geografia zen nagusi, biztanleria industria-metropolieta, Bizkaia eta Gipuzkoako bailaretako arroetan eta Nafarroa Garaiko zenbait eskualde buruetan metatua zegoen. Hamarkadaren erdian Petrolioaren krisiak euskal gizarteari oinarri sozioekonomikoa ematen zion industria gogor kolpatu zuen eta, ondorioz, langabeziak gora egin zuen, biztanleria galtzen hasi edota enpleguan oinarritutako kohesio soziala ahuldu zen. Zenbait eskualdek, Aiaraldeak esaterako, krisi horren ajea ez dute oraindik erabat gainditu. Kostako beste eskualde batzuen kasuan, egoera hau Europako Arrantza-Politika Bateratuaren ondorioekin korapilatu zen 1986tik aurrera (Lea-Artibai edo Gernika-Bermeon).

Landa eremua lehen sektorean ziharduen biztanleria gero eta urriagoaren bizileku bilakatu zen. Industriaren gainbeherak ez zuen landa eremua indartu eta eskualde gehienetan landa eremuaren gainbehera mende amaiera arte jarraitu zuen. Bizkaian eta Gipuzkoan eskualde gehienek izaera produktibo askotarikoa zuten, ez zegoen lehen sektorean espezializazio berezirik eta landa nortasunak industriarekin bat egiten zuen maiz. Horrek Araba edo Nafarroa Garaian bizi izandako landa eremuen despopulazioaren moduko fenomenologia ekidin zuen hein batean. Udalerrri euskaldunek, halaber, bertako biztanleriari eta euskaraz bizitzeko arau sozialak gordetzeko aukera izan zuten.

Zenbait eskualdek, Aiaraldeak esaterako, 1970eko hamarraldiko krisiaren ajea ez dute oraindik erabat gainditu.

Bizkaian eta Gipuzkoan eskualde gehienek izaera produktibo askotarikoa zuten, ez zegoen lehen sektorean espezializazio berezirik eta landa nortasunak industriarekin bat egiten zuen maiz.

Gaur gaurkoz oso gutxi dira bere biztanleria aktiboarentzat aski enplegu duten eskualdeak.



2000, milurte hasierako lurralde eraldaketa

Milurteko berriarekin gorakada demografikoa ia lurralde osoan gertatu zen. Ordurako euskal herritarren heren bat hiriburuetan bizi zen, eta beste %23, hiriburuen periferian. Hirigintzaren eta azpiegitura handien susperraldiak Hego Euskal Herrian lotarako herrien paradigma eta eskala handiagoko mugikortasuna indartzen zuen eta, ordu arte Ipar Euskal Herrira mugatzen zen fenomeno, indarrez hedatu zen hegoaldera ere (Gorbeialdera edo Plentzia-Mungiara, adibidez). Lotarako herrien paradigma lehen sektoreari loturiko zenbait enplegu gune handietan zabaldu zen ere: Goi Erriberako Milagron, Alesbesen edo Funesen, Erriberako Castejonen, Cintruenigon, Tulebrasen edo Corellan... hala nola Nafarroa Erdialdean edota Arabar Errioxan.

Baby boom-aren seme-alabek hirigintzak beretzat hartutako eremu berrietan kokatzeko joera izan zuten. Hiriburu eta tamaina ertaineko herrietan auzo berriak sortu ziren (Zabalgana edo Salburua Gasteizen). Lotarako herri berriek pisua hartu zuten euskal geografia urbanoan (Iruñerrian, esaterako, Eguesibar, Berriobeiti, Orkoien edo Zizur). Bien bitartean, etorkin fluxu berriak nagusiki 1960-70eko urbanismoari lotutako geografian kokatzen dira, etxebizitza merkeak erakarrira (Iruñerriko Berriozarren, Burlatan...).

Hirigintzaren eta azpiegitura handien susperraldiak Hego Euskal Herrian lotarako herrien paradigma eta eskala handiagoko mugikortasuna indartzen zuen.

2008, finantza krisia eta albo ondorioen kate luzea

2008 urtean krisi ekonomiko berriak astindu zuen Euskal Herria eta, besteak beste, lurraldean sakabanatutako manufaktura-industriaren zati baten desagerpena eragin zuen. Gaur gaurkoz oso gutxi dira bere biztanleria aktiboarentzat aski enplegu duten eskualdeak: Errioxa Arabarra, Arabako Ibarak, Euskal Kostaldea-Aturri, Argako Haranak, Gorbeialdea eta Debagoiena. Gainontzeko 41 eskualdek enplegu gabezia nozitzen dute, bereziki Trebiñuk, Izarbeibarrek, Nafarroako Aurre Pirinioak eta Pirinioak, Enkartzioek, Jurramendik edo Plentzia-Mungiak.

Ordutik euskal metropolien eta gainontzeko lurraldeen arteko asimetria are gehiago indartu da. Ez dira asko metropolitik kanpo kokatuta Goierri bezalako lurralde sasoitsuak. Tokiko erresilientzia gaitasunari dagokionez euskal geografiak prozesu desberdinak bizi ditu eta, lurralde oreka eta kohesioari egitasmo eraginkor bat eman nahi bazaio, etorkizuneko lurralde antolamenduak tokian tokiko gaitasunak aintzat hartu beharko ditu.

Azken hamarkadan metropoliak berrikuntza jarduerak metatu eta zerbitzu izaera indartzen ari dira. Krisialdi finantzarioaz geroztiko eredu produktiboa teknologikoki garatuagoa eta lurraldean kontzentratuagoa da. Baina ez da gai 80ko hamarkadatik arrastaka datozen hainbat kontraesanei erantzuteko. Adibide garbia dugu Bilbo Handian, non zerbitzuen

Kohesioari egitasmo eraginkor bat eman nahi bazaio, etorkizuneko lurralde antolamenduak tokian tokiko gaitasunak aintzat hartu beharko ditu.

Bilbo Handian zerbitzuen susperraldiak ez du Ezkerraldeko enplegu ezari erantzuteko aski gaitasunik.

Landa eremua eremu urbanoetako herritarrentzako kalitatezko bizitegi eremu bilakatu da, errepide bidezko konektibitatea onan, bederen.

Lurralde espezializazioak prekaritate eta pobreziaren geografia berria eragin du euskal lurraldean, Ebroko arroan lehen sektoreko espezializazio intentsiboari lotuta nabarmen.


susperraldiak ez du Ezkerraldeko enplegu ezari erantzuteko aski gaitasunik. Era berean, metropolien indar xurgatzaileek eskualde funtzioak betetzeko zailtasunak eragiten dituzte eskualde buru askotan.

Euskal Herriko landa eremuan biztanleria bolumenak oro har handitzen jarraitu du milurteko honetan, Lapurdin nabarmen. Landa eremua eremu urbanoetako herritarrentzako kalitatezko bizitegi eremu bilakatu da, errepide bidezko konektibitatea onan denean, bederen. Hala, biztanleria galera garrantzitsua nozitu dute Nafarroako Pirinioek, Zangozaldeak, Nafarroako Erdialdeak, Egak, Zuberoa osoak, Arabako Mendialdeak, Lea-Artibaik edo Trebiñuk.


Lehen sektorean espezializaturiko lurraldeetan ondasun ekonomikoak sortzeko gaitasun mugatua medio (biztanleko BPG apala) eta etorkinak erakartzeko gaitasunik ez dagoen tokietan, belaunaldi ordezkapena traketsa da. Hauek egiturazko problematikei aurre egiteko ekonomia dibertsifikatzeko beharra dute, besteak beste, bertako gazteak errotzeko, bereziki emakume gazteak.

Lurralde espezializazioak prekaritate eta pobreziaren geografia berria eragin du euskal lurraldean, Ebroko arroan lehen sektoreko espezializazio intentsiboari lotuta nabarmen: aldi baterako kontratazioa, flexibilitate handiko laneratzea edo formazio beharrik ez duten lanbideetan oinarrituta. Baina 1960-70. hamarkadetan egituratutako geografia urbanoan ere halako segregazioak gertatzen dira (Iruñerrian, Ezkerraldean, Oarsoaldean, Baionako Plateau Saint Etienne...).

BIZTANLERIAREN BANAKETA, URBANIZAZIO MAILAREN ARABERA (%). 2020 URTEA.




LANDA EREMUAN BIZI DEN BIZTANLERIA (%). 2020 URTEA.



Oharrak:
Ipar EHko herrialdeetarako datuak 2021 urteari dagozkio.
Europako estatueterako datuak 2019 urteari dagozkio.
Txina, India eta AEBtarako datuak 2015 urteari dagozkio.
Iturria: Europako Batzordea, EUSTAT, INE, INSEE eta EUSKALGEO. GAINDEGIA.

BIZTANLERIAREN HAZKUNDE-TASA 2010/20 EPEALDIAN.
EUSKAL HERRIKO ESKUALDEAK.



HAZKUNDE-TASA HANDIENeko ESKUALDEAK

	Biztanleria osoa	Hazkundera azken hamarkadan (%)
Errobi Aturri	20.499	18,0
Bidaxuneko lurraldea	6.139	15,7
Errobi	30.112	14,5
Hego Lapurdi	69.043	13,4
Argako Haranak	13.321	13,3
Hazparneko lurraldea	15.861	12,6
Plentzia-Mungia	59.326	10,1
Iruñerria	361.393	8,3
Euskal Kost.-Aturri	131.928	7,9
Arabako Lautada	270.976	6,5

HAZKUNDE-TASA TXIKIENeko ESKUALDEAK

	Biztanleria osoa	Hazkundera azken hamarkadan (%)
Nafarroako Pirinioak	4.960	-14,4
Arabako Mendialdea	2.916	-8,3
Zangozaldea	9.357	-7,4
Trebiñu	1.865	-5,5
Xiberoa	12.509	-4,5
Nafarroako Erdialdea	26.327	-3,7
Jurramendi	31.780	-3,0
Lizarraldeko Erribera	27.375	-2,8
Sakana	20.261	-2,6
Izarbeibar	13.369	-2,4

Oharrak:
Iparraldeko herrialdeetarako datuak 2021 urterari dagozkio.
Europako estatuetarako datuak 2019 urterari dagozkio.
Txina, India eta AEBetarako datuak 2015 urterari dagozkio.
Iturria: Europako Batzordea, EUSTAT, INE, INSEE eta EUSKALGEO. GAINDEGIA.

Euskal Herria lurralde txikia

Euskal Herria izatez azaleraz txikiko lurraldea da (20.886 km²). Hainbat hiri eta tamaina ertaineko udalerri ditu bere baitan, lurraldearen ia edozein eremutik ordubete egin baino lehen iritsi daiteke hurbileneko hiriburura eta ardatz ekonomiko eta industrial bizi-bizietan kokatuta dago (ardatz atlantikoa eta Ebro ibarra).

686 udalerrik osatzen duten corpus-ean tamaina txikiko udalerrien presentzia nabarmena da: udalerrien %61a 2.500 biztanletik beherakoak dira (415 udalerri); horien artean, gehientsuenak 500 biztanletik beherakoak dira (306). Era berean, 50.000 biztanletik gorako zortzi udalerri daude: hegoaldeko lau hiriburuak, Barakaldo, Getxo, Irun eta Baiona.

Tamaina ertaineko herrien garrantzia

Euskal Herrian 25.000-50.000 biztanle bitarteko hamabi udalerri daude, horien erdia Bilboko metropoliaren eremu funtzionalean kokatuta (Santurtzi, Portugalete, Basauri, Leioa, Galdakao, Sestao). Baina 25.000 biztanleen langa Errenterriak, Durangok, Tuterak eta Eibarrek ere gainditzen dute. Azken bi hauek hiriburuaren eragin eremutik at daude, baina guztiak errepide sare nagusiaren ondoan kokatuta. 2020 urtean Biarritzek 25.000 biztanleen langa gainditu berri du.

Ziurrenik euskal geografiaren ezaugarri bereziena, hain zuzen ere, hamabi nukleo hauek eta tamainaz txikiagoak diren 10.000-25.000 biztanle

bitarteko beste berrogeita bat herrik sortzen duten egitura polinuklearra da, lurraldea kohesionatzeko garrantzitsuak direnak. Orotara, herritarren heren bat biltzen dute. Kantauri isurialdean ugariak dira tamaina ertaineko udalerriak, batez ere Gipuzkoan. Mediterranearen isurialdean, ordea, urriagoak dira eta gehienak Iruñerrian kokatzen dira. Araba eta Nafarroa Garaian tamaina ertaineko herririk gabeko lur eremu zabalak daude eta, hiriburuaren indar zentripetoaren aurrean, tokiko erresilientzia garatzeko zailtasunak handiagoak dira. Antzeko egoera bizi du Ipar Euskal Herriko barnealdeak.

Hiriburuaren eragin eremua hedatzen

Euskal Herrian hiriburuak eragin eremu zabala dute, batez ere mediterranearen isurialdean. Hala baieztatzen du EUROSTATEk, tokian tokian landunen enpleguan hiriburuak duten garrantzia aztertu eta gero. Gasteizko indar zentripetoa oso zabaldua

Lurraldearen ia edozein eremutik ordubete egin baino lehen iritsi daiteke hurbileneko hiriburura eta ardatz ekonomiko eta industrial bizi-bizietan kokatuta dago.

Ziurrenik euskal geografiaren ezaugarri bereziena egitura polinuklearra da, lurraldea kohesionatzeko garrantzitsuak direnak.

dago Araba osoan eta, Iruñeako eragin eremua, Izarbeibarretik Bidasoa Garaiaraino hedatzen da. Bestalde, Lizarraldeko Erriberako eta Arabar Errioxako eremu txiki batek, Ebro ibaia parean, Logroño hiriaren eremu funtzionala osatzen du. Baionako eremu funtzionala, ordea, Capbretoneraino iristen da.

Azken hamarkadetan hiriburuaren eraginpean diren herrien hazkunde nabarmena





izan da. Iruñerrian adibide ugari daude: Eguesibar, Berriobeiti, Orkoien edo Zizur. Bilbo Handian ere bai: Etxebarri, Berango, Derio, Leioa... Baionaren bueltan fenomeno bera gertatzen ari da, baina tamaina txikiagoko udalerriak dira. Euskal Herrian, hortaz, hiriburuen eremu funtzionalak gero eta indartsuagoak dira eta lurraldearen metropolizazio joera nabarmena da.

Edonola ere, Gipuzkoa eta Bizkaian hiriburuen indar zentripetotik at diren tamaina ertaineko herriek errealitate horren kontrapisua osatzen dute eta lurralde orekari ekarpen garrantzitsua egiten diote. Deba arroa horren adibidea da, Gipuzkoako mendebaldean eta Bizkaiko ekialdean sare polinuklear garrantzitsua eratuta baitago. Euskal Herriko hegoaldean ere, Tuter a buru, bada dinamismo propioa duen bestelako ardatza. Nolanahi ere, euskal mediterraneoko isurialdean tamaina ertaineko udalerriak urriagoak dira eta, hauen arteko distantzia, handiagoa.

Metropolizaziorantz doan geografia honetan Euskal Herriak 3.193.513 biztanle ditu (2020). Urtebete lehenago erregistratutakoak baino 22.622 biztanle gehiago dira horiek (+% 0,71), eta azken hamarkadan Euskal Herrian urtetik urtera eman den biztanleria hazkunde handiena. Herrialdez herrialde begiratuta guztiek irabazi dute biztanleria, Zuberoak izan ezik. Populazioaren banaketari dagokionez, azken urteetako joera sendotu egin da: herritarren %82,6

hiriguneetan eta bitarteko hiriguneetan bizi da. Bestela esanda, biztanleriaren %82,6 lurraldearen %15,1ean metatzen da.

Herritarren %17,4 baino ez da bizi landa eremuan

Joera nagusiak alde batera, lurralde mailako joerak etorkizuneko Euskal Herria egituratu dezaketen zenbait fenomeno ulertzeko lagungarri izan daitezke. Egun, euskal herritarren %55,4 hiriguneetan bizi da, eta %27,3 bitarteko hiriguneetan. Gainontzeko %17,4k, aldiz, landa eremuan du bizilekua. Datu hori lurraldea hirigunea, bitarteko hirigunea eta landa eremuaren artean banatzen duen Europar Batasunaren urbanizazio-mailaren sailkapenetik eratortzen da.

2020 urtean hiru eremuek herritarrak bereganatu dituzten arren, azken hiru urteetan hiriguneen hazkunde demografikoa berrindartu egin da. Hirigune eta bitarteko hiriguneen pisuagatik Euskal Herriak Herbeheretakoaren antzeko lurralde egitura du. Kasu bietan, biztanleriaren %10-18ak baino ez du bizilekua landa eremuan. Ez dira asko munduan zehar gisa horretako populazioaren geografia duten herrialdeak.

Erresilientzia eta iraunkortasunaren mendean gauden aldetik, eginkizun berriak datoz herrigintzaren eta burujabetzaren agendara. Lurralde oreka eta lurralde kohesioa agenda politikoan dauden helburuak dira eta bete-betean lotzen zaizkio Euskal Herriaren egitasmoari hainbat arlotan, hasi herritarren baitako kohesio sozialarekin, segi elikagaiz hornitzeko gaitasunarekin eta gure identitatearen oinarri espazialeraino. XXI. mendean Herri bagara, eman diezaiogun garaia behar duen lurralde egitasmoa.

**Azken hamarkadetan hiri-
buruen eraginpean diren he-
rrien hazkundera nabarmena
izan da.**

**Herrialdez herrialde begi-
ratuta guztiek irabazi dute
biztanleria, Zuberoak izan
ezik.**

**Lurralde oreka eta lurralde
kohesioa agenda politikoan
dauden helburuak dira eta
bete-betean lotzen zaizkio
Euskal Herriaren egitas-
moari hainbat arlotan.**

Aiete, hamar urte ondoren



Urko Aiartza. *Senatari ohia eta abokatua*
Rofi Etxeberria. *Sortuko Gatazkaren Ondorioen*
Konponbiderako batzordearen arduraduna

Argazkiak: FOKU

Aurtengo urrian Aieteko konferentziaren hamargarren urteurrena beteko da, eta euskal historia garaikidean mugarri gisa gelditu den gertaera honetara nola heldu zen aztertzeak garrantzia izaten jarraitzen du.



Aieteko konferentzia, 2011ko udan ETA eta Espainiar Gobernuaren artean HDC Zentroaren “shuttle diplomacy” edo bitarteko diplomazia bidez adostutako bide orri baten ekimen publiko eta esanguratsuena izan zen. Bide orri horrek borroka armatuaren ondorioen inguruko negoziaketa baterako agertokia irekitzen zuen, eta presoen auzia, armagabetzea eta iraganaren inguruko aferak landuko ziren. Jakina denez, halere, bide orri horrek ez zuen zer ikusirik aurretik erabilitako negoziaketa prozesu kondizional klasikoekin. Beste logika batean kokatzen zen eta logika hori ulertzeko 2006/07 urteetako Genevako negoziaketek utzitako errealitatea aztertu beharra dago.

Aski ezaguna da jada 2006/07ko negoziaketen hausturak ezker abertzalea krisi sakonean utzi zuela. Bere historian hirugarren aldiz negoziaketa saio batzuen ingurugiroan, ezker abertzalea elkarrizketa hauetan sartzean baino ahulago ateratzen zen eta, ondorioz, ahuldadea handitzen zihoan. 2006/07ko negoziaketa

prozesuan espainiar Estatuak bere BATNA (negoziatutako akordio bat lortzea baino alternatiba hobe gisara definitzen duen agertokia) indartu zuen bitartean, ezker abertzaleak ez zuen hau landu eta prozesuaren apurtzeak ahuldu eta krisi sakonean sartu arazi zuen. Jendarteak maila handi batean ezker abertzalea egin zuen prozesuaren hausturaren errudun, nazioarteko komunitateak ez zuen ulertu prozesua maila hartaraino heldu zenean apurtu izana, eta militantzia eta egitura desberdinak noraezean gelditu ziren. Espainiar Estatuak negoziaketa prozesua, beti bezala, ETArekin aurkako borrokarako bere inteligentzia hobetu eta sakontzeko erabili zuen baina baita ere ezker abertzalearen bazterte eta ordezkatzeko politikarako estrategia integral bat garatzeko. Espainiar Estatuak horretarako estrategia oso bat zuen garatua (politikoa/poliziala/judiziala/nazioartekoa), eta helburua ezker abertzalearen suntsiketa zen. Espainiar inteligentzia zerbitzuetan jada garaipen militar eta politikoan amesten

zen. Garaiko politikari batek horrela artikulatu zuen publikoki: “han podido acabar como el IRA pero acabarán como el GRAPO”.

Bide orri horrek ez zuen zer ikusirik aurretik erabilitako negoziaketa prozesu kondizional klasikoekin.

Ezker abertzalea elkarrizketa hauetan sartzean baino ahulago ateratzen zen eta, ondorioz, ahuldadea handitzen zihoan.

Espainiar inteligentzia zerbitzuetan jada garaipen militar eta politikoan amesten zen.

Guda zelaitik atera beharra zuen ezker abertzaleak, beretzat egokiagoa eta irismen handiagokoa zen borroka eremu berria bilatuz.

Argipen estrategiko baten beharra zegoen. Aurreko negoziaketa ereduak ez zuten gehiagotan errepikatzeko balio. Indar militarren garapenak ireki zezakeen balizko alde biko negoziaketa berri baten perspektiba oso urruna zen, eta bien bitartean ezker abertzalea urteetan zehar lortutako metaketa politiko historikoa xahutzen ari zen, politikoki ezerezean gelditzeko arriskuarekin. Hori horrela, irakurketa politiko horren baitan, zer zentzu zuen laugarrenez berriro berdinean saiatzeak? Agortze nabaria zen nagusi. Amildegitik irten beharra zegoen. Estatuak bere alde zuen abantaila operazional eta estrategikoa, eta horren aurrean guda zelaitik atera beharra zuen ezker abertzaleak, beretzat egokiagoa eta irismen handiagokoa zen borroka eremu berria bilatuz, indarrak metatuz eta Estatuarekiko konfrontazioa baldintza hobeto eginez. Eta eskema horretan borroka armatuak eraginkor izateari utzi zion; aldiz, borroka armatuaren desaktibazio programatuak bai joka zezakeela aktibo gisa, sortu beharreko indar metaketa berriei begira. Gogoeta hau agian

beranduegi baneratu zen, hau egiteko une egokiena 2006/07 izan baitzen, edo lehenago batzuen aburuz, baina orduan oraindik ere negoziazioa fronte bat gehiago gisa ikusten zuen ezker abertzaleak, horrela irudikatuz, fase berri bat bezala hartu ordez. Fronte kontzepzioak, berau beste ekinbideekin

elkar elikatuta piztu eta itxi zitekeenaren zentzua hartzen zuen; negoziazioa fase berri gisa definitzeak, aldiz, logika berri eta oso baten baneratzeari suposatzen zuen, non ez zegoen atzera bueltarik; negoziaketa fasea askapen prozesuaren fase berri bat zen bere arau propioekin.



Arantza Santesteban, Arnaldo Otegi eta Rufi Etxeberria 2006an prentsaurreko batean. Ezker abertzaleak izendatutako negoziazio taldeko kideak izan ziren.

Estatu espainiarrak, noski, ez zuen estrategia aldaketa hori egiten lagunduko, Estatuaren helburua ezker abertzalearen suntsitze politikoa baitzen. Bidelagun berriak topatu behar zituen ezker abertzaleak, baldintza berriak sortuz eta ondorioz bidaide gehiago lortzea ahalbideratuz. Eta argi zegoen Estatua hau neutralizatzen saiatuko zela. Horrela soilik uler daiteke geroago “Bateragune” gisa ezagutuko zen operazioa. Estatuaren helburua zen prozesu horretan zehar ezker abertzalea ahalik eta ahulen uztea, zatiketak eta kontraesanak sustatuz.

Ezker abertzalearen estrategia, ezaguna denez, bi norabide nagusitan oinarritzen zen: batetik nazioarteari begirakoa, Euskal Herrian irekitako prozesuaren alde kanpoko zenbait eragileren konplizitatea lortzeko eta, bestetik, askapen prozesu ez armatu baten alde egon zitezkeen euskal sektoreei begirakoa. Estrategia berriak indar metaketa berriak eskatzen zituen eta horrek ezinbestean ezker abertzalea estrategia ez armatu baterako bidean jarri behar zuen.

Horrek guztiak era berean prozesuarekiko dimentsio berriak eraikitzea eskatzen zuen. Ezker abertzalearen historian eta DNan borroka armatuaren desaktibazioa aldebiko logikan zegoen errota, borroka armatuaren gelditzea estatuarekin garatutako eta adostutako edukietan kokatzen zen. Logika berrian

borroka armatuaren gelditze eta amaitzea erabaki burujabe eta propio gisa kokatzen zen, horrek ekar zitzakeen aukera berriak izanik asmo nagusitzat. Aldebakartasun gisa definitu zen horrek (aldebikotasunaren aurrean) finean iniziatiba politikoa hartu eta aukera berriak, “momentum” berriak, sortze bidean borroka armatua alde bakarrez gelditzeak sortzen zituen aukerak baliatzea esan nahi zuen. Askotan modu hertsian ulertu da kontzeptu hau. Aldebakartasunak ez zuen esan nahi ezker abertzaleak dena berak bakarrik egin zezakeela uste zuenik. Aldiz, billarrean jokatzeari bezala, bola bat jotzean bolak berriro kokatzea bilatzen da, horrek agertoki eta aukera berriak emanez. Egoera aldaketak beste eragileak urrats berriak egitera bultzatzen zuten.

Aiete aurretik estrategia honek hainbat lorpen izan zituen. Batetik, Bruselako Adierazpenarekin, Nazioarteko Harremanetarako Taldearekin eta Nazioarteko Egiaztapen Batzordearekin nazioarteko sustengua aktibatu zen. Bestetik, Gernikako Akordioarekin euskal bake prozesurako oinarriak jarri ziren. Azkenik, ezker abertzaleak, Eusko Alkartasunak eta Alternatibak beren arteko adostasunekin eta Bilduren legeztatzearen ondorioz, ilegalizazio garaia gainditzea eta 2011ko Udal hauteskundeetan aurkeztea ekarri zuen eta estrategia politiko berriaren potentzialitatea agerian gelditu zen.

Estrategia berriak indar metaketa berriak eskatzen zituen eta horrek ezinbestean ezker abertzalea estrategia ez armatu baterako bidean jarri behar zuen.

Logika berrian borroka armatuaren gelditze eta amaitzea erabaki burujabe eta propio gisa kokatzen zen, horrek ekar zitzakeen aukera berriak izanik asmo nagusitzat.

Billarrean jokatzeari bezala, bola bat jotzean bolak berriro kokatzea bilatzen da, horrek agertoki eta aukera berriak emanez.

Esan bezala, ekimen hauek guztiek suposatu zuten Estatu espainiarra eta ETaren arteko zeharkako harremanen berrartzea. Harreman kanalak mantentzea izan zen, 2006/07 prozesua amaitu ondoren, ezker abertzalearen erronketako bat, ordura arte elkarrizketa bidezko konponbidearen alde lortutako nazioarteko inplikazioa eta babesa mantentzeari begira. Ordurako espainiar Gobernuak ezker abertzalearen zatiketaren aukera baztertuta zuen eta, aldiz, ETaren jarduera armatuaren amaiera aukera bezala ikusten zuen. Garai hartan Gobernu espainiarreko presidentea zen Jose Luis Rodríguez Zapaterok hauteskundeak baino lehenago kapitalizatu zezakeen amaiera. Eskema horretan bide orri adostuaren aukera sortu zen. Zoritxarrez, Eissenhowerrek zioen bezala “a plan is nothing but planning is everything”; hau da, plan bat ezerezean gelditu ohi da errealtatearekin talka egitean. Baina ordura arte egindako planifikazioak eta estrategiak berebiziko

Gobernu espainiarreko presidentea zen Jose Luis Rodríguez Zapaterok hauteskundeak baino lehenago kapitalizatu zezakeen amaiera.

Ingelesek dioten “facts on the ground” gogoan, eta emandako hitza ez betetzeko espainiar sozialisten ohituraren jakitun, etorkizuneko elkarrizketak bideratu ahal izateko oinarriak jartzeari begiratu behar zitzaion.

balioa du. Zergatik diogu hori? 2011ko udan, ukatzen saiatu zen krisi ekonomikoaren kolpearean eraginez, PSOEko gobernuaren buru zen Zapatero hauteskundeak aurreratu beharrean aurkitu zen eta hori egin zuen. Argi zuen ziurrenik hauteskundeak galduko zituela eta horregatik albo batera egin eta Alfredo Perez Rubalcaba

izendatu zuten hautagai, bozen odolustea gelditu eta Barne Ministro gisa izan zuen jardunarengatik saritua izan zitekeenaren itxaropenean.

Ezker abertzaleak bi aukera zituen ataka berri horretan. Bata, gobernu berria eratu arte itxaron eta gobernu berriarekin adostu bide orria. Finean hauteskundeetatik eratorritako gobernu berriak izan beharko baitzuen bide orria inplementatuko zuena; are gehiago, hauteskundeen aurreratzeak zaildu zuenean aurreikusten zen eskemaren garapena, hau da, PSOEren gobernuak hainbat neurri hartzeko aukera izango zuela eta gutxienik elkarrizketak abiatuko zituela. Beste aukera, arrisku guztiekin ere, aurrera jotzea zen. Logika honen baitan hobe zen prozesua abiatuta uztea gobernu berriak egingo zukeenaren zain geratu gabe eta, bestetik, hurrengo gobernu horri zailago egiteko abian jarritakoa suntsitzea. Bigarren aukera lehenetsi zen, eta orain hamar urteko udan nazioarteko bitartekariak “hoja de ruta resultante” delakoa diseinatzeari ekin zioten. Bide orri horretan mugarri nagusiak ziren Aieteko Konferentzia egitea eta ETaren ordezkaritza Oslon kokatzea. Ingelesek dioten “facts on the ground” gogoan, eta emandako hitza ez betetzeko espainiar sozialisten ohituraren jakitun, etorkizuneko elkarrizketak bideratu ahal izateko oinarriak jartzeari begiratu behar zitzaion.

Esan bezala, adostutako bide orria aurretik diseinatutako negoziaketa eskematik aldendu egiten zen. Ezker abertzaleak erabaki estrategiko batzuk hartuak zituen jada, bereziki borroka armatuaren amaierari



zegozkionak. Beraz, bide orria ez zen aldebiko akordio bat, zeinean, borroka armatuaren auziak baldintzatzen zuen eta, jakina, agerikoa zen behin borroka armatuaren zikloari itxiera eman ondoren ez zuela eragiteko ahalmenik izango. Bestetik, abantaila bezala kontsideratzen zen prozesu adosturik ezean Estatuak ez zuela aurreko prozesuetan bezala konpromisoak ez betetzearekin ezker abertzalearen erabakian eragingo. Logika beste bat zen, gertaera bakoitzarekin indar harreman berriak sortzea eta urrats berrietarako baldintzak hobetzea.

Aieteko Konferentziak agertoki berri bat sortuko zuen aukera eta mehatxu berriekin. Mehatxuen artean Mariano Rajoyren gobernuak har zezakeen jarrera zegoen. Rajoyk eszenatoki berrian ezer ez egitea erabakiko zuen, prozesua usteltzen uztea hain zuzen. Hauteskunde ondoan eratu zen PPren gobernuaren aurrean ezker abertzaleak hiru aukera aurreikusi zituen: bete-betean prozesua suntsitzera jotzea, errepresioaren bidea beste intentsitate batekin mantenduz prozesua usteltzen uztea, eta prozesuari ekitea. Jazarpena eta usteltzen uztea uztartuz saiatu zen prozesua amildegira eramaten.

Egia da behin borroka armatuaren amaiera adierazi ondoren inork ez zuela aurreikusi (ez Euskal Herrian baina ezta ere nazioartean) espainiar gobernuak armagabetze prozesuari muzin egingo zionik eta gainera oztopatzeko estrategia aktibatuko zuenik. Rajoyren gobernuan eta PPren estrategian indar handia hartu zuten



Nazioarteko ordezkariak Aieteko Konferentzia amaitzeko, bost puntuko agiria irakurtzen. Euskal Herriko gatazka politikoaren ondorioak eta muina konpontzeko bideorria proposatu zuten.

bataila militarra irabazi bai baina bataila politikoa ezker abertzalearen aurka galtzen ari zirela adierazten zuten ahotsek ("la derrota del vencedor" gisara definitzen zuten). Honek Aieteren ostean, urte gutxiren buruan, ezker abertzalea estrategia doitzera bultzatu zuen. Gorago esan bezala, "a plan is nothing, planing is everything".


Abantaila bezala kontsideratzen zen prozesu adosturik ezean Estatuak ez zuela aurreko prozesuetan bezala konpromisoak ez betetzearekin ezker abertzalearen erabakian eragingo. Logika beste bat zen.

Behin borroka armatuaren amaiera adierazi ondoren inork ez zuen aurreikusi espainiar gobernuak armagabetze prozesuari muzin egingo zionik eta gainera oztopatzeko estrategia aktibatuko zuenik.

Aieteko Konferentziaren ondoren, urtarrilean 100.000 lagunetik gora bildu ziren preso politikoek eskubideen aldeko manifestazioan Bilbon 'Kolosala izango da' kanpaina gogoangarriaren ostean.



Arnaldo Otegi atxilotuta 2007ko ekainean. ETak negoziaketa prozesua amaitutzat eman ostean, Otegi kartzeratu zuen Estatuak, 15 hilabeteko kondena betetzeko Argalaren omenaldi batean parte hartzeagatik.



2009ko irailean LABen egoiltzan atxilotu zuen Espainiako Poliziak Arkaitz Rodriguez beste hainbat kiderekin batera, ezker abertzalearen estrategia aldaketa oztopatzeko helburuarekin. 'Bateragune' auzi gisa ezagutzen denaren hasiera izan zen.



2011ko maiatzaren Sean Espainiako Auzitegi Konstituzionalak Bilduri hauteskundeetan parte hartzen utziko ote zion jakiteko zain, jendetza bildu zen Bilboko Areatzan.



Bestetik, Aieteko Konferentziaren eta ETak 2011ko urriaren 20an egindako Adierazpenaren testuinguruan, Amaiur eta EH Bilduren hautes emaitza indartsuek eraikitako mapa elektorala ere eman zen, eta horren ondorioz indar harreman berri baten marrazketa. Egoera berriak, besteak beste, Aieten ireki zen prozesuarekiko ikuspegi murriz eta alderdikoia hartzera eraman zuen EAJ eta bereziki Urkulluren Gobernua. Horrek asko zaildu zuen ondorengo urteetan prozesuak aurrera egitea, jokabide alderdiko arduragabeak lekua hartu zuelako gatazkaren konponbidean. Hori bai, azpimarratzekoa da Ipar Euskal Herriko eragile gehienek Aiete ondoren hartutako norabidearen eta elkarlanaren eskutik ireki den agertokia, bai instituzionalki

Herri Elkargoarekin eta bai gatazkaren ondorioen konponbidean, bereziki armagabetze prozesuarekin. Ipar Euskal Herriko ibilbideak berebiziko garrantzia izan du Aiete ostean prozesuak bere osotasunean hartu duen bilakaeran.

Finean, 2006/07 ondoren ezker abertzaleak diseinatu zuen estrategia berriaren mugarri nabaria suposatu zuen Aieteko Konferentziak, logika berriaren adierazle nagusi gisara eta ondorengo urteetan, gaur arte, eman denaren oinarriak ezarri. Hori bai, orain artean bezala, aurrerantzean ere ezer ez da lineala izango eta ezker abertzaleak bere estrategiaren garapenean doiketak egiten segitu beharko du sortuko diren agertoki berrien eraginez.

Egoera berriak, Aieten ireki zen prozesuarekiko ikuspegi murriz eta alderdikoia hartzera eraman zuen EAJ eta bereziki Urkulluren Gobernua.

Ipar Euskal Herriko ibilbideak berebiziko garrantzia izan du Aiete ostean prozesuak bere osotasunean hartu duen bilakaeran.

Argilunetako munstroak

“Ideien munduaz jabetu behar gara, gureak
munduaren ideiak izan daitezen”

Antonio Gramsci



Edurne Benito del Valle. *Soziologoa*
Andoni Olariaga Azkarate. *Filosofoa*





XX. mendeko ajeak

Premiak, kontsumo asegabeak eta lehiakortasunak ezaugarritzen duten garaian bizi gara. Hori da, hain zuzen ere, kapitalismoaren azken mutazioa den neoliberalismoaren ondorioetako bat; gaurkotasun iraunkorraren tirania edo orainaldiaren diktadura. Narrazioaren krisiak ezaugarritzen du aurrekoa, eta tenporalitatearen krisiari doa lotua: iragana eta etorkizuna orainean lotu ditzakeen eragiketa tenporal oro puskatu da, alegia. Eskema horretan historiak bere indarra galdu du eta fenomenoak lehenaldiaren dimentsioa kontuan hartu gabe aztertzen dira. Memoria lausotu eta testuinguru, lurralde edota iraganarekiko lotura oro puskatu dira. Bitartean, izate askeak garelako sinesmena sendotu da, horrela lortzen baitu neoliberalismoak bere burua zilegiztatzea, jendarteak atxikimendu ustez librea daukala sinestaraziz.

1989. urtearen ondoren mundua interpretatu eta eraldatzeko modu oso bat jarri zen ezbaian. Eta hamarkada bat geroago, ezkerra beste mundu bat posible zela irudikatzen hasi zenean, bere ohiko postulatuak, bere identitate politikoa, berdefinitu behar izan zituen (Europar, batik bat). Noiz eta etorkizunik gabeko mundu bat, alternatibarik gabeko mundu baten pertzepzioa, areagotu egin baitzen. XXI. mendeko ezaugarri orokorrak aurreko

bataila galduek markatzen dute ordutik: metarrelatoen bukaera, historiaren bukaera, jendartearen bukaera... Utopia askatzaileek statu quoaren distopia deslegitimatzaileei egin diete leku. Izan ere, amesgaiztoko etorkizun baten distopiak, zientzia fikziotik hasi eta ekologiara pasa (katastrofe ekologikoetan oinarrituz), gizadiaren askatasunaren ametsa ordeztu dute, imaginazio soziala orainaren mugetan kateatuz. Emantzipazio kolektiboen ametsak pultsio indibidualetan, merkatu kontsumo aseezinean, bilatu dute erosotasuna.

Horregatik esan ohi da, indibidualismoaren garaian bizi garela. Ahantzi egiten da, ordea, agian ez garela gai kolektibotasun forma berriak ulertzeko. Alegia, ezin dugula kolektibotasun zahar indartsuen iruditegiekin epaitzen jarraitu gaurko indibidualtasun eta kolektibotasun espresio berriak.

Eraldaketa horien guztien aurrean, ezkerrean hainbat mekanismo piztu dira azken hamarkadatan: melankolia, nostalgia baina baita aurrera egiteko gogoia ere. Eta bi joera nagusi atzeman daitezke: garaiko markoetan politizatzen diren belaunaldi berriak agertu zaizkigu, baina baita marko zaharrak berreskuratu nahi dituzten sektore popularrak ere. Eta noski, bien arteko talka.



Arrakala zahar-berriak

Eta honek guztiak, halabeharrez, belaunaldi berriei begiratzera garamatza. Askotan esaten baita gazteak etortzekoak diren inertzia sozial eta politikoen ispilu direla, beraz, aipatu sintomak nabarmenago hauteman daitezkeela horiengan.

Izan ere, gazteek iraganaren eta orainaren zubi-lana egiten dute, jasotzen duten ondare historiko eta kolektiboa etengabe jaso, eraldatuz eta norberera moldatuz, edo bestela esanda, haien testuingurura egokituz. Baina hori baino gehiago da, oinordekotza horren baitan izaten baikara nor, komunitateko kide. Bestelako kontu bat izaten da, ordea, ondarea bera arriskuan ikusten denean, biziraupenaren continuuma kinka larrian dagoenean. Horrelakoetan, balioen transmisioaren etenaz edo, are, belaunaldien arteko talkaz hitz egiten da.

Talka, etena, arrakala edota paradoxa; hainbat hitz erabili daitezke. Baina funtsean, sentimendu bera adierazten dute guztiek oinarrian: beldurra eta gazteen portaerarekiko kezka. Are gehiago, azaleratzen diren joera berriak, oro har, ilogiko edo irrazionaltzat hartzen dira.

Nihilismoaz hitz egiten da, balioen krisiaz, indibidualismo gordinaz, etab.

Azken boladan Euskal Herrian ere susmo hori areagotu eta gazteak mesfidantzaz aztertzen direla begibistakoa da. Horrela, gero eta ohikoagoa da indibidualismoaren gorakada, euskal misioarekiko interes galera, despolitizazio zantzuak edota ideologiaren ahultzea bezalako irakurketak ikustea, gazteen azken joera politiko, kultural, soziologiko eta antropologikoei lotuta. Askotan, horiek ulertu ezinik, belaunaldien arteko urruntze areagotuak irakurketa sakon eta pausatu bat behar duela ahaztu egiten da.

Argiago esateko, iragana eta orainaldia deslotzearekin batera, euskal gazteriari euskal proiektu politikoarekiko engaiamendu falta leporatzen zaio. Eta, zaharrak berri. Aritz Galarragak ziklikoki errepikatzen den moderno eta antimodernoaren arteko bataila gisa irudikatzen duena da, hain zuzen, gaur hizpide dugun auzia. Izan ere, noizean behin historiaren bilakaeran inflexio puntu izaten diren gertakariak daude, bereziki gizarteratze eta sozializazio prozesuetan eragin handia dutenak. Hala,

aurreko arau eta balioak zeharo desitxuratzen dira, bestelako begirada eta eskemak gailentzen diren neurrian. Eta arestian azaldu bezala, egiturazko aldaketak egon diren gisan, Euskal Herrian lurreratuz, badira kontuan hartu beharreko bestelako elementu partikularrak ere, besteak beste, ziklo armatuaren amaiera, prekarizazio bortitza, politika konbentzionalaren krisia, edota, esaterako, neoliberalismoaren gailetasun kulturala.

Gatazka armatuaren zikloak askapen mugimenduari identitate errotu bat eman dio urteetan zehar; baina estrategia horren agorpena eta aldaketarekin batera, belaunaldi askoren norgintzan oinarritzkoak izandako zutabeak ere kolokan jarri dira; ez euskal askapen mugimenduaren izpiritua edo balioak bidean zehar galdu direlako, baizik eta haren mundu ikuskerari lotutako hainbat printzipio eta eskema politiko bidean eraldatu direlako baizik.

Eta hemen dugu paradoxa, bi gizarte ezberdinen arteko kontraesana: azken urteetan eskema zaharretatik askatu nahi gabe, berrien etorreraren artean gabiltza dantzan, malabaristak nola, oreka mantendu nahian.

Ura baretu da

Hortaz, mundu mailan bai Euskal Herrian bizitako joerek euskal iruditegiaren ezaugarritzea baldintzatu dute: belaunaldi helduenek mundu globalizatu eta teknologikoaren ondorioak gazteek adina gorpuzten ez dituzten moduan, belaunaldi berrienak ez du gatazka politikoaren alderdi bortitza eta krudelena bizi izan. Eta, beraz, bi esperientzia eta agertoki desberdinen inguruan ari gara; bata gordinagoa, erresistentzia zuzenean oinarritua; bestea, bide ezezagunak urratzeari lotuta, akaso, sotilagoa. Baina inondik inora ez, ardura politikorik gabekoa.

Izan ere, 60ko hamarkadatik aurrera askapen mugimendua borborka ibili da, eztanda egingo zuen lapiko baten antzera, etengabeko mobilizazio zikloan, olatuen gainean eta aparretan. Orain, lapikoa hoztu eta hainbeste urteren ondoren trantsizio batean sartuta gaudela dirudi; neurri batean, ura baretu egin da. Alta, soziologoek gizarte mugimenduek goraka eta beherakadak izaten dituztela aipatzen dute; hau da, olatuen antzera ibiltzen direla, gora eta behera, mugimendu politiko bat ezin dela beti olatuaren gailurrean egon.



Gero eta ohikoagoa da indibidualismoaren gorakada, euskal misioarekiko interes galera, despolitizazio zantzuak edota ideologiaren ahultzea bezalako irakurketak ikustea, gazteen azken joera politiko, kultural, soziologiko eta antropologikoei lotuta. Askotan, horiek ulertu ezinik, belaunaldien arteko urruntze areagotuak irakurketa sakon eta pausatu bat behar duela ahaztu egiten da.

Batzuetan, arnasa hartu eta lortutako garaipenak sedimentatzeko momentua izaten da. Ziklo berri batera bidean, oraindik aurrekoan gaudela dirudi.


Baina adi ibili behar gara egiten ditugun irakurketa borobilekin. Aldarri bat lehen lerroan ez egoteak ez du desagertu edo galdua dagoela zertan adierazi. Michael Billigen nazionalismo banalaren teoria jarraituz, identitate nazionalak egunero operatzen du ezkutuan, diskurtso, ohitura eta instituzioen bidez, balio eta izaera partekatu bat jendartearen zentzu onean txertatuz, era naturalean. Hartara, zerbait naturalizat ematen denean, jendeak ez du zalantzan jartzen. Esan nahi da, gurean ere urte askotan emandako borrokek bere fruitua eman dutela, eta egun, horiek etengabea problematizatzeko

beharrik ez dutela ikusten belaunaldi berriek. Nazioa eta bere sinbolo nagusiak eta horien arteko eztabaida, horren lekuko.

Funtsean, zenbait garaipenen ondoren, lasaitasun estrategikoa bertutea bilakatzen ari da ziklo historiko honetan. Baina antagonismo politikoa lausotu izanak ez du esan nahi gatazka-guneak desagertu direnik. Alderantziz, belaunaldi bakoitzaren errealitate eta testuingurua kontuan hartuta, borroka identitatearen fronte eta forma ezberdinetara lekualdatu dira. Gure herrian feminismoak eta ekologismoak izan duten zabalpenari baino ez zaio erreparatu behar, tokian toki dauden askotariko egitasmo askatzaileez gain; edota sare sozialetan dauden eztabaidak eta ikus-entzunezko euskarri ezberdinek euskaraz egiten duten askotariko lana. Herria

bizirik dago.

Posible da aurreko zikloan hezitutako belaunaldiek zenbaitetan gure tradizio politikotik urrun sentitzea praktika kultural eta politiko berriak. Baina konponbidea ezin da izan atzera begiratu eta iragana erromantizatzea. Hurrengo urteetan erronka gazteen behar eta nahiak XXI.





mendeko euskal askapen proiektura lotzea izango da. Horretarako, ezin ditugu aurreko joko arauak, aurreko betaurreko erosoak, erabili. Utopia eta baikortasuna eraikitzea gure eskuetan dago, euskal independentziaren aldeko borroka emozioz eta epikaz jantziz. Baina gazteei bide berriak urratzen utziz, betiere.

Mugimendua(n) gara

Tentsioak aldaketaren marka izaten dira; alta, izate batek bere osotasunean hartuta, dinamika kontraesankorrak behar ditu existitzeko eta, beraz, behar beharrezkoak dira. Are gehiago, tentsio kontrajarriak erabat osagarriak izaten dira eta, hortaz, paradoxak une erabakigarrien eta aldaketa

historikoen adierazle gisa ulertu behar ditugu.

Gauzak horrela, belaunaldien arteko arrakala bi ziklo politiko ezberdinen talkaren sintesi gisa ulertzen hasi beharko ginateke. Aurrera begirako potentzialitatea askatzeko, gaur gertatzen zaiguna ulertzea gakoa izango baita.

Euskal kulturgintzak plazak behar ditu

“Euskal kulturgintzaren biziraupenerako ezinbestekoa da Ipar Euskal Herriko, Nafarroako eta EAEko kulturgintza artikulatzea.”

Gotzon Barandiaran Arteaga. *Idazlea*



Argazkiak: FOKU



Euskal Herrian kultur sormenerako dauden espazioez aritzeko euskal kulturgintzak egun bizi duen egoera bere osotasunean hausnartzeak mataza askatzen lagun diezaguke. Guztiok jakintzat ditugulakoan, egunero kultur sormenari buruzko hainbat erabaki hartzen ditugunean ahaztu ditzakegun zenbait gogoeta eta proposamen ekarri gura nituzke orriotara, eztabaidarako bazka:

1. Euskararen herria hiru administrazioetan zatituta egotea da euskal kulturgintza normalizatzeko dugun oztoporik gaindigaitezako bat.

2. Euskal kulturgintzaren biziraupenerako ezinbestekoa da Ipar Euskal Herriko, Nafarroako eta EAEko kulturgintza artikulatzea.

3. Euskara ez dugu biziberrituko euskal kulturgintzaren ekosistema osasuntsu ez badago.

4. Euskara ez badugu biziberritzen euskal kulturgintzaren ekosistema ez da egundo osasuntsua izango.

5. Euskara eta bere kulturgintza bereizi ezinak dira.

6. Euskara eta bere kulturgintza sinkronizatuta egon behar dira beti.

7. Kulturgintzaren gaixotasun endemikoetako bat atomizazioa da. Euskal kulturgintzaren

ekosistema osatzen dugun eragileen artean azken urteetan etengabe errepikatu den proposamena hauxe izan da: Elkartu egin behar dugu, nork bere aldetik ez dugu lortuko euskal kulturgintzak bizirauterik.

Baina zertarako? Zein d(ir)a euskal kulturgintzaren helburu estrategikoa(k)? Hona hemen eztabaidarako proposamen bat.

Euskal kulturgintzaren erronka nagusia kulturzaleak sortzea da

2016an JALGI ekimena abiarazi genuen kultur-eragileok (Aiaraldea Komunikazio Leihoa, Bertsozale Elkarte, Ahotsenea, EHAZE, Topagunea), gure kulturgintzaren diagnostiko adostu batek bildu gintuen. Euskal kulturgintzaren erronka nagusia euskaldunak euren kulturara ekartzea da. Euskal kulturgintzaren berariazko erronka kulturzaleak sortzea da:

- Sortzaileak izango diren zaleak behar ditu euskal kulturgintzak, amateurak eta profesionalak.
- Antolatzaileak izango diren zaleak: herri ekimenetan edota erakunde publikoetan arituko direnak.
- Kulturgintzaren industriari emanak biziko diren profesionalak bihurtuko diren zaleak behar ditugu.
- Kultur kazetaritza jorratuko duten zaleak behar ditugu.

• Etxean, hezkuntza arautuan, ez arautuan zein astialdian transmisioa bermatuko duten zaleak sortu behar ditugu.

Zertarako? Gure kulturgintzaren ekosistema iraunarazteko. Euskararen erabileran eraginez euskara biziberritzen laguntzeko.

Zein da kulturzaleak sortu eta euskal kulturgintzaren ekosistema osasuntsu iraunarazteko gure proposamena? Lau lan-ildo hauetan aritzea etengabe.

Baga, sormena: pertsonaren garapen integralerako ezinbesteko bitarteko gisa era sistematiko batean lantzea heziketa prozesu osoan, bai hezkuntza arautuan zein ez arautuan. Biga, plazak: Euskal Herriko plaza fisiko eta birtualetan bertoko kulturgintza izatea nagusi. Higa, komunikazioa: sortzen dugun hori gure herrikide

Antolatzaileak izango diren zaleak behar ditu euskal kulturgintzak: herri ekimenetan edota erakunde publikoetan arituko direnak.

guztienganaino iritsiko dela bermatzea. Lauga, transmisioa: euskal kulturgintzaren transmisioa bermatzea etxean, hezkuntza arautuan zein ez arautuan.

Lau erronka nagusioi, ekosistema gisa erantzutea proposatzen dugu. Eta, nortzuek osatzen dugu euskal kulturgintzaren ekosistema? Sortzaileak, antolatzaileak (herri-mugimenduak, erakunde publikoak, pribatuak/profesionalak), hezitzaileak (hezkuntza arautukoek zein ez arautukoek, gurasoek), komunikabideak, zale aktiboak eta kulturarekiko herritar pasiboak, bila joan gabe ere, kultura espagnol, frantsez eta angloxari buruzko edukiak jasotzen dituztenek.



Elkar elikatzen dugun eragileek osatzen dugu ekosistema, eragile biziak gara, etengabe eraldatzen ari garenak, etengabe egoera berrietara egokitzen ari garenak. Eta egokitu, denok batera egin behar dugula iruditzen zait, ez soilik norbere beharrianen arabera ez bada ekosistemak, bere osotasunean dituen beharrianetara. Dagigun ariketa: zerrendatu ditzagun Euskal Herrian kultur sormenerako ditugun guneak eta aztertu ditzagun euskal kulturgintaren ekosistemaren baitan betetzen duten funtzioaren arabera. Berbarako, zein alde dago, Dantzerti, Musikene, Arte-Ederretako fakultatea, Artium, Azkuna Zentroa, Tabakalera, Guggenheim, Kultur Etxe publikoak, musika eskola publikoak, musika eskola pribatuak, trikitixa eskolak, dantza taldeak, dantza eskolak, bertso-eskolak, irakurle taldeak, margolaritza tailerrak, Azala espazioa, Ehuntze Espazioa, Baratz, ArTgia, Dinamo sormen gunea, Larralde, Luhuso, Oihaneder euskararen etxea, gaztetxeak, Fagus Alkiza, Lekuona Fabrika, ADEL, Astra, LABA edota Faktoriaren artean? Guztiek diote kultur sormena sustatzen dutela, baina, zerk ezberdintzen ditu?

Pentsatzen eta sentitzen duguna kultur adierazpide baten bitartez sortzeko hautua egiten badugu aurrez beste norbaiti horixe bera egiten ikusentzun diogulako da. Inor ez gara zerotik hasten. Sortzaile guztiok gara aurretik sortzaile

izan direnen zordun. Sortzaile guztiok gara aurretik sortzaile izan direnen lanak programatu dituztenen, zordun. Sortzaile guztiok gara aurretik sortzaile izan direnen lanak helarazi dizkiguten komunikabideen zordun. Sortzaile guztiok gara aurretik sortzaile izan direnen lanak ezagutarazi, gozarazi eta maitarazi dizkiguten hezitzaileen zordun. Horrek bihurtzen gaitu ekosistema, elkar elikatze horrek.

Elkar elikatzen dugun eragileek osatzen dugu ekosistema, eragile biziak gara, etengabe eraldatzen ari garenak.

Zerrendatu ditzagun Euskal Herrian kultur sormenerako ditugun guneak eta aztertu ditzagun euskal kulturgintaren ekosistemaren baitan betetzen duten funtzioaren arabera.

Sortzaile guztiok gara aurretik sortzaile izan direnen zordun.



Sormena, plazak, komunikazioa eta transmisioa modu sinkronizatu batean eta ekosistema gisa jorratzen ez baditugu, nekez eutsiko diogu kultura espainol, frantses eta ingelesdunaren erauntsiari.

Azpiegitura duina eta programatzeko dirua izateak bermatzen digu kultur-etxeak zalez betetzea? Liburu onak idazteak berez dakar irakurle berriak sortzea? Hezkuntza arautuan lanean diharduten hezitzaileek ez badute euskal kulturagintzari buruzko formakuntza iraunkorrik jasotzen nola transmitituko dute euskaraz sortzeko grina? Sormena, plazak, komunikazioa eta transmisioa modu sinkronizatu batean eta ekosistema gisa jorratzen ez baditugu, nekez eutsiko diogu kultura espainol, frantses eta ingelesdunaren erauntsiari. Euskal kulturagintzak plazak behar dituela diogunean, zera esan gura dugu:

- Euskal herritarrok euskarazko sormen lanak ikusentzuteko elkargune fisiko eta iturri birtualak behar ditugu.

- Sortzaileok, sormenerako gune eta bitarteko fisiko eta birtualak behar ditugu: lan egiteko, esperimentatzeko, hanka sartzeko, txarto egiteko, beste adierazpide batzuetako sortzaileekin aritzeko, ikertzeko, ikasteko, desikasteko, berrasmatzeko.

- Sortzaileok, gure sormen lanak erakusteko espazio fisiko nahiz birtualak behar ditugu. Euskal Herri osoko espazio fisikoetan (areto itxi publiko eta pribatuetan edo bestelakoetan) eskaintzen diren kultur ekoizpenetan euskarazkoak gutxiengo dira. Kultur programaziorako diruetatik



Argazkia: Mikel Ibarluzea Barruetabeña

gehiena erdaretako kultur eskaintzara bideratzen da, batez ere hiriburuetan.

- Euskaldunon herria eta komunitatea trinkotzeko elkarguneak behar ditugu.

Arestian aipatutako kultur gune edo plazen zerrendari erreparatzen badiugu, alde handia igarriko dugu batzuen eta besteek kulturagintza bizitzeko dituzten irizpideen artean. Erakunde publikoen menpe dauden kultur gune gehienetan legegintzaldiz legegintzaldi aldatzen den arduradun politikoaren alderdiaren irizpideak dira

nagusi, teknikarienekin batera edota deman. Ikuskizunak programatu ohi dituzte, arrakasta mediatikoarekin estuki lotuak, alegia, aretoa bete edo ia beteko duenik nekez programatzen dute, eta beti ere aurrekontu publikoaren arabera.

Erakunde publikoen menpe dauden kultur gune gehienetan legegintzaldiz legegintzaldi aldatzen den arduradun politikoaren alderdiaren irizpideak dira nagusi.

Ondo ikasi dugu urteotan guztiotan kulturara, are euskarazkora, erakunde publikoetako aurrekontuetatik zenbat bideratzen den. Lehenengo garrantzisa denerako bideratuko ditugu sosak eta soberan geratzen dena, kulturarako. Herri gisa kulturgintzarekiko dugun desatxikimendu horrek ekarri du, besteak beste, 2008ko krisiaren aurretik euskal sortzaileentzat urteroko plaza ziren kultur-etxeetako gehienek programatzeari utzi izana. Azpiegitura duina duten makina bat areto ditugu Euskal Herrian aramu sareek estaltzekotan.

Badira salbuespenak, badago ekosistema gisa, tartean erakunde publikoak daudela, kulturgintza jorratzerik, herrigintzatik eta auzolanean. Azpeitia dugu bat, aitzindaria eta oso aurreratua (ikus www.kulturaz.eus). Euskaratik eta euskaraz, kulturgintzatik, sormenetik, urte gutxiren buruan herria eraldatu duen eta etengabe eraldatzen ari den egitasmo bizia, urtez urte hazten ari dena. Azpeitiko ereduak Euskal Herri osoko herri guztietarako balio du? Bere horretan, ez noski, baina marko teorikoak bai, balio du: tokian tokiko kulturgintzaren ekosistema osatzen duten eragileen arteko bilguneak. Azpeitiri ikasitakoa norbere galbahetik iragazitakoarekin ari dira Oñatin, Larrabetzun, Lesakan edota Errenterin eta hauspoa puzka hasi da Usurbil, Bergara eta Urretxu-Zumarragan, erakunde



publikoak bidelagun, ekosistemako eragile diren heinean.

Horrek ez du esan gura erakunde publikoak ezinbestekoak direnik, itzalita dagoen gaztetxeen sumendiak urteetan erakutsi zigunez edota berriki sekulako poza eta ilusioa sortu dizkiguten bi egitasmok frogatzen dutenez: Laudion kokatuta dagoen Aiaraldea Ekintzen Faktoria (www.faktoria.eus) eta Iruñeko Gaztelu plazan zabalduko duten LABA (www.laba.eus). Biek ala biek, euskaratik eta euskaraz, errealitatea eraldatzeko egitasmoen bilguneak izateko helburuz jaio dira. Bi plaza berri dira euskal kulturgintzarentzat baina ez dira erakusleiho huts, ez dira oholtza berri bat soilik. Biek ala biek dute kulturgintza elkarrekin bizitzeko dugun modu hau eraldatzeko ezinbestekotzat. Ikuskera hori da euskal kulturgintzak amestu dezakeen plazarik zabalena.

Azpiegitura duina duten makina bat areto ditugu Euskal Herrian aramu sareek estaltzekotan.

Azpeitiri ikasitakoa norbere galbahetik iragazitakoarekin ari dira Oñatin, Larrabetzun, Lesakan edota Errenterin eta hauspoa puzka hasi da Usurbil, Bergara eta Urretxu-Zumarragan.

Horrek ez du esan gura erakunde publikoak ezinbestekoak direnik, itzalita dagoen gaztetxeen sumendiak urteetan erakutsi zigunez.

Fundamentos socio-tecnológicos para la cibersoberanía



En las últimas décadas se han acelerado fenómenos como la globalización, la precarización global, la privatización de la democracia, el agotamiento de los combustibles fósiles, el cambio climático, la crisis de la vigilancia... En medio de todo ello el enorme desarrollo tecnológico ha dado un salto cualitativo en el último siglo. Esto ya ha suscitado muchas preocupaciones en todo el mundo: ¿A dónde nos lleva la digitalización? ¿Qué cambios traerá a la democracia y a su materialización? ¿Cambiará el ámbito laboral y educativo? ¿Qué consecuencias tendrá la digitalización desde el punto de vista de la sostenibilidad? ¿Estamos ante un cambio brusco en la forma de relacionarnos con el ser humano? En definitiva, ¿estamos ante un salto en la época que va a cambiar la humanidad?

Quienes presentamos este manifiesto creemos que el reto digital es uno de los principales retos del siglo XXI. Pero no somos tecnófilas ni tecnófobas. Creemos que la tecnología puede utilizarse a favor de las élites financieras, pero también puede estar al servicio de la sociedad. La cuestión es muy compleja y afecta al menos a cuatro ámbitos: el democrático, el laboral, el educativo y el propio ser humano.

Democracia digital

La digitalización ha influido en la naturaleza del poder político, de la forma de trabajar, de la gobernanza y de las instituciones locales y privadas, modificando la propia estructura de la sociedad. La tecnología ha aportado servicios eficientes y cercanos tanto al mercado como a la gestión ciudadana, pero al mismo tiempo han reforzado el capitalismo global basado en la acumulación de datos, privatizando las estructuras digitales. Las nuevas tecnologías, y la brecha digital, tienen un impacto sobre todo en los modelos sociales y de democracia y ciudadana actuales, que se han convertido en condición para ser decisorios con derechos ciudadanos. Por lo tanto, es imprescindible que los recursos y servicios digitales sean comunes: más que al servicio de los mercados, ya que se trata de una tecnología al servicio de la sociedad.

Reflexión sobre el trabajo y la robotización

En los últimos años, el capital ha acelerado la digitalización dirigida con dinero público para aumentar los beneficios, reforzando el monopolio tecnológico, extendiendo el capitalismo de plataforma, aumentando la pérdida de puestos de trabajo y el deterioro de las condiciones de trabajo, extremando el control sobre los trabajadores, multiplicando los riesgos psicosociales. También en este ámbito, creemos que estas herramientas y procesos deberían ponerse en beneficio de las vidas dignas y colectivas, extendiendo la robotización al ámbito de los cuidados, combinando la automatización con la reducción de las horas de trabajo.





Digitalización de la educación

Desde finales del siglo XX la educación está inmersa en una profunda transformación sobre dos ejes: la educación en competencias y competencias. La digitalización ha llegado a las escuelas y se han puesto en peligro los pilares del modelo antiguo, con el desarrollo y difusión de las TIC. Además de poner patas arriba la transmisión de contenidos, esto ha traído nuevas vías y lenguajes de relación con el entorno, con consecuencias aún difíciles de evaluar en el desarrollo cognitivo y en el proceso de maduración de los jóvenes. Se ha generalizado la esfera digital de la educación y se han producido nuevas preocupaciones, por ejemplo, en lo que respecta al sujeto del entorno digital y a la garantía del derecho a la educación. La digitalización plantea nuevas preguntas para responder a los viejos retos también en la educación.

Humanidades digitales

La Humanidad Digital se basa en el cruce entre las tecnologías de computación y las disciplinas de las humanidades. A pesar de ser un término de moda, utilizado por corporaciones gigantes, nos parece que el concepto hecho y pensado desde Euskal Herria tiene grandes posibilidades. Esta cuestión nos interpela en profundidad: ¿qué supone pensar en el conocimiento, la creación y la cultura desde nuevos y cambiantes recursos y capacidades tecnológicas? ¿Qué implicaciones tiene en los procesos subjetivos? ¿Qué implicación en los ámbitos de memoria, historia, patrimonio, lengua, educación e investigación? Este amplio campo de preguntas incómodas nos lleva a pensar en la infraestructura tecnológica y energética, los límites y horizontes éticos de la investigación y el conocimiento, la creación y los creadores, el uso de la información para guardar e interpretar, y otros retos.

¿Qué hacer?

Teniendo en cuenta estos cuatro ámbitos, nuestro objetivo con este proyecto es plantear el reto de este asunto y abrir un debate. Queremos pensar en una tecnología al servicio de una sociedad basada en la soberanía y la democracia radical. Porque la tecnología no es neutral, sabemos en manos de quién está y en beneficio de quién se ha puesto, pero no nos negamos a poner este proceso a nuestro favor para luchar por una sociedad con una vida digna. Por tanto, llamamos a pensar y abrir una alternativa al capitalismo digital, es decir, a articular una red que analice, plantee y haga propuestas de acción sobre las principales claves del debate.

Este manifiesto es sólo un punto de partida.

DOSIERRA:

D₁ ”

erreportajea:

ERRIA

Ze polizia dugu? Ordenaren zaindarien desordena

D₂ ”

erreportajea:

ERRIA

¿Quién manda actualmente en la Ertzaintza?

D₃ ”

erreportajea:

ERRIA

Polizia eredu demokratiko eta komunitariorantz

D₄ ”

elkarrizketa:

COMPAÑEROS/AS DE MLN - TUPAMAROS

“Es parte de nuestra identidad y fortaleza
asumir el peso de las tareas y no
escondernos detrás de posturas cómodas”

D₅ ”

erreportajea:

ELENA BELOKI RESA. IRATZAR FUNDAZIOKO KIDEA

Ipar Irlandako polizia erreforma: kontrol demokratikoa eta komunitatea ardatz

EUSKAL HERRIAK
BEHAR DUEN
POLIZIA EREDUAZ

Ze polizia dugu?

Ordenaren zaindarien desordena

1

Erria

ARGAZKIAK: Foku

Auzi batzuei patxadaz begiratzea konplikatua izaten da, bizipenek gorputzak zeharkatzen dizkigute eta posizio gotortuak indartzen dira. Horietako bat da poliziaren auzia. Segurtasuna eta polizia auzi arantzatsuak izan ohi dira ezker eraldatzaileentzat. Baina gurea nazio askapenerako mugimendua izanik, ezinbestean heldu beharreko enborra da, arantzek eskuak ziztatzen badituzte ere. Erreportaje honen asmoa, gaur Euskal Herrian ditugun polizia autonomikoen ereduen analisi bat egitea da, jakinik ez dela osoa eta ertz gehiago dituen eremua dela.

D₁



Segurtasunaren ikuspuntu autoritario eta neoliberalak, neurri errepresiboetan, indarrean eta zigorrean jarri du arreta, prebentziorako inteligentzia jarri beharrean.



Segurtasunaren ikuspegi murrizta eta gobernu eredu autoritarioak

1980ko hamarkadan Estatu Batuetan “leiho hautsien teoria” gisa ezagutzen den esperimientua gauzatu zen. Teoria horren arabera, hiri, auzo edo kale bateko desordenak lotura zuzena du delituarekin. Inguru urbanoak baldintza onetan mantentzeak, bandalismo eta kriminalitate tasa txikitzen du. Denbora luzez aparkatuta dagoen auto bati leiho bat hautsi eta egun gutxiren buruan konpontzen ez bada, hurrena beste kristal bat hautsiko diote, ondoren gorpilak zulatu, motorreko piezak ebatsi... autoa desegin arte. Aldiz, leihoa konpondu ezker, gainontzeko guztia ez litzateke gertatuko.

Adibide horrekin prebentzio politikak duten garrantzia azpimarratu nahi da. Egundagintariaren artean gailendu den segurtasunaren ikuspuntu autoritario eta neoliberalak, neurri errepresiboetan, indarrean eta zigorrean jarri du arreta, prebentziorako inteligentzia jarri beharrean. Gainera, segurtasunaren auzia kaleko kriminalitatara mugatzen dute. Zerbaitengatik

daude kartzelak pobrez beteta eta ez marrazoz.

Agenda sekurokrataren adibide gordinak dira Iñaki Azkuna eta Juan Mari Aburto Bilboko alkateak. “Legea betetzeko da”, “zero tolerantzia”, “egiten duenak ordaindu egiten du” eta “guerra al navajero” bezalako adierazpenetan laburbildu daiteke politika autoritario hori. Horren arabera, segurtasunaren auzia prebentzioan ez, polizia gehiago eta hobeto armatuak izatean datza.

Ikuspuntu punitibo horrek, arazoak konpondu beharrean larriagotu egiten ditu ordea. Helburua delituaren unea eta zigor judizialaren arteko aldea ahalik eta txikiena izatea da; berdin dio zer nolako arau haustea egin den, ez da testuingurua kontuan hartzen. Pertsona hori bergizarteratzeko bideak eskaini beharrean, zigorrak delituen errepikapenaren espiralean sartzea bultzatu lezake.

Prebentzioaren ikuspuntutik, segurtasuna ez da poliziaren auzia soilik. Bestelako diziplinek zeharkatzen duten auzia da: hirigintza, hezkuntza, gizarte zerbitzuak,

ongizatea eta feminismoa besteak beste. Batetik, neoliberalismoak areagotzen dituen ezberdintasun sozialak eta ekonomikoak baitaude delitu askoren oinarrian. Bestetik, patriarkatuak eragindako eraso matxistak daude, gizon txuri hegemonikoa ez den pertsona ororen aurkako biolentzia egiturazkoa.

Prebentzioaren ikuspuntutik, segurtasuna ez da poliziaren auzia soilik. Bestelako diziplinek zeharkatzen duten auzia da.



Ertzaintza eta Foruzaingoa, polizia integralak?

Sarri entzun izan ditugu Eusko Jaurlaritzako agintariak Ertzaintza polizia integrala dela aldarrikatzen, baina hala al da? Poliziaren integraltasun hori, masak kontrolatzeko unitatea edo brigada mugikor gisa ezagutzen dena izatearekin lotu izan dute.

Ertzaintzak eta Foruzaingoa gaur egun ez daukate lurraldearen kontrol erabatekorik. Segurtasun publikoa Espainiar Konstituzioaren arabera, Estatuaren eskumenekoa da.

Hasteko, Euskal Herriko poliziak integralak izatetik urrun daude ordea. Ipar Euskal Herrian ez dago bertako polizia unitaterik, udaltzainez harago. Ertzaintzak eta Foruzaingoa ere gaur egun ez daukate lurraldearen kontrol erabatekorik. Segurtasun publikoa Espainiar Konstituzioaren arabera, Estatuaren eskumenekoa da nahiz eta botere autonomikoarekin banatzen den eskumen sorta bat dagoen. Aldiz, ez dago polizia autonomikoen eskumen eskusiborik, bai ordea Estatuaren segurtasun indarren eskumen eskusiboak. Horrek polizien eskumenen kudeaketaren argazki erabat kaotikoa ematen digu.

Adibide praktiko batera joz, Guardia Zibilak zein espainiar

Polizia Nazionalak nahi dutenean jarri ditzakete errepede kontrolak, Segurtasun Sailei abisurik pasa gabe. Eusko Jaurlaritzak berak salatu du espainiar segurtasun indarrek azken aldian, ikusgarritasun handiagoa izateko xedez, euskal administrazioenak diren zenbait konpetentzian muturra sartzen ari direla. Lurraldearen kontrolerako funtsezkoak diren mugen kontrola, aire espazioa eta itsas erreskateak espainiar eta frantziar polizien esku daude. Polizia Judizialaren unitate Organikoa ere estatuko polizia indarren eskuetan dago.

Horrez gain, etorkizun hurbilean gero eta garrantzia handiagoa izango duten hainbat unitate espezializatu Polizia Nazionalaren eta Guardia Zibilaren esku daude.

Esanguratsua da, esaterako, ingurumen delituen kasuan ia eskumenik ez duela Ertzaintzak eta ez da ageri egungo gobernuaren lehentasunen artean. Talde ekologistek halakoetan Sepronarekin egiten dute lan. Antzera gertatzen da delitu informatikoekin (pederastia eta antzeko delituak barne) eta delitu ekonomikoekin (ustelkeria kasuak eta abar).

Nafarroan egoera are okerragoa da. Foru Erkidegoak duen autogobernu maila kontuan izanda, ez da Foruzaingoa Polizia Integrala izateko garapen egokirik eman besteak beste eskuinak ez duelako nahi izan. Funtzioen bikoizketa orokorra da eta Foruzaingoaren eskuduntzak eta efektibo kopurua handitzen ez diren bitartean, espainiar Estatuko segurtasun indarrek betetzen dituzte de facto funtzio horiek. Egun Nafarroa Garaian 1080 Foruzain daude, 1700 Guardia Zibil eta 700 Polizia Nazional 650 dira udaltzainak baina 270etik 15 herrik soilik dituzte polizia propioak. Gainontzeko udalerriak, txikiak izanik, ez dute gaitasunik segurtasun zerbitzua eskaintzeko eta beraz Foruzainek edo Guardia Zibilak betetzen dituzte funtzio horiek.

2011n Foruzain kopurua 2.200 efektibora igotzea adostu zen. Aldaketaren gobernuak hiritarren segurtasuna, ikuskizun publikoak, ingurumena eta trafikoaren eskumenak, besteak beste, modu eskusiboan eskuratzea planteatu zion Espainiako Gobernuari baina ez zuen erantzunik jaso. Estatuaren aldetik eskumenen inbasioa etengabea da EAEn bezala. Bide segurtasunarena aldarrikapen historikoa da Nafarroan. Guadia Zibilaren trafiko unitatea

egitatez ezarri zuen frankismoak 1959an. 2018an trafiko eskumenaren eskusibitatea Foruzainei ematearekin batera, pasarela poliziala ezarri zen. Hala, institutu armatuko trafiko unitateko agenteek zuzenean Foruzaingora pasatzeko aukera izango lukete. Momentuz ez da gauzatu arazo ekonomiko bat tarteko. Izan ere, Guardia Zibilak baldintza ekonomiko hobeak ditu Nafarroako poliziak baino.

EH Bilduren esanetan, eskumenen eskusibitatea eta Foruzain kopurua 1500-1700 efektibora igotzea, Estatuko segurtasun indarren erretiratzearekin batera gauzatu behar da.

Bestetik, kriminalitate tasa oso txikia izanda ere, Euskal Herriak Europako polizia ratioirik handienetakoa izaten jarraitzen du, 7 polizia mila biztanleko. Montenegroren ostean (8,8) ratio handiena da, Europako batz bestekoa 3 poliziakoa denean mila biztanleko. Are, iparraldeko herrialdeetan 1,5ekoa da. 20.000 polizia daude Euskal Herrian, Europako batez bestekoaren arabera, 6000 aski lirakeenean.

Ingurumen delituen kasuan ia eskumenik ez du Ertzaintzak eta ez da ageri egungo gobernuaren lehentasunen artean.

Eskumenen eskusibitatea eta Foruzain kopurua 1500-1700 efektibora igotzea, Estatuko segurtasun indarren erretiratzearekin batera gauzatu behar da.



Gardentasun falta izugarria da; ez dute inoiz esan ze perfil bilatzen diren eta ze irizpideren arabera hartzen den “gai” agente bat.

Arkauteko akademia eta trokeleko poliziak

Bi polizia eredu unibertsal daude; “postaria” eta “suhiltzailea”. Lehenak, gertukoa da eta prebentzioan jartzen du indarra. Bigarrenak, iritsi, sua itzali eta ospe egiten du ondorioei erreparatu gabe. Lehenak, arazoen aurrean, eskuak gorputzetik aurreratu eta mediaziorako borondatea azalduko du. Bigarrenak eskua zuzenean gerriko borrarara edo pistolara eramango du. Argi dago

hemengo agintariek zeren alde egin duten.

Ertzaintza ez da euskal jendartearen isla. Ze jende mota sartzen da egun polizian? Zein dira agente bat “gai” jotzeko irizpideak? Ikasleek proba ezberdinak gainditu behar izaten dituzte. Atal psikoteknikoan, inteligentzia neurtzen duten probak daude batetik. Nortasuna neurtzen duten probak daude bestetik. Gardentasun falta izugarria da; ez dute inoiz esan

ze perfil bilatzen diren eta ze irizpideren arabera hartzen den “gai” agente bat.

Polemikoena, ordea, soziograma deritzon froga da. Akademiaren ereduaren oinarrituta dago eta salatari izatea da bere funtsa. Guztira 300 puntu atera daitezkeen lau bloke dira. Horien artean, norbere ikaskideen iritziek 65 puntu balio dute. Ikasleei galdetzen zaie norekin patruilatuko luketen, norekin

ez lioketen aurre egingo arrisku egoera bati eta abar. Ertzaintzako ahots kritikoek esan izan dute proba horrek kide jakinei kalte egiteko “aliantza perbertsoak” eratzen dituela. Halako zerbait gertatu zen XXVII. promozioan bi neskarekin. ELAK salatu zuenez, “gauza larriak” ari ziren gertatzen eta zuzendu ezean generoagatiko edo hautu sexualagatiko diskriminazio kasuak gerta zitezkeen. Akademiak ez zuen neurririk hartu eta azkenean, kideen iritziengatiko puntuazioa medio, bi neska “ez gai” gisa kalifikatu zituzten lesbianak izateagatik. Sindikatuak salatu du soziograma, “ korporatibismoa eta kideen arteko mesfidantza elikatzen duen eta poliziagaien

isilpeko ezabapena bilatzen duen ‘gran hermano’ modukoa dela eta generoa, aniztasun sexuala, jatorri politikoa eta abarregatiko diskriminazio joera ekar dezakeela.” Beraz, akademia ez, eskola da behar dena.

Bestetik, legeak erakusten dira, arau horiek nola aplikatu ez ordea. Legearen interpretazio estu eta itxiak arazoak areagotu egin ditzake, pandemian behin baino gehiagotan ikusi dugunez. Gertutasuna eta enpatia bilatze aldera eta zigorraren kulturatik aldentzeko, ezinbestekoa da arauak testuinguruan jarri eta unearen arabera, pertsonen egoeraren arabera malgutasunez jokatzeko jakitea. Bi printzipio

mota daude: legezkotasun printzipioa, zuzenbide erromatarrean oinarritua. Legea betetzeko da eta kito. Bestea, abagunearen printzipioa; pertsona eta testuingurua aztertzen da, zigorra jartzea okerrago izan daitekeelako. Bigarren hau aplikatzean poliziak zentzuz jokatzen du. Glasgowko poliziak hala egin zuen esaterako, etorkin batzuk kanporatzeko atxilotu zituenean. Ehunka herritarrek etorkinak ez kanporatzeko herri harresia eraiki zuten. Poliziak, bortizki kargatu beharrean arazoa areagotuz, alde egitea erabaki zuen. Abagunearen printzipioa. Ertzaintzak jarrera bera izan zuen Athleticeko zein Realeko jokalaria euren entrenamendu



zelaietatik finala jokatzeko irten zirenean edo martxoaren 8an Tubacexeko langileek eta mugimendu feministak egindako eserialdian. Ez aldiz, langile horiek berak Eusko Legebiltzarrera joan zirenean edo Ernaitzen mobilizazioetan, esaterako.

Ezker abertzale ilegalizatuarekin, Rodolfo Ares Segurtasun Sailburu zela, 15/2012 Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko legea onartu zuen EAeko Legebiltzarrak. Hor, Euskal Herriko Poliziaren Akademia zena, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia bilakatu zen. Arkauten zentralizatu zituzten segurtasunarekin zerikusia

duten zerbitzuak eta ikastaroak: ertaintza, udaltzaingoa, suhiltzaileak, larrialdi zerbitzuak, suzko zezanak, basozaintza, segurtasun pribatuko langileak eta babes zibilekoak besteak beste. Antzeko zerbait egin zuen Nafarroako Gobernuak 2005ean polizia eskola, Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskola bilakatuta.

2012ko lege horretan bertan hartutako beste neurri batzuekin batera, segurtasunarekin lotutako eremu guztiak zentralizatu zituzten, antolaketan eta kudeaketan Segurtasun Sailari zentralitate osoa emanez eta udalei eskumenak kenduz; EAJ eta PSEk abian jarri dute

Udaltzaingoen Miñonizazio prozesua. Ikastaroen kalitatean beherakada handia gertatu da horren ondorioz, babes zibileko boluntariorik ere eraginez. Erabaki horren atzean ordea, poliziaren eta babes zibilaren gaineko kontrol osoa izateko desioa dago eta kontrol hori, akademiatik hasten da. Horrek, gertuko polizia izatearen ikuspegian, arazoak eragin ditu ordea.

Ertzaintzako ahots kritikoek esan izan dute soziogramak kide jakinei kalte egiteko “aliantza perbertsoak” eratzen dituela.

Bi printzipio mota daude: legezkotasun printzipioa, zuzenbide erromatarrean oinarritua. Legea betetzeko da eta kito. Bestea, abagunearen printzipioa; pertsona eta testuingurua aztertzen da, zigorra jartzea okerrago izan daitekeelako.

2012an segurtasunarekin lotutako eremu guztiak zentralizatu zituzten, antolaketan eta kudeaketan Segurtasun Sailari zentralitate osoa emanez eta udalei eskumenak kenduz.





Argazkia: Joseba Benito del Valle

”
D₁

Azken urteetan EAJk zein PSEk hartutako erabaki guztiek, polizia herritarrengana hurbildu baino, urundu egin dute.

Gertuko polizia?

Estefania Beltran de Heredia Segurtasun Sailburuak egindako 2013-2016 Plan Estrategikoak ez zuen ezta lehen ardatza ere bete: errekonozimendu sozial eta profesional handia lortzea, hurbiltasun eta eraginkortasunagatik.

Azken urteetan EAJk zein PSEk hartutako erabaki guztiek, polizia herritarrengana hurbildu baino, urundu egin dute. Ez Ertzaintza bakarrik, baita udaltzaingoa ere. Ertzaintzan, makrokomisaldegien ereduia sustatu dute, erabakiguneak lausotuz eta kontrol politikoari eta herritarrari hesiak jarriz. 2012ko legean, eremuko Ertzaintzako Nagusia, herriko udaltzainburua eta alkatea biltzen zituzten Tokiko Segurtasun Kontseiluak desegin zituzten. Herritarrek ere parte hartu zezaketen, euren kexak azaltzeko. Kontseilu horiek, egin beharreko operazioen kudeaketa irizpide politiko batzuen arabera egitea ahalbidetzen zuen.

Egun, Tokiko Polizia-Koordinaziorako Batzordea dago. Marko hori Ertzaintzako zuzendaritzak deitu dezake, edo bi alkatek. Horrek ertzainak boteretzen ditu eta alkateei eskumenak kendu. Ertzainen gaineko kontrola txikitzen du, nahi dutena egiten dute eta kontu emateak lausotu.

Bestetik, makrokomisaldegien eredu horren ondorioz, ertzainak gaur Ondarroako komisaldegitik Gernikara doaz, Azkoitiakotik Zarautzera, Bergarakotik Zumarragara eta gainera egun

bakoitzean agente ezberdinak bidaliko dituzte herri bakoitzera. Beraz, herri bakoitzeko jendearen eta idiosinkrasiaren ze ezagutza dago hor? Ze gertutasun? Eskasa.

Arkauten ertzainen eta udaltzainen formazioa zentralizatzeko hartutako erabakiak ere bere ondorioak ditu, herri txikien kaltetan batez ere. Udalek hautatu egin dezakete Enplegu Publikorako Eskaintza propioak antolatu nahi dituzten udaltzainak hautatzeko, edo Arkautetik bideratu nahi duten. Arkauteko deialdietan izena ematen duten gehienak Bilbo handiko gazteak dira. Behin polizia gisa gaituta, agenteek libre dauden plazen arabera hautatu dezakete nora joan nahi duten

ertzain edo udaltzain gisa. Lehenengo Bilbo hautatzen dute gehinek. Bigarren aukera gisa beste herri handi batzuk dira erakargarrienak: Getxo, Durango, Gasteiz... Herri txikietako plazak sekula ez dira betetzen. Plazak bete ahala erortzen joango dira, azkenean batere interesatzen ez zaizen herri txiki batean amaitu arte lanean, hurrengo enplegu publikoko eskaintza batean mugituko den esperantzaz. Edo ertzain izan nahi zuen batek udaltzain amaituko du, berak nahi zuen herrian geratzeko aukera hori zuelako, edo udaltzain izan nahi zuen batek ertzain amaituko du arrazoi beragatik. Horren ondorioz, udaltzain izateko bokazioa duten perfil jakin bateko gazteek, uko egiten diote aurkezteari.

Hizkuntza eskakizunek ere berebiziko garrantzia dute gertutasunaren ikuspuntutik. Gaur egun, Nafarroan ez dago euskararen ezagutza eskakizunik. B2 maila eskatzen da EAEn plaza perfilatueta (erdiak gutxi gora behera). Beste erdietan, ez da eskatzen euskara jakitea, nahiz eta puntuak ematen dituen. C1 maila nahitaezkoa jarriko balitz, hizkuntza eskubideen defentsan aurrera urrats izugarria emateaz gain, polizian sartzen direnen perfila ere asko aldatuko litzateke.

Arkauten ertzainen eta udaltzainen formazioa zentralizatzeko hartutako erabakiak ere bere ondorioak ditu, herri txikien kaltetan batez ere.

C1 maila nahitaezkoa jarriko balitz, hizkuntza eskubideen defentsan aurrera urrats izugarria emateaz gain, polizian sartzen direnen perfila ere asko aldatuko litzateke.



D₁


Europako
beste
herrialde
batzuetan suzko
armen erabilera
murritzeko joera
dagoen bitartean,
hemen kontrako
norabidea daramate
agintariek.

Polizia militarizatuak

Segurtasunaren ulerkera sekurokratak eta disidentzia politikoaren aurkako borrokak poliziaren militarizazioa bultzatu du. Hasi uniformearen itxuratik eta armen erabilerara. Beste herrialde batzuetan ez bezala, Euskal Herrian polizia guztiek armak eramateko joera gero eta handiagoa da. Hala egiten dute ertzain guztiek, eta 2012az geroztik, udaltzaingoak ere arrisku bera du. Ordutik, Segurtasun Sailak dekretu bidez agindu dezake udaltzainek

ze uniforme erabili behar duten, ze arma eta abar, nahiz eta, uniformearen kasuan ez den derrigorrezkoa dekretua betetzea, Donostia kontra atera zelako. Europako beste herrialde batzuetan suzko armen erabilera murritzeko joera dagoen bitartean, hemen kontrako norabidea daramate agintariek. Udaltzainen suzko armen dekretua lantzen ari da EAEko Segurtasun Saila. Armak eman nahi zaizkie tokiko idiosinkrasia, kriminalitate tasa eta abar kontuan izan gabe.





Galdera handira egin beharra dago. Beharrezkoa al da Brigada Mugikorra polizia integrala izateko?

Brigada Mugikorra. Zer egin?

Arazo handia du herri honek Ertzaintzaren Brigada Mugikorra edo "Beltzekin". Gatazka politikoaren urterik gordinenetan ikusi zen haien bortizkeria. 2012an, Iñigo Cabacasekin gertatu zena ere denok dugu gogoan. Aldiz, ez da inongo depuraziorik ez ardura hartzerik izan. Korporatibismoz elkar babestuz omertá aplikatu dute eta hala polizia gehiegikerietarako inpunitatea areagotu. Urteen poderioz, gero eta munstro handiagoa elikatu dute agintariekin eta udaltzainetan ere halako unitateak sortzeko tentazioa handia izaten da, nahiz eta eskumenik ez izan.

Azken urteetan nabaria izan da unitate espezializatu horretan ultraeskuineko elementuen infiltrazioa. Hor daude, esaterako, "Eskerrik Asko"

bezalako elkarte espāñolista eta ultrak. Segurtasun Sailaren baimenaren aurka, hildako kideei omenaldiak eginez, Segurtasun Sailari nork agintzen duen argi uzteko. Deigarria da unitate hau handitu eta handitu ibili diren bitartean, nola beste unitate espezializatu batzuetan murrizketak egin dituzten: salbamendu unitatean gaueko txandak kenduz, adibidez.

Galdera handira egin beharra dago. Beharrezkoa al da halako unitate bat polizia integrala izateko? Badira herrialdeak halako unitaterik ez dutenak edo desegin dituztenak (Eskoia, Quebec, Irlanda...) edo unitate askoz txikiagoak dituztenak. Masen kontrolerako, pilotakadak eta bortizkeria ez diren estrategiak baliatu daitezke. Bitartekaritza unitate indartsu eta eskumenez hornitu batekin, inteligentzia

baliatuz, egoerak aurreikusi eta eragile inplikatuarekin hitz eginez alternatibak aurkitu daitezke, jokabideak adostu... Edozein kasutan, izatekotan bestelako agente perfilez osatua izan beharko luke; enpatikoa, eragileengana hurbiltzeko gaitasuna duena, elkar ezagutza sustatuz. Manifestarien artean "oreinak" ikusten dituenak ez du balio horretarako, noski, ezta "10 minutu dituzue eta bestela kargatu egingo dugu" bitartekaritza egitea dela uste duenak ere.

Masen kontrolerako, pilotakadak eta bortizkeria ez diren estrategiak baliatu daitezke, bitartekaritza unitate indartsu eta eskumenez hornitu batekin.

Zoritxarrez, gatazka klabeetan jarraitzen duen polizia eredia da Ertzaintza.

Gatazka politikoak zipriztindutako polizia eredia

Egun dugun polizia eredia aztertzeko ezin da albo batera utzi gatazka politiko-armatu baten ondorio ere badela egun dugun hau. Horren ondorio da gaur oraindik Espainiako Segurtasun Indarrek mantentzen duten presentzia. Elkarren jopuntuan egon dira ETA eta Ertzaintza ere.

Guzti hori alboratu gabe, borroka armatua behin betiko amaitu eta hamarkada batera, polizia ereduari dagokionez zein egoeratan gauden begiratzea da auzia. Zoritxarrez, gatazka klabeetan jarraitzen duen polizia eredia da Ertzaintza. Euskal jendarteko sektore jakin batzuekiko fijazioa eta kriminalizazioa nabarmenak dira.

Urte guzti hauetan ez da polizia ereduaren inguruko inolako berrikuspenik egin, ez bada inpunitatean sakondu. Sindikatu profesionalek duten jarrera sektarioa eta agintea arazo potoloak dira polizia demokratizatzeke [irakurri *¿quién manda actualmente en la Ertzaintza?* artikulua]. Cabacas auziaren ondoren, EAJ eta PSEk aukera paregabea izan zuten gauzak aldatzeko, baina ez ziren ausartu. Ordutik, indartu egin zaie ertzaintzako zenbait sektoreri edozer eginda ere, ezer gertatuko ez zaienaren ustea.

Gardentasun falta ere itzela da. Erandioko eta Oiartzungo makrokomisaldegietan leihoak ireki behar dira. Zertan ari diren fiskalizatu behar da. Euren jergan “Bermudetako Trianguloa” deitzen diete. Hor sartzen zara eta ez dakizu zer gertatzen den.

Ejertzitu prusiarrak Eliseo Zelaletatik desfilatzen hasiko dira. Asanblada nazionala Versallesen instalatzen da eta alokairuen luzamendua bertan behera uzten du. Gobernuak Guardia Nazionalaren kanoiak lapurtzen saiatzen da, baina Monstmartren operazioa deuseztuko da. Haserrea hiri osora hedatu eta matxinada orokor bat abiatuko da, gobernuak Versallesera ihes egiten duelarik. Guardia nazionala udalletxean sartzen da hiriko botere bakar bezala. Hurrengo egunetan Narbonne, Sain-Etienne, Marsella, Toulouse, Limoges eta Le Creusot-en (Borgoñan) komunak aldarrikatuko dira, baita Lyonen ere. Hauteskundeetan Komunaren aldekoek irabaziko dute (emakumeek ez zuten bozka eskubidea izango). 200.000 pertsonako manifestazio erraldoi batek Komuna kudeatuko duten pertsonen alde agertuko dira, eta Guardia Nazionalako Komite Zentralak dimittitu egingo du. 1870ko azarotik 1871ko apirilera arteko etxebizitzaren alokairuak barkatu eta ordurarte ordaindutakoak etorkizuneko alokairuen ordainketa bezala kontuan hartuko dira. Zerbitzu militarra eta ejertzitu permanentea ere indargabetuko dira.

Maiatza

Maiatza erdialdean Aste Odoltsuaren hasiera gertatuko da. Versalleseko ejertzitua Parisen sartzen da, eta komunak erresistentzia organizatua egiten duen arren, ez da nahikoa izango ofentsibari aurre egiteko. Atxilotuen exekuzio sumarioak hasiko dira orduan, eta Montmartre Versalleseko ejertzituak hartuko du. 147 atxilotu fusilatuko dituzte Père Lachaise hilerrian. Toki hori, Federatuen Horma bezala ezaguna izango dena, Komunako hildakoen omenezko leku bezala pasako da historiara. Hurrengo hilabetetan errepresio bortitza jazoko da, eta pertsona asko fusilatuko eta deportatuak izango dira.

1871

Otsaila

Erregimen napoleondarraren hondoraketa eta errepublikaren aldarriaren ondoren, Bismarcken gobernu prusiarrak hauteskunde deialdia exijituko du, bere baldintzak gobernu "legitimo" bati ezarri ahal izateko. Emaizak eskuinaren gehiengo absolutua emango dute, hauteskundeak urgentziaz egiteak ideia errepublikarrak jendartearen garatzeko zailtasunak probestuz. Asanblada nazionala (prusiarren baldintzak onartzearen aldekoa) eta Parisko herritarren zein hirien arteko (errepublikagatik borrokatzearen aldekoak) liskarra hasiko da orduan. Parisen, langile eta desjabetu klaseen independentzia aldarrikatzen duten kandidatuak aurkeztuko dira.

Apirila

Pribilegioei eta burokraziari aurre egiteko soldata maximoa ezartzen da. Elizaren eta estatuaren arteko banaketa ezartzen da, elizako ondasunak ondasun nazional deklaratu. Eskoletatik dogma eta irudi erlijiosoa kentzeko agiandua emango da ere. Familia guztiek, legitimoak izan edo ez, eskubide berberak dituztela aldarrikatuko da. Aurrerago, Emakumeen Batasuna sortuko da, Parisko hiriaren eta gerra zaurituen defentsarako. Ugazabek itxitako fabriken erregistroa egin eta horiek berriz irekitzeko plana ere burutuko da. Horrez gain, gaueko lana indargabetzen da, eta langileen esplotazio pribatuak diren baidendak itxi egingo dira.

Parisko Komunaren federalismo emantzipatzailea

1871ko martxoaren 18an hasi eta urte bereko maiatzaren 28 bitartean iraun zuen Parisko Komunaz zer dakigu? Emantzipazioaren historian gutxien ezagutzen dugun gertakarietako bat da.



Egoitz Urrutikoetxea. Iratzar Fundazioko kidea

Frantziako Errepublikaren historiografiak, Pariseko Komuna Estatu-nazio unitarioaren baitako aldaera errepublikarraren gertakari erradikal gisa asimilatu eta esplikatu nahi izan digu.



Pariseko komunako borrokalarien gorpuak. Versaillesko armadak fusilatu zituen 1871ko maiatzean Argazkia: André Disdéri, Wikimedia Commons

Frantziako Errepublikaren historiografiak, Parisko Komuna Estatu-nazio unitarioaren baitako aldaera errepublikarraren gertakari erradikal gisa asimilatu eta esplikatu nahi izan digu. Hots, 1789ko Iraultzarekin ezarri eta hirugarren Errepublikarekin egonkortu zen Frantziako komunitate nazionalaren ezaugarritze gorabeheratsuaren gertakari espontaneo gisa. Frantziako inperioaren gainbeherak, eta bereziki Alsazia eta Lorrenaren galerak sumindu zituen Parisko herritarren altxamendu soila.

Estatu administrazioaren ezintasunaren aurrean sortu ziren herritarren arteko elkar laguntza eta elkartasun sareak izan ziren, komunaren, udal autogobernuaren benetako ernamuinak.

Komuneroek beraien asmo askatzaileak gauzatzeko Estatuaren zentralizazioa eta forma burokratikoak baztertu zituzten.

Politika emantzipatzaileen laborategia

Alta, diskurtso ofizialak nekez estal dezake Parisko Komunaren itzal luzea. Era guztietako ekimenetan hain izan zen emankorra, non Komuna politika emantzipatzailearen laborategi berezi eta lilu-ragarritzat har daitekeen. Komuna, esperientzia demokratiko originala, errepublikaren balore askatzaileen baieztapena, elkarrekilakotasunean (reziprozitatean) oinarritzen den federalismoaren adibidea, emantzipazio sozialerako saiakera, utopia, erreferentzia matxinatua edo iraultzailea, hori guztia batera eta gehiago da.

Komunak 1830ean hasitako ziklo iraultzaile bat ixten du, eta 1848an jaiotako errepublika demokratiko eta sozial baten amets amaitu gabea sakontzen du. Komunaren pizgarria, gerla galdu izanaren (urtarrilaren 28ko armistizioa) umiliazio sentimendua baino, botere zentralaren aurkako herritarren sumindura izan zen. Inperioaren bukaerak Estatu egituraren gainbehera ekarri zuen berekin. Estatuaren tenporalitatea eten egin zen, Kristin Ross pentsalariak ongi asko adierazten duen bezala. Estatu administrazioaren ezintasunaren aurrean sortu ziren herritarren arteko elkar laguntza eta elkartasun sareak izan ziren, komunaren, udal autogobernuaren benetako ernamuinak.

Komunaren goiburuak, herriaren parte hartzea eta deszentralizazioa izan ziren. Parisko Komunak helburu nagusi bat finkatu zuen: hitza herriari ematea, hitza Komunari ematea. Komuneroek beraien asmo askatzaileak gauzatzeko Estatuaren zentralizazioa eta forma burokratikoak baztertu zituzten. Askatzaileak ziren antolakuntza eta egituratzeak lehenetsi zituzten, ordurarteko zentralismoa eta Estatu-nazioaren eredu hertsatzaileak baztertuz.

1 ROSS, Kristin, *L'imaginaire de la Commune*, La Fabrique, Paris, 2015



Napoleon I. aginduz eraikitako Vendôme Zutabea komuneroek eraitsita izen bereko plazan. Argazkia: Franck, Wikimedia Commons

Federalismo askatzailea

Gustave Courbet margolari-zizelkari eta ekintzailearen hitzek ongi laburbiltzen dituzte Pariseko Komunaren federalismoaren ezaugarriak: “Parisek uko egiten dio Frantziako hiriburu izateari”, “Frantziak ez zuen gehiago nahi Parisek bere Prefektuak (Gobernadoreak) igortzerik”.

Parisko Komunaren federalismoa elkarrekilatutasunean oinarritzen zen. Frantziako eskualde eta herriek bere eredu jarraituz gero, berdinen arteko federazio librearen indarrak sistema inposatzaileak, monarkikoak ala inperialistak, betiko geldiaraziko zituen itxaropena zuen Gustave Courbetek.

Parisko herriak nahieran antolatzeko askatasuna praktikan ezarri zuen, beste herri eta eskualdeen eskuartzea baztertuz erabat. Eta, aldi berean, Parisek uko egin zion Departamendu eta eskualde ezberdinetako aferetan sartzeari. Parisko Komunak Frantziako herri guztiei nahi zuten moduan antolatzeko deia zabaltu zien, beti ere herrien autonomian oinarrituz eta berdinen arteko harremanak errespetatuz.

Komunaren federalismoa, goitik behera eraikitako Frantziako Estatu nazioaren eredu uniformizatzaile eta hertsatzailearen ukazio erradikala zen. Parisko Komunak ordurarteko Estatuaren eta nazioaren erreferentzia guztiak baztertu zituen, biziraun zuen Estaturik gabeko tenporalitate laburrean aukeren leihorria zabaltuz.

Komunak Frantziaren bilakaerari bestelako norabide bat begitantzen zion. Komunaren iruditeriak ez zuen aintzat hartzen frantziako nazioaren eskala eta lurraldetasuna. Lekuko eskala, udalerriena, ala nazioartekoa zituen lehenesten. Errepublikak unibertsa zuen helburu.

Parisko Komunak Frantziako herri guztiei nahi zuten moduan antolatzeko deia zabaltu zien, beti ere herrien autonomian oinarrituz eta berdinen arteko harremanak errespetatuz.

Komunaren federalismoaren zerumugan ez zegoen gehiago naziorik, eta are gutxiago nazio batasunik ala lurralde batasunik.

Eratuko ziren erakundeak askatasun osoz eta, batez ere, borondate librean inolako inposaketarik gabe federatzen ahalko ziren, beren eskubideak eta independentzia bermatzeko.

Komunaren federalismoaren zerumugan ez zegoen gehiago naziorik, eta are gutxiago nazio batasunik ala lurralde batasunik. Udalerri libreen borondatezko federazio bat besterik ez zegoen. Udalerrien saretze horren printzipio eta helburu bakarra partaide bakoitzaren interesak zaintzea eta bermatzea zen. Herrien federazioak irudikatzen zuen baturak ez zion nazio jakin bati erreferentzia egiten, eta nazionalismoaren lurralde delimitazioaren eztaba da edo lehia guztiak baztertzen zituen.

2 <https://www.commune1871.org/la-commune-de-paris/histoire-de-la-commune/dossier-thematique/les-artistes-et-la-commune/616-lettre-de-courbet-a-ses-parents>



Napoleonen estatua lurlean. Argazkia: André Disdéri, Wikimedia Commons

Frantziako Estatuaren luze zabalean 1871an ugariak izan ziren mugimendu komunalistak.

Paris baino lehen beste batzuek Komuna aldarrikatu zuten. Marseillan eta Lyonen esate baterako, 1870eko abuztuan gertatu ziren lehen oldarraldiak.

Frantziako «Komunak»

Udalerrien federazioaren aldarriak Parisko lurraldea gainditzen zuen mugimendu sakon baten berri ematen digu. Estatua berezartzea helburu zuten kontserbadoreak sostengatzen zituzten Frantziako lurralde guztien eta Parisko Komunaren arteko bereizmarra absurdoa izateaz gain eraikuntza ideologiko baten emaitza baino ez da.

Frantziako Estatuaren luze zabalean 1871an ugariak izan ziren mugimendu komunalistak. Jeanne Gaillard historialariak 1971an argitaratu zuen liburuan argira ekartzen digu mugimendu komunalista periferian hasi zela Parisera heldu aurretik.

Paris baino lehen beste batzuek Komuna aldarrikatu zuten. Marseillan eta Lyonen esate baterako, 1870eko abuztuan gertatu ziren lehen oldarraldiak. Irailaren 24an, Lyonek Errepublikan aldarrikatu zuen, Parisen gertatzen zenaren zain egon gabe. Une berean, Marseillan Frantziako inperioaren eta Gobernuaren aurkako mobilizazioek kaleak hartu zituzten. Irailaren 24an, Lyongo Herriko Etxean ezarri zuten bandera gorriak martxoaren 3a bitartean iraun zuen. Bi hirietan udalen autonomia aldarrikatzeaz gain praktikan ere ezarri zuten.

3 Gaillard, Jeanne, *Communes de province, Commune de Paris 1870-1871*, Paris, Flammarion, collection "Questions d'histoire", 1971.

Emantzipaziorako paradigma berria

Komunalismoaren federalismoa Inperioaren zentralismoarekiko eta Frantziako gobernuarekiko mesfidantza erreakzioa baino mugimendu sakonagoa izan zen. Benetako Errepublika gauzatzeko deszentralizazioaren bidea ezinbestekoa zela pentsatzen zuten. Ordurarte Estatuarenak ziren eskuduntza gehienak lokalki betetzen hasi ziren. Eta udalerrria izan zuten demokrazia zuzena ezartzeko oinarritzko eskala.

Saiakeraren porrotak ezin du estali askatzaileak ziren formak aurkitzeko Komunak egindako aha-legina. Emantzipaziorako paradigma berri bat irudikatu zuten, elkarrekilakotasuna eta borondatezko harremanak oinarri zituen federalismoaren bidez. Ikusmira ezagun dugun Estatu-nazioaren ereduaz harago ezartzeko gai izan ziren, gobernatzeko forma burokratikoak baztertuz.

Benetako Errepublika gauzatzeko deszentralizazioaren bidea ezinbestekoa zela pentsatzen zuten.

Ikusmira ezagun dugun Estatu-nazioaren ereduaz harago ezartzeko gai izan ziren, gobernatzeko forma burokratikoak baztertuz.



Parisko udaletxearen hondakinak. Guardia Nazionalak erre zuen maiatzaren 24an. Argazkia: Auguste Hippolyte Collard, Wikimedia Commons

TXILEKO PROZESU KONSTITUZIOGILEA, PINOCHETISMOAREN HERENTZIAREKIN AMAITZEKO AUKERA HISTORIKOA



Eneko Compains Silva.
*Konstituzio Zuzenbidean Doktorea eta Sorturen
Kontseilu Nazionaleko kidea*



Barrikadak San Diego etorbidean, Santiagon. Argazkia: Pablo Castillo Quezada - CC BY-SA 4.0

**“Konstituzioak ez dira legelarien jakintza
teorikoetatik jaiotzen, krisietatik eta
borroka sozialetatik baizik”. J.A. Viera-Gallo**

Iragan maiatzaren 15ean eta 16an hauteskunde konstituziogileak ospatu ziren Txilen. Zehazkiago, Konstituzio berri bat hutsetik idazteko 155 ordezkari hautatu zituzten herritarrek, horietatik 17 bereziki erreserbatuak herrialde andetar honetan bizi diren jatorrizko herrientzat (Maputxeak, Quechuak edota Aimarak, besteak beste). Nondik dator, baina, Konstituzio berri baten beharra? Zerk eraman ditu egungo momentu konstituziogilera?

Hasiera batean protesta partikular eta lokala zena altxamendu orokor bilakatu zen segituan.



Protesten zergatiak azaltzen dituen kartela 2019ko protesta batean, Santiago.
Argazkia: Carlos Figueroa / CC BY-SA 4.0

“Ez dira 30 peso, 30 urte dira!” zioen protesten leloetariko batek, zuzen zuzenean apuntatuz diktaduratik demokraziarako trantsizioari eta Pinocheten herentzia politikoari.

2019ko urriko eztanda soziala

Hasiera data bat proposatu beharko bagenu, egokia litzateke 2019ko urriaren 6a. Egun hartan, Gobernuak, Santiago hiriburuko metro-txarteleko prezioaren igoera dekretatu zuen, klase herritarren haserre piztuz. Erantzuten lehenak bigarren hezkuntzako ikasleak izan ziren, neskak bereziki, desobedientziarako dei eginez, metroko pasarelak saltatuz eta ordaindu gabe pasatuz. Baina hasiera batean protesta partikular eta lokala zena altxamendu orokor bilakatu zen segituan, egun gutxiren buruan herrialde osora zabalduz. Elur bola efektua. Metro geltokiak kiskalita, trenbide eta autobideak moztuak, herri batzar jendetsuak, masa mobilizazio erraldoiak, greba orokorrak, poliziarekin enfrentamendu bortitzak... sekulako herri erantzuna.

Aise ondorioztatu daitekeenez, arazoa ez zen (soilik) metro-txartelaren prezioa. “Ez dira 30 peso, 30 urte dira!” zioen protesten leloetariko batek, zuzen zuzenean apuntatuz diktaduratik demokraziarako trantsizioari eta Pinocheten herentzia politikoari. Gauzak horrela, sektore sozial ezberdinen aldarrikapenak bata bestearen atzetik metatuz joan ziren mugimendu bateratuaren barruan: soldata minimoaren igoera, pentsio duinak, osasun sistemaren berrantolaketa, genero bereizkeriaren amaiera... eta hori guztiori “lege goren” bilakatu ahal izateko biltzar konstituziogile baten hautaketa.

**TXILEKO PROZESU KONSTITUZIOGILEA,
PINOCHETISMOAREN HERENTZIAREKIN AMAITZEKO
AUKERA HISTORIKOA**

Zergatik Konstituzio berri bat?

Francok Espainiar Estatuan egin bezala, Pinochetek ere dena “lotua eta ondo lotua” utzi zuen trantsizioan. Horretarako, 1980. urtean Konstituzio bat ezartzea agindu zuen, gaurdaino, moldaketak izan baditu ere, indarrean mantendu dena. Bere idazle nagusi izandako Jaime Guzmanek argiki esan zuen: “Konstituzioak bermatu behar digu ezartzen dituen aukeren markoa horren estua izatea, gure aurkariak agintea eskuratuta ere, gauzak errotik aldatzea ezinezko izatea. Aurrerantzean, nork aginduko duenaren garrantzia ez da guztiz desagertzen, baina asko murrizten da, soilik aldaketa moderatuak eta antzeko tendentziak dituztenak izango baitira posible”. Bada, esan eta egin.

Horregatik, 1988ko Pinocheten jarraipenerako erreferenduma galdu bazuten ere, bere herentzia politikoa bizi-bizi mantendu da hamarkadetan zehar.

Eta zein da herentzia hori? Hasteko, herrialde kapitalista guztiz neoliberal bat, mundu mailako ezberdintasun sozialik handienetarikoak dituen. Txilen eskubide sozialik ez dago; dena da negozio: osasuna, hezkuntza, pentsioak, natur baliabideak... Konstituzioaren aginduz, Estatuak soilik merkatuaren “osagarri” moduan jokatzen du, paper zinez eskasa betez. Horrekin batera aipa litezke ere indar militarren eta segurtasun indarren demokratizazio eza, jatorrizko herrien aitortza eza edota patriarkatuaren instituzionalizazioa.

Txilen eskubide sozialik ez dago; dena da negozio: osasuna, hezkuntza, pentsioak, natur baliabideak...



Matias Segura artista bisualaren proiektzioa Santiagoko eraikin batean.
Argazkia: Javcollao / CC BY-SA 4.0



Karabineroen Indar Bereziak manifestarien aurka tiro egiten Rancaguako Plaza de los Héroesen.
Argazkia: SrArancibbia / CC BY-SA 4.0

Elite zaharren erantzuna

Urriko altxamendua ikusita, Estatu aparatuen erantzuna zinez bortitza izan zen. Salbuespen egoeraren aldarrikapena, indar armatuen presentzia itogarria eta errepresio basatia, 17.000 atxilotu, ehundaka zauritu eta hamarnaka hildako utziz hilabete bakar batean. “Guda betean gaude etsai arriskutsu baten aurka”, esana zuen Piñera Presidente eskuindarrak, sekulako polemika piztuz.

Egoeraren larritasuna ikusita, ordura arte joko kanpo zeuden alderdi nagusiak biltzen hasi ziren, egoerari aterabide demokratikoago bat bilatu asmoz; egun gutxitan, akordio politikoa erdietsi zuten: “Bake sozialaren eta Konstituzio berriaren aldeko akordioa”. Bertan, ordena publikoa berrezartzeko deia egiteaz batera, prozesu konstituziogilearen oinarriak finkatzen ziren.

TXILEKO PROZESU KONSTITUZIOGILEA,
PINOCHETISMOAREN HERENTZIAREKIN AMAITZEKO
AUKERA HISTORIKOA



Argazkia: Carlos Figueroa / CC BY-SA 4.0



Txileko Presidente Sebastian piñera 2019ko azaroaren 12an, justiziaren, bakearen eta konstituzio berriaren alde akordio politikoa aldarrikatuz. Argazkia: Gobierno de Chile / CC BY 3.0 cl

Bada, bere baieztapenak zentzuzkoak zirela erakutsi dute hauteskunde emaitzek, inkestak guztiek aurreikusitakoak hankaz gora jarri baitituzte.

Horrela, jatorrizko herrien 17 ordezkariak albo utzita, hautagaitza independenteak izan dira bozkatuenak, 48 ordezkariarekin; horietatik 24 “Lista del Pueblo” zerrendakoak (ezkerre), beste 11 “Nueva Constitución” zerrendakoak (zentro eta zentro-eskuina) eta azken 13ak zerrendetatik kanpo aurkeztuak. Horrekin batera, nabarmentzekoa da ere Alderdi Komunistak eta Frente Amplio

Puntu polemikoena, Alderdi Komunista akordiotik kanpo geratzera eraman zuena, eskuinak behartu zuen. Horren arabera, Konstituzio berriaren edozein artikulua adosteko 2/3eko quorum-a beharko zen biltzar konstituziogilean. Alegia; 155 ordezkarietatik gutxienez 104k babestu beharko zuten aldaketarik txikiena ere. Modu horretan, pinochetismoak (eta eskuinak oro har), biltzarrean planteatutako edozein aldaketa garrantzitsu geldiarazteko gaitasuna izango zuela pentsatzen zuen. Berriz ere dena “lotua eta ondo lotua”. Bai? Ba ez! Zorionez esan dezakegu haien kalkulu politikoa pikutara joan berri dela.

“Guda betean gaude etsai arriskutsu baten aurka”, esana zuen Piñera Presidente eskuindarrak, sekulako polemika piztuz.

Hauteskunde konstituziogileen emaitzak

Hauteskunde asteburua baino bi egun lehenago Victor Tricot irakasle txiletarrak azaltzen zigun bezala, emaitza aurreikusi ezina zen, klase politikoaren sinisgarritasun galerak, Piñera presidentearen onarpen-maila negargarriek edota hautagaitza independenteen biderkatzeak ezinezko egiten zutelako garaile nor izango zen aurreikustea. Eskuinak beto eskubidea bermatuko zion ordezkartzaren herena lortuko zuen baieztatzea ere ezinezkoa zeritzon.

sustatutako “Apruebo dignidad” zerrendaren emaitza, 28 ordezkariarekin.

Galtzaile nagusiak bipartidismoaren alderdi tradizionalak izan dira. Zentro-ezkerreko alderdien “Lista del Apruebo” delakoak 25 ordezkari besterik ez ditu lortu, eta Txileko hiru eskuinen (liberal, kontserbakor eta faxista) zerrenda bateratuak 37 ordezkari lortu baditu ere, oso urrun geratu da beto eskubidea bermatuko lioketen 52 ordezkarietatik.

Aurreko datuarekin batera, nabarmentzeko datua da emakumeen presentzia nabarmena (osotara 83). Txileko mugimendu feministak gogotik egin du borroka urteetan zehar eta, azkenean, aldaketa legalak behartu ditu. Horrela, lehen aldiz historian, hauteskunde parekideak ospatu dira.

Bukatzeko, ikuspuntu antikapitalista batetik, itxaropenerako bi datu: hautatu berri diren 155 ordezkarietatik gutxienez 77 argiki anti-neoliberalak dira eta kanpainan finantziazio gehien lortu zuten hautagaietatik soilik 9k lortu dute ordezkartza. Bada marka!

Txileko mugimendu feministak gogotik egin du borroka urteetan zehar eta, azkenean, aldaketa legalak behartu ditu.



Aukerak eta mehatxuak

Edozein lehia politiko irabazteko indar korrelazioa bezain garrantzitsua da joko-arauak finkatzeko gaitasuna izatea. Txilen, orain arte, pinochetismoak finkatzen zituen joko arauak, eta, gaur gaurkoz indarrean badiraute ere, herriak horiek guztiz txikitzeko aukera parez pare ireki du. Egia da Allendek iragarritako “zumardien zabaltzetik” ez dela oraindik herri askea pasa, baina partida badago, eta ez da gutxi, ze eskuinak hasi aurretik amaituta nahi baitzuen, bere giltzarrapo antidemokratikoak baliatuz.

Alta, ezin triunfalismoan erori. Txile da seguruenik (Kolonbiarekin batera) AEBk Latinoamerikan duten lagunik kuttunena. Horregatik, aurreikustekoa da Inperioak bere hariak mugitzeko ahalegina egingo duela, toki batetik edo bestetik, aldaketarako aukera zapuzteko.

Partida badago, eta ez da gutxi, ze eskuinak hasi aurretik amaituta nahi baitzuen, bere giltzarrapo antidemokratikoak baliatuz.

TXILEKO PROZESU KONSTITUZIOGILEA, PINOCHETISMOAREN HERENTZIAREKIN AMAITZEKO AUKERA HISTORIKOA

Euskal Herrirako lezioak

Inguruabar geopolitikoak eta bakoitzaren errealitatea ezberdinak badira ere, badago Txileko prozesuaz zer ikasi. Aukera historiko hau zabaltzeko badute, terreno sozialean (bereziki) mantendutako batasun anitzagatik eta borrokarako erakutsi duten gaitasunagatik izan da.

Batetik, sektarismoa alboratuz, gai izan dira borroka lokal eta partikular batetatik olatu erraldoi bat altxatzeko, klase-artekoa, gehiengo herritarren eta sektore zapaldu ezberdinen interesak ordezkatzeko zituen: ikasleak, langileak, pentsiodunak, jatorrizko herriak, emakumeak... Gehiengo horiek artikulatu gabe, argi esan dezagun, ezinezkoa zatekeen egungo agertokia.

Baina bestetik, borroka molde ezberdinak uztartzen jakin zuten ere, baketsuak batzuk, bortitza besteak, herritarrak denak, eta guztiak beraiei baldintza politiko eta sozial zehatzei lotuak. Izan ere, gehiengoak osatzea funtsezko da, baina aski al da? Batzuetan egoera leherrarazi behar da, “aski da!” esan. Txileko herri xeheak ongi irakurri zuen bere momentua zela eta halaxe agertu da. Bejondeiola!

Sektarismoa alboratuz, gai izan dira borroka lokal eta partikular batetatik olatu erraldoi bat altxatzeko, klase-artekoa, gehiengo herritarren eta sektore zapaldu ezberdinen interesak ordezkatzeko zituen.

Herri Batasunak 1990. urteurrean Hego Euskal Herrirako autonomia estatutu proposamena argitaratu zuen. Horren ondoren, arloz arloko proposamenak aurkeztu zituen. Horietako bat Polizia eta Ejertzitoari buruzkoa. Jarraian dagoen testua, poliziari buruzko atalaren zati bat da.



III. FUNTS JURIDIKO-POLITIKOAK

A) Segurtasun publikoa gordetzea Hego Euskal Herriko Autonomi Elkartearen eskumen eksklusibokoa da.

B) Segurtasun publikoa gordetzeko, Hego Euskal Herriko Autonomi Elkartek bere polizi kidegoak sortu eta araupetu ahal izango ditu, honako Estatutu honetan eta berau garatuko duten legeetan ezarriko den bezala.

C) Hego Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Polizi Kidegoak honako hauek iango dira:

- Ertzaintza, bertan herrialde historikoetako erakundeen menpeko poliziak piskanaka-piskanaka sartuko direlarik.

- Udal korporazioen menpeko polizi kidegoak.

D) Ertzaintza izaera zibileko menpeko erakundea da, Euskal Gobernuaren kontrolaren menpean eta Hego Euskal Herriko Autonomi Elkarteko hiritarren eskubide eta askatasunen zerbitzupean dagoena.

E) Ertzaintzak, Estatuaren Segurtasun Kidego eta Indarren erabateko atzerapena oinarritzat hartuta, eskumena izango du, polizi zerbitzu guztiei heltzeko.

F) Ertzaintzaren eta Estatuaren Segurtasun Kidego eta Indarren polizi zerbitzuen koordinaziorako, beti ere elkarte eremua gainditzen duten arloetan, koordinazio eta informazio elkartrukerako legezko mekanismoak ezarriko dira, geroagoko lege baten arabera.

G) Ertzaintzaren eta gainerako polizi kidegoen agintaritza, udal korporazioen eskumenen kalterik gabe, Hego Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Gobernuari dagokio.

H) Poliziaren eredu zibilaren arabera, buruak bertakoak eta zibilak izango dira, Hego Euskal Herriko Autonomi Elkarteko eskudun agintariek izendatuko dituztelarik, beren xedapen eta araudien arabera.

I) Hego Euskal Herriko Autonomi Elkarateak beharrezko eskuarteak jarriko ditu, udalerrietako poliziak bultzatzeko, Korporazioaren menpe-menpean segurtasun publikoa gordetzeko tresna nagusi gisa.

J) Udal Administrazioen menpeko Polizi Kidegoek, beren eginkizunei dagozkienez, iharduketa, estatutu eta beraien eta Ertzaintzaren arteko koordinazioaren oinarrizko printzipioak bete beharko dituzte, honako Estatutu honetan eta Hego Euskal Herriko Autonomi Elkarateak berak ematen dituen legeetan aurrakusten den arabera.

Urrunketaren maparen bilakaera


Dispersioaren eta urrunketaren mapa zeharo aldatu da azken hiru urteotan. 2018 urtera arte ez Estatu frantziarrak ez espainiarrak ez zuten euskal preso politikoentzat espetxe politika humanizatzeko inolako asmorik, gerra-posizioetan kateatuta baitzeuden garaitu eta garaileen arteko eskemak aplikatuz. Oraindik ere salbuespeneko espetxe politika ezartzen jarraitzen badute ere, euskal jendarteak bi gobernuen jarrera ankerra mugiaraztea lortu du.

2017an armagabetzearen ostean, mintzakidetza publikoari ekin zitzaion Ipar Euskal Herrian. Hala, Parisko Lan Esparrua eratu zen Justizia Ministerioaren eta Ipar Euskal Herriko ordezkarien artean. Abenduan, 11.000 Euskal Herriarren manifestazioa izan zen Parisko karriketan, espetxe-politika aldatzeko exijituz. 2018 hasieran, Macronen Gobernu berriak lehen hurbilketak gauzatu zituen Mont-de-Marsan eta Lannemezaneko espetxeetara.

2018ko ekainean, ETA desegin eta hilabetera, Mariano Rajoyren aurkako zentsura mozioarekin, Pedro Sanchezek eratu zuen Mardilgo Gobernua. Ordura arteko blokeo politikarekin amaitzeko asmoa agertu zuen presidente berriak, baina hauteskundeak errepikatu eta 2020ko urtarrilean Podemosekin Gobernua eratu arte ez zen mugimendu berezirik gertatu.

Joera aldaketa hau ez zatekeen posible EPPK-k abiatutako ibilbiderik gabe, kaleko mobilizaziorik

2018ko mapa



Urrunketa Estatu frantsesean

Etxean preso

500 km. artean

500-800 km.

800-1.100 km.

EPPK-ko preso kopurua

Estatu frantziarra

Guztira

Estatu espainiarra

Urrunketa Estatu espainiarrean

Euskal Herriko espetxeetan edo etxean preso

500 km. artean

500-800 km.

800-1.100 km.

EPPK-ko presoek klasifikazioa Estatu espainiarrean

1. gradua

2. gradua

3. gradua

Klasifikatu gabeak (prebentibo)

Guztira

Begi bistakoena presoen gertu-
ratzea da. Orain dela hiru urte,
95 zeuden 800-1.100 kilometrora
(egun, 8); 123 zeuden 500-800
kilo metrora (egun, 6); 54 preso
zeuden 500 kilometrora artean
(egun, 140); eta 7 zeuden etxean
eta Euskal Herriko espetxeetan
(egun, 56).

Frantziako Estatuan ez da gradu politikarik, baina espetxe barruan kontrola areagotzen duen DPS estatusa kendu diete euskal preso guztiei, lauri izan ezik.


Egoera zertxobait humanizatu bada ere, presoek preso jarraitzen dute. Fase bat gainditzen ari garela erakusten digu urrunketaren mapak eta hurrengo fasera begira jartzeko laguntzen digu: askatasunaren fasera.

2018ko uda	2021eko uda
212	8
17	157
0	12
-	7
229	184



A large, stylized white letter 'G' is centered on a solid red background. The 'G' has a thick, rounded stroke and a small gap at the top right.

GOMENDIOAK:



Arroz urez

Mikel Albisu Iriarte, 'Mikel Antza' 2021 Txalaparta



Urteurren borobilaren testuinguruan publikatua bada ere, Burgosko Prozesua liburu honen aitzakia besterik ez da. Izan ere, orain 50 urte pasatxo gertatutakoa oinarri hartuta, azken hamarkadetan herri honen askatasunaren alde egindako borrokaren historia kontatzen du Mikel Antzak. Edo historia posible bat bederen, autorearen bizitzari estuki lotua dena. Orduko protagonista nagusiekin izandako elkarriketak eta bizipen propioak nahasten ditu, agerikoa eta ezkutukoa etengabe lotuz. Autorea bera ere beste pertsonaia bat gehiago bilakatzen da. Liburua osatzen duten den hamasei pasarteetan zehar, pixkanaka, jabetzen goaz herri honek biziraun badu oihartzuna izan duten izenen atzean ezkutuko lan isil eta anonimo itzela egon delako izan dela. Herri bat ilusioz lanean, baina baita sufritzen ere. Etengabe aurrera eginez, azken finean.

Denboran atzera eta aurrerako bidaia ere bada lan hau, iragana eta oraina etengabe nahasten dituen, Burgosko Auzia duelarik erreferentzia konstantea. Orduan epaitu zituzten gazteen arrazoiak eta

ostean borrokari lotu direnenak kate beraren katebegi gisa islatzen ditu saio literario honek. Sumario haren aurretik, eta ostean ere, soka berari tiraka eraikitzen den borroka historia bat uzten du agerian.

Aldi berean, kasualitateen eta kausalitateen arteko muga zein mehea den erakusten digu. Orrietan barna, zaila da jakiten zer den patua, destinoa, edo zer den kapritxo soila. Ez dira gutxi, jasotzen dituen kontakizunetan zehar, egiten diren lotura bitxiak. Mikel bera Txabi Etxebarrietaekin, Sarri eta Txillardegiarekin, eta ia-ia Ortziarekin ere. Jakin nahi duenak, irakurtzea besterik ez du.

Laburbilduz, liburuak sona handiko pertsonaien sestrari jarraitzen die, ezagunak zaizkigun pasarteak gogora ekarri, halabeharrez. Halabeharrez diogu, Euskadi Ta Askatasunaren sorrera eta bukaera lotzen dituen lan honek, ezer gutxi konta dezakeelako jakina ez denik, inor ataka larrian jarri gabe. Ez bada, noski, lerro artean arroz urez idatzirik.

Nomadland

Zuzendariak: Chloé Zhao

Fitxa Artistikoa: Frances McDormand, David Strathairn, Linda May, Charlene Swankie, Bob Well

Nomadland, denbora luzez burutik kentzea lortzen ez duzun bizitza errealean oinarritutako film horietako bat dela esan daiteke. Erabat hunkigarria eta kolpe emozionalerik beteriko esperientzia zinematografikoa. Frances McDormandek antzezten du pertsonaia nagusiaren papera, Fern deituriko emakumea, hirurogeita hamar urteko alarguna, XXI. Mendeko lehen hamarkadan hasitako Ipar Amerikako ekonomiaren gainbeheran kokaturiko filmean. 2012an, egoera ez da aldatu. Krisiak jarraitzen du. Bere senarra hil eta bertako industria bakarra desagertu eta gero Nevadako estatuan bizi den herritik zein bere etxetik alde egitera behartua dagoen emakumea.


Hortzemuga berri baten, etxebizitza xume bezala funtzionatzeko egokitua izan den bere furgonetarekin batera. Furgonetara sartu bezain pronto, bizimodu txirotu eta nomada batera behartutako milaka amerikar zaharkituetako bat izango dela konturatzen da. Linda Maerekin[Charlene Swankie eta Bob Wells beren burua antzezten duten "nomada" errealekin] batera hasiera ematen dio bere bidaiari. Bestalde, ibilgailuetan bizi diren sasoiako aldi baterako lanetan diharduten adineko pertsona desjabetuen bizitzetako buruzko pelikula dela ere esan genezake. 2017eko Nomadland: Surviving America in the Twenty-First Century edo "Un país nomada" espainolez orain dela urtebete argitaratutako liburuan oinarritzen da. Atzeraldi ekonomiko handiak,

adineko pertsonak beren etxe eta komunitateetara alde egitera nola behartu zituen erakusten duen ikerketa basatia. Lan bila eta doako aparkaleku bila Estatu batuetako errepideetan barna dabiltzan adineko bizitzaren errelato ikaragarria.

Pelikulak eztabaida ezberdinak piztu ditu, horien artean, hain zuzen ere filmean zelan isladatzen den Amazon bezalako erraldoi batek bere langileei ematen dien tratua inguruan. Amazoneko biltegiak ezagunak dira langileei bainugeletara joateko etenaldiak ukatzeagatik eta laneko estres errepikakorrak eragindako lesio ugariengatik.

Batzuen ustez guzti hori liburuan ez bezala, pelikulan ez dago isladatuta eta Bezossen erraldoia onik ateratzen da kritikarako aukera paregabea galduz, goian aipaturako adineko pertsonen existentzia latza erromantizatuz. Beste batzuen ustez, ez dira horrelako egoerak isladatzen dituzten filme guztietan ohituak gauden kritika soziala edota langile estatubatuarren aldarriak zertan plasmatu behar; egoera horretan bizitzera behartuta dagoen pertsona baten bizitza tamalgarria kontatzen digu, badakiela hori dela bere irtenbide bakarra eta sufrimendu horren pean edonork egingo lukeen bezala eusten diola. Horixe bera filme osoan zehar marrazten den terrora.

Eztabaidak-eztabaida, Zhao zuzendariaren talentuak eta filmaren indarrak ukaezinak dira.



Nomadlandek gure beldur sakonei eta gure bizimodu alternatibo baten irrika hunkigarriari heltzen die, gure munduak pairatzen duen hondamendiaren baitan; milioika lagun nonbaiten, ia duten guztia galtzeko ataka estuan.

Gutako horiek ere, gaur egun osasun eta segurtasun ekonomikoan laguntza-puntu sendoago bat izateko bezain zorionekoak garenok, dena prekariora dela aitortzen dugu. Baldintzak egonkortuko diren itxaropenak eta okerreza sailhestu dezaketen konponbide politikoak lortzeko aukerak ezin dute geldiarazi goizaldeko 03:00etako izua, ezagutzen dugun bizitzatik etengabe aldenduko gaituen hondamendi baten amaieratik. Azkenengo hamarkadan distopiak nagusitu dira gure pantailetan.

Oso film utopiko gutxi ditugu dagoeneko. Aldiz, hauxe porrot egiten ari den nazio baten esparru distopikotik sortzen den pelikula utopikoa dela esan genezake. Horixe da horrenbesteko indar emozionala ematen dion elementua.

Zapalduaren duintasuna

Norman Ajari, Dignidad o muerte, Ética y política de la raza, Txalaparta, 2021

Itzultzailea : Cristina Lizarbe Ruiz

Filosofia deskolonizatzeko premia gero eta sarriago aipatzen den honetan, *La dignité ou la mort* liburuan Norman Ajarik Europako tradizio filosofikoaren analisi kritiko gupidagabea proposatzen digu. Hasi eta buka, aro modernotik Europan nagusi den duintasun kontzeptuaren muga ekartzen digu gogora.

Norman Ajariren begietara, Europa Mendebaldeko filosofian, Pic de La Mirandole, Kant et Habermasi jarraikiz, duintasunaren ikuspegi liberala da nagusitu. Zeinak, gizatasun duina dutenen eta ustezko aberetasunean konfinatuak gelditu direnen arteko bereizketari bermea ekarri dion. Eta, egun unibertsaltasunaren itzalpean indarrean jarraitzen duen ikuspegi horrek, beltzen eta azpiratuak dauden populazioen duintasunaren aldarria oztopatzen du.

Idazleak oroitarazten digu, "pertsonek beltz oro esklaboak edo kolonizatuen ondorengoak" izanik, deshumanizazioaren historia bat heredatzen duela. Eta zehazten digu, beltzen bizitza duintasunik gabekoa dela, hots, "heriotzak ezaugarrituriko

bizitza", non ezinezkoa bihurtzen zaien ez pertsonalki ez eta kolektiboki ere etorkizunean proiektatzea.

Norman Ajarik mundu beltzen pentsamendu erradikalaren historia ezezagunaren hurbilpen sakona eskeintzen digu. Esklabuen matxinadak, belztasunaren aldarrikapenak, Ipar Amerikan eta Hegoafrikan kristautasunaren usadio iraultzaileak, beltzen benetako askapen-ibilbideko beste hainbeste etapa moduan aurkezten dizkigu. Elkarren arteko loturak eta eraginak irudikatuz.

Norman Ajarik duintasunari buruzko premiazko gogoeta bat egiten du. Izaki beltzen historiaren filosofia deskolonizatu bat proposatzen digu, zeinaren baitan, historia koloniala, esklabotza, deshumanizazioa, arraza-indarkeria eta gizarte-heriotza askapen ibilbide baten oinarri gisa ezaugarritzen dituen.

Beltzen borrokaren motor historikoetako bat, beren eskubideak aitortzeko duintasunaren aldeko borroka izan dela oroitaratzen digu.

Izan ere, duintasuna da zuriak beltzen aurka indarkeria erabiltzen duenean ezabatzen saiatzen dena. Baina duintasuna ere bada gizon zuriak galtzen duena izaki beltza zapaltzen duen aldioro. Azken batean, horixe da izaki beltzak kolektiboki baieztatzen duena dominazio zuriaren aurka egiten duenean.

Alabaina, gazte beltz baten duintasuna erasotua denean, Estatuaren ordezkariak beltz bat bortxatu edo hiltzen duten aldioro, afrikar duintasunaren aldeko historia eta borroka luzea da zuzenean erasotzen dena.

Funtsean, duintasuna zapalduak bizitzaren eta heriotzaren artean zutik irauteko duen gaitasuna da.



Lokatza podcasta



Egungo mundua feminismoaren begiradatik: pentsamendu feminista narrastuz; berau aztertu eta ulertzeko saiakera da Lokatza podcasta.

Lokatza ura eta sedimentuz, hauts partikulez eta buztinez osatutako luraren arteko nahasketa semilikidoa da. Denboraren poderioz, lokatza, lehortu eta gogortu egiten da, lutita bihurtuz, eta lutita, bustiz gero, lokatz bihurtzen da berriro ere, lokaztuz, baina lokatza eraikuntzan erabiltzeaz gain; osasungintzarako, sormenerako, edertasunerako eta gozamenerako ere oso baliagarria da, eraiki eta deseraikiz.

Eta hori da hain zuzen, Ainara Lasak, Amagoia Gurrutxagak, Idurre Eskisabelek eta Lorea Agirrek sortu eta gidatutako podcast horiek entzunez sentiarazitakoa; Maite Arroitauregi Mursego-ren sintonia, Lourdes Iriondoren Hala ere kantutik abiatuta eta Leire eta Maider trikitilarien berariazko musika aukeraketarekin akonpasatuak.

Sortzaileek zortzi atal ekarri dituzte lokatzetara: ahotsa, desioa, etxea, gatazka, epika, bidaia, sormena eta boterea; bakoitzean, hainbat auzi, pentsamendu feministaren argitan aztertzeke saiakera sakon, iradokitzaile eta

sendo mihiztaketatzen dituzte, euskalki, tonu, adin edota jatorri ezberdinetako kolaboratzaile eta elkarriketatu miresgarriekin, polifonia izugarria lortuz.

“Ahotsa” eta zer da ahotsa? norena da? nolakoa behar du izan entzuna izateko? reberberaziotako mezu ekualizatuak ahotsari buruz entzun ditzakegu lehenengo podcastean. *“Epika”* du bigarrenak mintzagai, baina zer da epika? non ikusten dugu epika? nork erabakitzen du ze gertakari den epikagarri? nola eta nondik eraiki ditzakegu bestelako epikak? non dago gure memoria? Lotzakan entzun dezakegu epikaren errepikaren epika! *“Etxea”*, aterpea, bizitokia, infernua; etxean, erlojua denboraz desjabetuz, etxeko lanak, etxeko zaintzak, etxeko gaitzak. Zer gertatzen da etxe barruetan? Etxean goxo, etxean otso. Etxeko suak eta itoginak etxeko lokatzez bistaratu. Denbora, enplegua, zaintza, datuak, sistema, birproduktzioa, familia, kotizazio eza, maitasun erromantikoa, etxekoandrea, militantzia... hainbat? dira hirugarren grabazioko gaiak.

“Desioa”. Desiragarria da laugarren saioa, eta, desioak... pentsamendu feministan narrasean. Desioa lokatzetan. Zeri esaten diogu desio? Zer gertatzen da bortxaketa desioz moztortzen denean? Eta kontsumismoz jantzten? Zerk sortzen digu desioa? Eta desioak zer sortzen digu? Desio ez-kapitalistarik posible ote da? Nekez irudi daiteke desioa baino auzi politikoagorik.

Eta *“Bidaia”* da, bosgarrena, bidaia eta bidaia daude, turistenak eta

migrantenak, eki eta hegoaldekoak; kolonizatzaileenak eta zapalduenak; eta bideak, errepideak eta itsasoak; eta garraioak, abioiak, trenak, kamioi kamarak eta paterak; eta bidaideak, bidelagunak, lagunak, babesle eta bioladoreak; mugak eta kontrolak; eta pasaporteak, baimenak, ordainketak, gorputz ordainketak eta bortxaketak; eta polizoiak eta poliziak! Ahizpen ahotsak gordinak badira, askoz ere lazgarriagoak dira haien bizipenak.

Ai eta sinatzaile eta gure juanetedunen artean, ez dago ahots distorsionaturik, hauek ere, mimoz afinatu dute beraien ekarpena.

Hartara, orain arte iritsi zaizkigun grabazio guztiak soinu aberatsez konposaturik daude. Anitzak Lokatza entzun ahal diren gaur egungo bizimoduaren eta sistemaren kontrako kexa, adierazpen ezberdin, portaera sozial orokorraren inguruko atsekabea, barren-barrenetik, jatorri, erritmo eta hamarkada ezberdinetako abestiak; eta anitzak ere Mursegok, pedal loop station, txiflo, platertxo txinatarrak, enbolo-txirula, eta ahotsa erabiliz, sortzen dituen onomatopeiak eta audio efektu onirikoak.

Edukiak atemporalak direnez, BIS bat merezi dute eta oraindik asko dugunez entzuteko, *“beste bat”* eskatzeko aukera aprobetxatuko dugu.

Jakinek talde lanean ekoiztitako Lokatza podcasta, EiTb podcast atarian eta Spotify entzungai dago.

Xenofeminismo: tecnologías de género y políticas de reproducción

Helen Hester

Editorial Caja Negra, 2018

El xenofeminismo es el eslabón perdido entre el feminismo radical de la década del 70 y el cyborg contemporáneo y propone conceptos clave como el racionalismo, la alienación o la universalidad, entre otros.

El grupo Laboria Cuboniks, [al que pertenece la filósofa y profesora especializada en tecnología, Helen Hester] señalaba en su manifiesto "Xenofeminismo: una política por la alienación", que se incitaba a la apropiación de las tecnologías existentes para transformar las condiciones de opresión sociobiológicas del sistema actual.

El prefijo xeno- refiere a la voluntad de producir un tipo de feminismo que adopte la diversidad sexual más allá de cualquier concepción binaria y que tenga la capacidad de forjar alianzas y modos de solidaridad con lo distinto. A partir de influencias que van desde el ciberfeminismo, el poshumanismo, el activismo trans*, el materialismo y el aceleracionismo, las xenofeministas proyectan un mundo más allá de las nociones de género, sexo, raza, especie y clase, y entienden la naturaleza como un espacio de conflicto atravesado por la tecnología que debe ser reconquistado constantemente, en especial por las mujeres sobre quienes la idea de lo "natural" con su mandato reproductivo pesa de forma aplastante.

Esta corriente propone asentar los discursos de izquierda y del feminismo actuales y diseñar los cimientos materiales y tecnopolíticos de una lucha conjunta desde identidades diversas.

El libro de Helen Hester recoge las bases de esta corriente y esboza una estrategia real. Hester amplía lo expuesto en el manifiesto y desarrolla una programática a partir de sus tres pilares teóricos: el antinaturalismo, el tecnomaterialismo y el abolicionismo de género. Estos ejes se dirigen a abordar lo que para la autora constituye uno de los territorios fundamentales para cualquier posición xenofeminista: el problema de la reproducción y su relación con nuestro destino en el planeta. Se trata de desarrollar representaciones para un "futuro extraño" que no impongan ni condenen la reproducción biológica y que establezcan modelos no normativos de reproducción social basados en la autonomía de los cuerpos y la diversidad sexual, capaces de promover lazos afectivos y de cuidado más allá de la filiación sanguínea.

La postura xenofeminista habla de un universal abierto y, como tal, se puede situar como el punto de encuentro entre dos visiones polarizadas de izquierda y que podemos concretar en dos figuras del star system filosófico.



Por un lado, Judith Butler, que deconstruye conceptos naturalizados para mostrar que el lenguaje hace cosas, que es performático y que es algo que se construye desde el poder: a base de repetir conceptos como 'mujer' y 'hombre' los hemos naturalizado, por otro, Slavoj Žižek, que critica las pospolíticas identitarias y la atomización de la lucha por desplazar el foco de cuestiones estructurales a otras culturales. Mientras Butler nos sume en un problema lingüístico autorreferencial, según el cual, reclamar un derecho supone generarlo solo por el derecho a repetirlo, Žižek prioriza la lucha común estructural-económica y otras reivindicaciones como el feminismo, el movimiento trans o el antirracismo.

Asimismo el xenofeminismo parece estar más cercano a la línea de Nancy Fraser en ¿Reconocimiento o redistribución? Un debate entre marxismo y feminismo donde reconoce las diferentes opresiones culturales y materiales para poder afrontarlas.

Si el mundo actual y, sobre todo, su futuro, está vertebrado por la tecnología, tenemos que hacer que esa tecnología sea feminista. Las feministas debemos de equiparnos, formarnos y aprender.

Telesail gomendioak

Xabier Landabidea Urresti



American Gods: neoi-argizko kitsch mitologikoa

Egokitzapenak modan daude. Ez da esaten dugun lehen aldia, eta azkena ere ez da izango, egokitzapenen aro betean gaudelako. Istorioak berriro kontatzea gustatzen zaigu, istorio bera, edo antzeratsua, baina beste modu batera. Liburutik pantailarako eta pantailatik liburuetarako jauziak gure ekosistema kultural garaikidearen ohiko osagai bihurtu dira. Superheroiak, biografiak, komikiak... eta jainkoak, noski. Jainkoak hil egin genituen behar bada, baina ez ziren inoiz joan.

Jainko amerikarrak Neil Gaimanen 2001eko izen bereko eleberriaren Starz telebista edukien ekoiztetxe eta banatzailearen ikus-entzunezko bertsioa da. Estetikoki kitscharen eta americanaren arteko nahasketa berezi eta arriskatu samarra eskaintzen duen telesaila da, neoiz argizko barrokoa ematen duena tarteka, eta Amerikar kontinentera joandako jainko zaharren eta estatu batuetako gizarte garaikidearen jainko modernoaren arteko guda kontatzen digu.

Gaimanen egokitzapenei gertatu ohi zaien bezala (*Neverwhere* eta *Good Omensekin* ere gertatu

zitzaien] oso zaila da idazlearen mundua irudizko narratziora eramatea. Idatzita sinesgarria izan daitekeena sinesgaitza bihur daiteke pantailan, eta aktoreek (txalo bero bat mesedez Emily Browning, Ian McShane, Crispin Glover eta Yetide Badaki erraldoientzat) lan ederra egiten duten arren tarteka telesaila horteratasun metafisikoan barneratzen da erremediorik gabe.

Zergatik ikusi orduan? Mitoen, fedearen eta modernitatearen inguruko hausnarketa emankorra eskaintzen duelako klabe fantastikoan. Gainera ausardia behar da kontzienteki hortera izateko, eta telesail hau ausartu egiten da, horretaz ez dago dudarik.



Die Neue Zeit: Bauhaus eta aro berria

Kunst. Artea, alemanieraz. 1919Ko Weimarko errepublikan kokatzen da kontakizuna, Bauhaus eskolaren hastapenetan. Flashback estiloan kontatuko zaizkigu Staatliche Bauhaus-aren lehen urteak, Stine Branderup kazetariak Walter Gropius arkitektoari Vanity Fair aldizkarirako egindako elkarrizketaren aitzakian. Atalez atal, Gropiusen kontakizuna ezagutuko dugu, inoiz oso ondo jakin gabe bere memoriak zenbat duen objektibotasunetik eta zenbat subjektibotasunetik

Lehen urteen leherketa estetiko, sozial eta ideologikoaren zorabioa, potentzialtasuna eta talkak erritmo eta eraginkortasun biziz kontatzen ditu telesailak bere sei ataletan. Narrazioaren oinarrian, bi pertsonaia: adindutako Gropius bera, eta lehen belaunaldiko Bauhaus eskolako ikasle eta kolektiboko kide Dörte Helm [Anna Maria Mühe]. Zuzendaria eta ikaslea, gizona eta emakumea, fundatzailea eta hasi-berriaren arteko tentsio dialektiko eta pertsonalean ardazten da kontakizun osoa, lehen ataletik amaiera irauten duen joan-etorri sakonki problematikoan.

Telesailaren pisua Dörtek darama. Bera da telesailaren zutabe zentrala. Berak haragitzen du eskolaren potentziala, eskolaren garapena, eta finean eskolaren ezintasuna. Gropius narratzailea izan daiteke, baina finean ez da Helmen ispilua baino. Atal guztiak maila berean ez dauden arren (eta ez dute zertan egon, Bauhausen historia edo Alemaniarena ez da istorio homogeneo bat azken finean) osotasun eder bat eskaintzen duelako, eta lekukotza historikoaz haratago gure gizartearen izaeraz, arteaz eta hezkuntzaz pentsatu eta ekiteko helduleku inportanteak eskaintzen dituen telesaila delako.

Bizitza bezain gozoa eta garratza izaten dakien sei ataleko proposamen eder bat, ikus-entzulea gehiago jakiteko gogoz uzten duena.





